Haien helburua zen ikastetxeak kontrolatzea, egunero amak eta seme alabak joaten ziren ikastetxe hartara, beraien nahia zelako hezkuntza sistemak aurrera jarraitzea, ez zegoen soldatarik, libururik. Baina haurrak egunero joaten ziren ikastetxetara etorkizun baten sinbolo bat zelako. Hezkuntza sistema jarraitzea nahi zuten baldin eta belaunaldi batek hezkuntzarako eskubide hori galtzen badu, ikastetxea galtzen badu, hor galdu egiten da nolabait belaunaldi hori, eta guraso horiek, ama horiek bazuten grin bat eta bazen kasu honetan bideratu zuten honela, eta hor guk gure ekarpena egin badezakegu ba egin dezagun, eta duela hamar urte hemen euskal herrian berreskuratu zenutenean berriro euskaldunei eman zenietenean gauza benetan handia lortu zenuten, eta hori benetan kontuan hartu behar da. Eskerrik asko.

Hamarkada honetan gertakizun ugari bizi izan ditugu, jarrerak aldatu egin dira, gatazkaren ondorio batzuk konpontzeko bidean daude, garai berri bat zabaltzen joan da, baina ez soilik Euskal Herrian mundu mailan bakea eraikitzeko konponbide demokratikoak bilatzeko eta giza eskubideak errespetatzeko prozesuen ondorioak nabariak dira baita ere, gatazka armatu eta bortitzei amaiera emateko prozesu ugari eman dira, aspaldiko gatazken biktimei aitortza ekimenak egin dira garai batean izan ez zituzten justizia eskainiz. Ondoren, hamarkada honetan egon diren bake prozesu batzuetan, garapenari buruzko mahai ingurua egingo dugu. Bertan hainbat prozesuen muinean egon diren eta egun dauden pertsonen parte hartuko dute, hurrengo orduan beraiek gogoetak eta ekarpenak gurekin partekatu dituzte. Moderatzaile lanetan Jon Carlin izango dugu mundu zehar izan diren gatazken berri eman digun kazetaria. Beraz, zuena da txanda orain.

John Carlin Moderatzailea

Beno, arratsaldeon atsegin handia da niretzat hemen egotea moderatzaile lanak egiten, elubrikante antzeko bat hain jende ospetsuek ba hitz egin dezaten ateratako irakaspenez eta erronkez ere bai. Aietek eman zituen irakaspeneak duela hamar urte. Euskal Herrian suerte handia izan duzue, ze kalibre honetako jendea izan duzue, jende nabarmena, hemen ondoan ditugun pertsonak izan dituzuelako bakea eraikitzen, eta hemen daude, baina badira ere beste pertsona batzuk ez daudela Kofi Annan modura. Nire inguruan haietako pertsona asko baditugu hemen, zorionez zorionekoak gara horregatik, eta diot zorionekoak zaretela haien energia eta grina eta laguntza izan zenutelako, gainera zorionez ere hemen ditugu gure artean eta nik uste dut onenak direla, pertsonak onenak direla gatazkek ebazteko moduan.

Nik behintzat uste dut beraiek direla galaktikoak, beraiek direla Messi, Ronaldo-ak gatazkek ebazteko, konpontzeko orduan, ba David Beckham modura, gurekin dugu ondoan dagoen Sergio Jaramillo, defentsa ministro ordea Kolonbian, filosofo handia da, Cambridgen ikasi zuen, Sorbonan, Moskun... etab. Bake prozesuaren arkitekto handia Kolonbian.

Eta Jonathan Powell bere ondoan, eskuz esku lan egin zuen Toni Blairrekin. Orain antolakuntza bat darama eskuartean, Intermediate organizazioa. Bere helburua ere bakea lortzea da, eta eskuzabalatasun osoz egiten du mundu osoan funtsezko eginkizuna izan du Erresuma Batuan, Kolonbian.

Teresa Whitfield dugu gurekin liburu bat idatzi du eta End Game for ETA oraindik ez da itzulia izan gaztelaniara, jakin dudanez. END GAME FOR ETA, gaur egun lanean ari da politika eta bitartekaritza zuzendari gisa gai politikoetan eta bake eraikuntzan New Yorkeko Nazio Batuetan, New York Unibertsitateko irakaslea da eta bere ondoan Brian Currin dugu, adiskide zaharra, aspaldikoa, Hegoafrikan lan egin izan duena Layers for Human Rights-en lan egiten du, borrokatu da apartheidaren kontra, salatu du ze injustizia zekarren apartheidia Hegoafrikan lan egin du egia eta erreparazioa eta adiskidetzea bilatzeko; gainera Brian Currin jaunak bake prozesuaren lekukoa izan zen Ipar Irlandan, oso inplikaturik egon zen gainera euskal gatazkaren ebazpidean.

Beno, amaitu dira aurkezpenak eta orain hau guztiaren esparru da Aieteko Konferentzia, duela hamar urte egin zena hemen Donostian, hizketan hasi aurretik aztertzeko zer ikasi genuen eta zer erronka sortu ziren, ez bakarrik Aieten, baita ere aipatzeko nire kideek mundu osoan izan duten, ikasi duten esperentziaz hitz egin aurretik, Powell galdetu nahi nioke ze bera oso nabarmen aritu zen Aieteko Konferentzian, Jonathan partekatuko ahal duzu gurekin gogorapen batzuk, oroipen batzuk, zer gertatu zen egun hartan Aieten? Gainera gogoratu beharra dago pertsona askok espainiar *establishmentean* esaten dute Aieteko Konferentzia antzerki hutsa izan zela. Eskerrik asko John, plazer handia da niretzat.

Jonathan Powell

Eskerrik asko John. Plazer handia da niretzat berriz ere hemen egotea hain jauregi polit honetan eta hain hiri polit honetan, Donostian. Oso ondo gogoratzen naiz egun horretaz, duela 10 urte izan zen, oso egun garrantzitsua niretzat maila pertsonalean eta gainera funtsezko eguna Euskal Herriarentzat, Europarentzat eta Espainiarentzat. Eguzkia egiten zuen, gaur bezala, egun tentso samarra, politiko samarra, noski eta ausardia asko behar zen egun hartan. Kofi Annan izan genuen gure artean eta asko kritikatu zuten Kofi Annan hemen Espainian. Niri gutun batzuk erakutsi zizkidan ikusteko hemengo, Espainiako, pertsona batzuek nola gutun oso itsusia bidali zizkieten, iraingarriak, baina berak bazekien zuzen jokatzeko ari zela. Berak bazekien hona etorrita diferentzia markatu zuela, bakearen aldeko ekarpen bat egin zuela Euskal Herrian, eta baita ere Norvegiako lehen ministro ohia, Gro Harlem, Bertie Ahern, Gerry Adams eta etorri ginen kide guztiok... oso ohore handia izan zen guretzat hain eginkizun garrantzitsua izateagatik txikia izan arren zenbaitetan.

Nik, hala ere, uste dut esaten dutenak Aieteko Konferentzia antzerkia izan zela; nik uste dut oker daudela esaten dutenek ez daukala inolako garrantzirik, oker daude. Ez nago bat ere ez ados esaten duten horrekin, Aieteko Konferentzia negoziazio baten ondorioz izan zen. Urte askoz iraun zuenak Espainiako Gobernuarekin eta ETA, eta hemen dauden eta zeudenak garai batean eta alde egiten dutenek izan zuten funtsezko eginkizuna negoziazio horretan. Aiete izan zen gailurra, esan dezagun hainbeste lanean egon ondoren, nik lanean hasi nintzen Martin Griffiths nigana etorri zelako oraindik ere britaniar Gobernuan zegoenean eta laguntza eskatu zidan, eta Alfredo Rubalcaba ere kontaktuan jarri zen nirekin Espainiako gobernuaren izenean eta uste dut ez zitzaiola behar bezalako meritua eman Rubalcabari. Zergatik? Negoziazioa lurpean egindako zerbait izan zen, isilean eta ezkutuan nik ez nintzen negoziazio guztietan izan, baina beste pertsona asko egon ziren haietan eta ez zaie aitortu egindako lana.

Espero dut egunen batean aitortuko zaiela egindako lana guztia, publikoki eta formalki. Nik uste dut hor bi gauza kontuan hartu behar direla: zer gertatu zen Aieten eta zer gertatu zen ondoren. Lehenik eta behin, oso gogorra izan zen ezartzea guk adostutakoa, ETAREN aldetik oso bizkor erantzun zigiten, baina egia da ez zela bueltatu indarkeriara Aieten ondoren, baina gero gobernu aldaketa etorri zen eta gobernu berria, Alderdi Popularrarena, eta boterean zegoen alderdi berri hori ez zegoen prest negoziatzeko.

Beraz, hau da hegal batekin hegan egiteko bezala, oso zaila da. Nik uste dut prozesuak iraun behar zuena baino gehiago iraun zuela, eta armagabetzea, desarmeak, askoz ere gehiago tardatu zuen,

behar baino gehiago. Huts egite klasikoa izan zen, aldaketa gobernuan eta horrek zaildu egin zuen bakea sortzea eta egitea, zergatik gobernuek nahi dute negoziatu isilpean, baina gero ezarri behar denean adostasun bat, modu irekian lan egin behar da. Hemen funtzionatu zuen lidergo egokia egon zelako Euskal Herrian, baina arrisku oso benetako bat egon zen. Gero, beste zerbait azpimarratu nahi nuke nire esku-hartzean eta hauxe da: burura etorri zitzaidan hona etorri nintzenez, konferentzia baino aste bete lehenago, prentsaurreko bat eman nuen eta nik esan nuen zerbait nahiko simplea, nire ustez, eta pentsatzen nuen ez nuela inolako arazorik ekarriko: gatazkaren amaiera egiten baduzu garrantzitsua da irabazleak eta galtzaileak ez egotea, nahi dugun bakea iraunkorra izatea nahi dugu, beraz garrantzitsua da ez galtzaileak ez garailerik izatea, ze bestela berriro hasiko dira borrokan, eta egia esan larritu egin ninduten Espainiako prentsan hain gauza polemikoa esan nuelako ze, noski, Espainiako gobernuak insistitzen ari zen terroristek galdu egin behar zutela eta egia da, nahiz eta hori gertatu, hamar urte hauetan arrakasta izan zuela, ze ezarri duzue, aplikatu duzue, irabazle eta galtzaile ez egoteko kontzeptu hori, eta horrek izugarri poztu ninduen, ze egia da nik eginkizun oso txikia izan nuela honetan guztian, baina meritu guztia zuena da, belaunaldi oso bat hasi da hemen Euskal Herrian gatazka ezagutu ez duena eta gai direnak aurrera jarraitzeko.

Beraz prozesu hori oraindik ez da amaitu, baketzearen eta adiskidetzearen gaia tratatu behar dira pre-soena eta justiziarena eta konparatzen baldin badut Ipar Irlandarekin ikusten dugu han oraindik ere talde disidente txikiak ditugula indarkeria dugu oraindik ere, eta hemen ez hemen bakea lortu duzue, bake iraunkorra eta espero dut hala iraungo duela, etorkizunean ere

John Carlin Moderatzailea

Esan duzun horren haritik, Jonathan eta eman duzun hemen jaso zenuen erantzun bakar horrekin, hau da, irabazle eta galtzaileak ez egote horrekin, egin dezagun aurrera eta tira diezaiogun hari horri, zabaldu dezagun pixka bat gure ikuspegia. Gustatuko litzaidake planteatzea galdera bat, lauoi gainera, beno ez dakit Sergiok erantzun nahiko ote dion galdera horri, zer galdetu nahi dut zer definitzen du, zer bereizten duen euskal bake prozesua beste prozesu batzuetatik, zergatik da hain berezgarria, zergatik da bakarra euskal prozesua. Beno, ari naiz zuekin hizketan eta zuek hogeinaka gatazketan sartuta egon zarete kontinente askotan, mundu osoan. Brian zurekin hasiko gara, hor eskuinean, hori muturreko eskuinean. Beno bai, Brian, zer bereizten du euskal prozesua beste batzuetatik.

Brian Currin

Interesgarria da. Nire ustez badago faktore bat bereizgarria dena euskal prozesuan eta da Espainiako gobernuak uko egin ziola negoziazioetan parte hartzeari. Beraz, alde bakarreko bake prozesua egon zen hemen, eta badakit hori aipatzen dela akademiako artikuluetan, adituek ere aipatu dutela badakit. Beraz, uste dut hori badela faktore bereizgarri bat, eta esango nuke bake prozesua arrakastatsua izan bada meritu guztia euskaldunena dela, beraiek aurrera egiteko nahia izan zutelako eta horri buruz zerbait esan nahiko nuke bake prozesu hori alde bakarrekoa izateaz ez zitzaiolako egin uko besterik gabe parte hartzeari. Badakigu Kofi Annanek kritika asko jaso zituela parte hartzeagatik eta

hor ni banengoen oso bakarrik, ez ba zen Lokarri esker eta nire lankideei eta euskaldunei esker, nik amore emango nuke, egia delako Espainiako gobernuak bere eskuz zegoen guztia egin zuelako ni hemen egon ez nadin izan. Izan ere, mehatxu gutun bat jaso nuen, mehatxatu egiten ninduten hona etortzen banintzen mehatxatzen zidaten hona etortzen banintzen.

John Carlin

Moderatzailea

Zuk Britainia Handiko Gobernuarekin ere lan egin duzu ezta, eta ez zaitut moztu nahi.

Brian Currin

Bai, badirudi nik bake prozesuetan eskua hartzen dudala gonbidatu egiten nautela horien alde ez daudenek, bitxia kasu honetan, baina azkenean bai izendatu nindutela batzordeko presidentea. Britaniako Gobernua zen Ipar Irlandan lan egiten zuena, eta berak gonbidatu ninduen batzordera, eta zergatik egin zuen errepublikanoek eta unionistek esaten zutelako nazioarteko irudi bat behar zela presidente izateko batzordean eta gainera esan zuten nahi dugu Brian Currin izatea, bi aldeekin lan egin duelako. Testuingurua hori izan zen. Madrilen kasuan ere ba erabaki zuten ni pertsona *non grata* izendatzea eta horrek gauzak eragozten zituen, zaildu egin zituen, eta elkarrizketa humanitariorako zentroak ez zuen nahi nire izena haiekin lotzea bitartekaritza lanetan ari zirelako ETaren eta Espainiako gobernuaren artean. Horregatik ez zuten niregana hurbildu nahi, eta pertsona batek, ez dut izenik aipatuko pertsona batek nirekin hitz egiten jarraitu zuen sekretuan hainbat lekutan, eta horregatik egon ziren kontaktuak. Informazioa jaso nuen eta badakit Madrildik esan ziotela ezin zuela nirekin ikusi, parte hartzen ari zarelako bake prozesu batean eta are gehiago jakinda bake prozesua arrakastatsua izan zela eta gobernuak egin zuela egin ahal zuen guztia nik parte har ez nezan, nik eskerrak eman behar dizkiot Euskal Herriari beti ateak zabaldu dizkidalako eta beti haien babesari izan dugulako hori gabe ezingo genukeelako inolako bake prozesurik egin.

John Carlin

Moderatzailea

Hirugarren alderdi batek beste arazo eta mehatxu jasan behar baditu ekarpen txiki bat egin nahi duenean bakea ekartzeko, baina zaila izaten da ezta Teresa?

Teresa Whitfield

Bai, nire eginkizuna ba desberdina izan zen, laupabost urte egon nintzen ona etortzen, laupabost aldiz urtean liburu bat idazteko, hori zen nire helburu nagusia. Hainbat gatazketan sartuta egon nintzen mundu osoan eta beraz nire eginkizuna pixka bat ezberdina zen, inguruneari esan zaila zen eta kostatu egin zitzaidan ulertzea zergatik izan zen hain zaila ingurune hori ulertzea. Nik uste dut

hau zela desberdina inor ez zelako inoiz ados jartzen arazoaren izaera horretan, eta horrek azaltzen du pixka bat ze berezitasun bizi ziren Aieten. Gobernuak nahi zuen batetik terrorismoa amaitzea, eta beste batzuek nahi zuten euskal gatazka ebaztea eta nahi zuten bake prozesu bat lortu. Eta gero, ondoren, lehen fasearen kolapsoaren ondoren, Genevako akordioa etorri zenean, eta lehen fase hori amaitu zenean, prozesua amaitu zenean 2007 urtean, Gobernuak nahi zuen prozesurik gabeko amaiera bat izan, hau da, alde bakarreko ikuspegi horixe nahi zuten Batasunak bere gain hartuta eta beste pertsona batzuk gain hartuta, eta horrek forma eman zion prozesuari. Hau da, erresistentzia sakon bat egon zen, hau da ideia, bake prozesuaren ideia horri Espainiako Gobernuak kontra egiten ziona eta beste batzuek ere. Beraz, nik hainbat gatazka ezagutzen nituen Hego Ameriketara lan egingo nengoan, diplomatiko espainiarrekin lan egin nuen Kolonbian eta Hego Amerikako beste hainbatetan. Saiatu nintzen hasieran beraiekin harremanetan jartzen, baina ez zituzten nire deiak jasotzen, ez zuten nirekin hitz egin ere nahi. esan nienean euskal gatazkari buruz lan egin nahi nuela, eta asko kostatu zitzaidan ulertzea nola izan zen posible indarkeria horrek horrenbeste irautea, trantsizio demokratikoaren ondoren; zergatik ez zuen arrakasta lehen prozesu horrek 2007an kolapsoa izan zuela, eta oso argi esan zidaten saiatzeko banintzen hori ulertzen, hori zela terrorismoa justifikatzea. Oso argi esan zidaten hori ulertzea zela justifikatzea terrorismoa.

Beraz oso prozesu desberdina izan zen beste prozesuekin konparatuz eta pixka bat azaltzen du ze berezitasun ezagutu genituen Aieten, alde bateko lana izan zen sakona ETaren barruan eta ezker abertzaleak ere egin zuen, baina prozesu ezin zen azalera atera normalean negoziazio batzuek egoten dira, isilean egiten dira, baina gero ateratzen dira, baina hori hemen ez zen izan posible izan, hori izan zen ibilbide ospetsu hori mahai azpian egiten zena sekula ez zena argira atera. COVID-19aren aurretik hasi ginenean zoom-en lanean nire liburuan izena eman nion bakearen eraikuntza birtuala, zergatik ingurunea oso zaila baitzen Jonathan.

Jonathan Powell

Egia da desberdintasunak daudela. Adibidez Ipar Irlandan arrakasta izan genuen prozesuan alderdien artean babesa egon zelako. Tony Blair-ek babesa eskaini zion nahiz eta alderdi ezberdinetakoak izan. Laboristak agintera iritsi zirenean kontserbatzaileak ere haien babesa eman ziguten. Beraz, hor ez zitzaidan gertatu Euskal Herrian bezala, Euskal Herrian hitz bat ikasi nuen gaztelaniaz esaten “crispación” eta hori gertatzen da hemen.

Oposizioko alderdi batek, adibidez Gobernuak ETA esan besterik ez, egiten ez duenean, nahiz eta Gobernuaren zeregina izan bakea lortzea. Kolonbian ere gauza bera ikusi nuen, “crispación” gaztelaniaz, eta hori ikusten dut munduko hainbat lekutan gertatzen dena, eta bada axolagabekeria handia, politikarion zeregina izan beharko litzatekeelako bizitzak salbatzea eta horrek gauzak zaildu egiten ditu.

Sergio Jaramillo

Kolonbiarra naizen aldetik... ba guk ez genuen zerikusirik, gure prozesuak ez zuen zerikusirik hemen gertatu zenarekin, baina askotan hodi komunikanteak daude. Hemen eskuinean dut, ze garai hartan

lehen aldiz etorri zen Jonathan Kolonbiara eta Santos presidenteak eskatu zidan kanal bat irekitzeko, *back channel* bat FARCEkin, eta nik esango nukeen lehenengo gauza da ez dagoela bakerako trantsiziorik berez pasatzen denik, bakerako trantsiziorik ez da espiritu santuaren aginduz egiten. Batzorde batzuk sortu behar dira baina baita ere zubiak egin behar dira, etxe batzuk eraikin batzuk egin behar dira eta hori lan handia da, eta hori egin daiteke negoziazio baten kasuan.

Horrela izan zen Kolonbian, lehenik sekretuan isilpekoan bide orri batekin, baina badira beste modu batzuk hau egiteko, negoziazio formal bat behar izanik gabe, baina hala ere beti dago prozesu bat. Nik uste dut hori oso ondo dagoela aitortzea, eta hori da nik esan nahi dudana bigarren gauza, formaz gain, nola lortzen den fusilak isiltzen direnean. De facto badago trantsizio bat eta, bestela, ez baduzu hori onartzen ezin dituzu bere arazo horiek konpondu eta hori ere gertatzen da Kolonbian. Bi aste barru bost urte beteko ditugu bake akordiotik, gobernu batekin zeinak egin dituen gauza batzuk, bai egin da baina bere jarrera izan da bakerako trantsizioa ukatzea. Gatazkaren ondoko egoera bat de facto dagoela, eta hau da adibidez gauza, segurtasun estrategia bat garatzea egoera berri honetarako izan daiteke urratsetako bat lidergo gehiago izateko gai izatea, gai kritiko batean. Ba biktimen kasuan, adibidez gaitasun bat bizikidetzat hodeiek erakusteko, hau da alde batera utzirik nola gertatu ziren gauzak, de facto badago bakerako trantsizio bat eta kasu egin behar zaio eta ondorioei ere kasu egin behar zaie indarkeria episodio horiei.

John Carlin

Moderatzailea

Niri gauza bat benetan mirezgarria iruditu zitzaidana Kolonbiako bake prozesuan. Izan zen hasi aurretik kontaktuak eta zubiak egin aurretik, zuek ahalegin bat egin zenuten Kolonbiako Gobernuaren beste prozesu batzuetatik ikasteko ez?

Eta orain pixka bat hitz egin nahi dut, bueno gaia proposatu nahi dut, tipikoki gertatzen dena eta hemen gertatzen dena, bueno ni kazetaria naiz Euskal Herriko bake prozesuaz idatzi dut eta modu nahiko kritikoa idatzi dut, Brian bezalako eta Jonathan bezalako jendea aipatu baintuen eta esan nituen gauza batzuek izorratu zuten *establishment* politikoa, baina beti esaten zuten zerbait eta beste leku askotan esaten dute: “bueno, baina beste herrialdeko esperientzia bakarra eta diferentea da, eta ez dauka aurrekaririk giza historian”.

Hitz egin dezagun, beraz, honi buruz eta behar bada has zaitez zuk gai honekin Sergio. Zein da zuk egin zenuen egitearen balioa, hau da Irlandan gertatzen zena ulertzea, Hegoafrikan gertatzen zena ulertzea eta nola erantzuten diegu esaten dutenei ez dagoela ezer komunik dena bakarra dela etadela.

Sergio Jaramillo

Bai oso labur. Gaur goizean dagoeneko hitz egin dugu eta kafea hartzen ari nintzela esan diot txantxa bat asmatu berri dut, badaukate zerbait komunean bake prozesu guztiak eta gatazkak guztiak eta han

denek pentsatzen dutenak bakanak direla, bereziak direla. Ez, ez, hemen ez, gauzak ez direlako horrela, eta nik orain aukera izan dut Bruselatik hainbat lekutan laguntzeko eta hori ikusi dut kasu guztietan eta, horregatik, lehenik eta behin kontuan izan behar ditugu baldintzak eta egoera ezberdinak daudela leku guztietan, noski, ez dira berdinak gerran ere ez.

Uste dut, hain zuzen ere, bikaintasuna horretan ikusten dela ulertuta testuinguru zehatz horretan, zeintzuk diren beharrak, bake prozesu batean eta gatazka batean ere, baina egoera estrategikoa oso antzekoa da eta hor ere ba bermeak eta egiaztapenak ere aplikagarriak dira. Jakin behar dugu horiek tresnak daudela jakiten eta ongi egokitzen errealitatera. Santos presidentek Kolonbian eta beste aditu batzuek talde bat sortu genuen hain zuzen ere ikuspegi hori ekartzeko gatazkara eta parte hartzen zutenak ez ziren beti Jonathan bezala, beti gobernuaren partetik parte hartu zutenak, baizik eta hainbat ikuspegikoak eta uste dut honek azken batean apaltasun bat ekartzen dizula, ulertu behar dugulako gatazka bat ebaztea zaila dela eta horregatik garrantzitsua dela dagoeneko egin dutenengandik ikastea.

John Carlin Moderatzailea

Bai, Jonathan, apaltasun hori ezta? Sergiok aipatu duena ez da oso ohikoa ezta?

Jonathan Powell

Ez, ez da oso ohikoa apaltasun hori, gatazka bat dagoen lekura joaten zaren bakoitzean beti aurkitzen duzu hori. Bakoitzak uste du bere gatazka dela bakarra eta oso zaila dela gero ere beste zerbait gertatzen da, gobernuan elkartzen ginen bakoitzean talde terrorista batekin ba ez dugu sekula ikasten aurretik gertatu denaz. Gobernuan baldin badugu talde terrorista bat herrialdean, saiatzen gara presio militarra, presio politikoa erabiltzen eta gero pertsona asko hil ondoren ulertzen dugu beharrezkoa dela oreka bat izatea presio poliziaren artean eta irteera politikoaren artean.

Irlandan hori saiatu ginen egiten lau alditan eta “*sunning day*” 1992, 1993an. Baita ere anglo-irlandarra 1995ean eta baita Downing Streeteko adierazpena ere, porrota ezagutu zuena eta Ostiral Santuko akordioan ikasi egin zen aurreko porrota guztietatik. Azkenean laugarrenean ikasi egin genuen, James Malen izan zen SDLP-ko liderra deitu zuen eta esan zuen ostiral santuko akordio izan zela “*sunning day*” oso poliki ikasten dutenentzat, ze oinarrian zen gauza bera “*sunning day*”ren gauza berbera, oso antzekoak ziren bere akordioak, baina lehen akordioaren bertsio hobetu bat. Beraz hainbat metodo erabili behar ditugu bakera iristeko, hitz egin behar dugu, elkar hitz egin eta baita ere presio politikoa eta poliziala ere bai.

Teresa Whitfield

Zer dute komunean bake prozesuek, ze elementu dituzte komunean? Gauza pare bat dituzte guztiak eta da Jonathanek aipatu duena, presioa segurtasunaren aldetik eta baita ere presio politikoa eta

presio poliziala kasu batzuetan, eta elkarrizketa. Ezin duzu gatazka bat konpondu bakarrik bide militarretik edo bide polizialeatik, elkarrizketa beharrezkoa da, hitz egin behar da, eta gizarteak mobilizatu behar da eta hori ez da aipatu. Lokarrik egin zuen lana funtsezkoa izan zen.

Gizarteak bakea eska dezan lortu behar da herritar guztiak mundu osoan hori nahi dutelako, haien seme-alabentzako segurtasuna, osasungintza, hezkuntza,... denok nahi ditugu gauza berak, gizakiak gara, nahiz eta Afganistanen egon, Sirian egon edo Donostian egon. Denok gauza berberak nahi ditugu, gizakiak garelako; beraz, hori komunean dago ere bake prozesuetan eta hemen ahalegin konzistente bat egin zuen ezker abertzaleak eta baita ere Gobernuak, bai egon zen ikasteko borondate bat jakiteko zer egin zen beste herrialde batzuetan eta badago lerro nahiko zuzen bat Hego Afrikan, Ipar Irlandan eta hemen, lotuta daude eta ikasbideak atera dira prozesu horietatik elkar ulertze eta laguntze bat ere egon da. Konfiantza emateko lan bat egin da ere bizitzan trantsizio hori egiteko, oinarrizko trantsizio bat egin behar delako eta trantsizio hori lotuta dago politikagintza normalizatu batekin.

Gatazka hor dago, baina ez da mantentzen pistola bat edo bonba erabiliz baizik eta jardun politikoa- ren bidez, hau da, gatazka ez da desagertzen, eraldatu egiten da bere itxura aldatu egiten da. Beraz, hor konfiantza landu egin zen eta hori uste dut ere komunean ere dutela prozesu guztiak. Biktimak giza eskubideak erdian jarri behar dira eta hori ez da horrela izan hainbat urteetan. Hemen euskal Herrian urte askotan ez zen aitortzen biktimen sufrimendua eta hori beti izan da erronka bat, giza eskubideekin lotutakoa beti da erronka bat prozesuetan urraketa horiei erreparatu behar diegu gatazka lantzeaz gain.

John Carlin Moderatzailea

Brian, zu Hegoafrikatik zatoz eta Hegoafrikan betidanik nolabaiteko txantilo bat eskaini zuten, ezta? Guda hotzaren ostean gatazkak ebazteko eta horregatik askok pentsatu zuten zuk laguntzeko aukera edukiko zenuela Ipar Irlandan, Israelen, hemen beraz kontatu pixka bat Hego Afrikan nola zeuden gauzak, nola izan zen zure bizipena lehenengo gatazka hartan. Gerra hotzaren osteko lehenengo gatazka hartan, ebatzi zen lehenengo gatazka hartan, lagundu zituen edo zure ikuspegia nolabait baldintzatu zuen. Zer da, abantaila edo muga?

Brian Currin

Beno, komentario txiki bat egin nahi dut bake prozesu honen inguruan ea bakarrak diren edo ez, Martinek esan du bitartekari gisa guk ematen duguna edo eskaintzen duguna esperientzia dela, gure esperientzia, gure ezagutza, guk ikasi ditugun gauzak lan egin ondoren hainbat agertoki desberdinetan eta hori da ematen duguna bitartekariak garen aldetik, baina nire iritzia da prozesuak, nik ezagutu ditudan prozesu guztiak bakarrak izan direla, ze baldintzak desberdinak izan dira.

Nik uste dut badagoela batek egin dezakeen akats handien, beno nik beti ahalegintzen naiz bake prozesuaren natura, izaera bakarra aitortzen ze esaten badiezu ez, ez dela bakarra ba hori da, ez dakit

nongoaren antzekoa zerbait gertatzen da eta aretotik botako zaituzte. Beraz, bitartekari gisa konfiantza sortu behar duzu beste aldeekin eta beraz aitortu behar duzu prozesua duen izaera bakar hori, ze berez bakarra da eta estrategia txarra izango litzateke ez aitortzea. Beraz, zer egiten dugu?, kasu horretan ikertu egiten dugu, egoera aztertzen dugu sartu aurretik eta beti errealtateak oso desberdinak izaten dira, hori ikusten da ba gatazka batekin lanean hasten garenean. Hegoafrikan ez nintzen bitartekari izan fasilizatzaile izan baizik eta protagonistetako bat izan nintzen. Ni erakunde giza eskubideen aldeko erakunde baten kide nintzen eta askapena bilatzen zuen. Hegoafrikan borrokan ari ziren gobernuaren kontra egunero gainera eta nik ere parte hartu nuen, eta lan egin nuen segurtasun indarren kide batekin estatu sekretu batzuk argira atera nahi izan zituen, eta pertsona hark hitz egin nahi zuen programa sekretu horri buruz, poliziak egindakoa hainbat pertsona erail nahi zituztenean eta hark salatu nahi izan zuen eta nik ez nintzen bake prozesu horren parte izan, baizik eta protagonista izan nintzen arazo guztian. Bai eta nazioartean lanera ninduen izan zen zelan egin genuen preso politikoekin 1991an eta 1992 urteetan Leclercck bi lege onartu zituen, eta lege horiek esaten zuten presoek kalte ordenek eska zitzaketela eta nik zuzenean parte hartu nuen prozesu horretan, eta haien ordezkaria izan nintzen prozesu askotan, eta ondorioz haien askapenak ekarri zutenak presoek askapenak ekarri zuten prozesu hori guztiek eta horren ondoren, Mandelaren gobernu botere hartu zuenenean, eskatu zidaten prozesu baten liderra izatea.

Eta prozesu horretan, milaka presoek laguntzen ahalegindu ziren askapena sortu lortu ez zutenak eta hori ere gertatu zen Ipar Irlandan. Nik uste dut arrakasta izan genuela mandatu hori egikaritzeko orduan hau da ostiral santuko akordioa ezartzeko orduan presoak askatzeko eta horrek ekarri ninduen ona azken batean, eta pentsatu ezker sakon pentsatuz gero, harrigarria ere bada, ze gaur egun asko hitz egiten da presoek auziaz beraz 2004 nirekin hitzegitera etorri zirenak horietako bat hemen dago orain areto honetan bertan eta oso xaloak izan ziren ni bezala inuzenteak izan ziren, ze pentsatu zuten hemen bertan lan egitea nahikoa zela eta kito, Espainiako gobernuak egingo zuela britaniarrak egin zuen gauza bera presoak askatzeko orduan eta beno ni inplikatu egin nintzen prozesu horretan eta beste prozesu askotan ere arrakasta handiago izan zutenak zorionez.

John Carlin Moderatzailea

Bai oso ondo. Eskerrik asko eta galdera bat ere landu beharko genuke eta haxe dela uste dut. Shakespeareen elea erregea aipatuko dut, uzten badidazue, ze hor badago aipu bat erregearen ba zoragarria iruditzen zait, esaten duena momentu batean oso sinplea baita Lear erregeak esaten duenean, heldutasuna guztia edo dena da heldutasuna dena da, aipu erraza, sinplea da baina garrantzitsua, hau da heldutasun puntua metafora oso egokia da. Hau da, fruta heltzen denean, ez pasatzen denean edo berde dagoenean, baizik eta hori da puntua eta nik uste dut kontzeptu hori funtsezkoa dela guztiontzat. Gure bizitza pertsonaletan, politikan ere bai prozesu hauetan guztietan heldutasuna garrantzitsua dela eta hemen mahai gainean jarri nahi dudana da heldutasunaren kontua, heldutasun puntua hori protagonisten heldutasun puntua. Alde guztien protagonisten puntua, heldutasun puntua prozesuetan eta giza faktoreak duen garrantzia prozesuek arrakasta izan dezaten, prozesuek arrakasta izan dezaten. Jonathan aurrera.

Jonathan Powell

Bai teoria hori garrantzitsua da, bake prozesuak landu behar dira heldutasun puntu batera iristen direnean ezta?, eta hori nola dakizu? Ba fruta bat ukitu dezakezu, baina bake prozesu bat ez. Beraz, interesgarria bai, baina erabilgarria ez, gerora bakarrik jakin dezakezulako. Jendeak ez zekien heldu zegoen hala ez, prozesurako jendea prest zegoen bai ala ez.

Interesgarriena da ikustea nola arrakasta egon den prozesuetan bi gauza dauden, batetik adibidez Libiara joan nintzenean ikusi genuen egoera zegoela ez aurrera ez atzera puntu batean, estankatuta zegoen, eta bi aldeek sumatzen zuten hori. Irlandan gertatu zen ere eta britaniar armadak ikusi zuen IRA deuseztatzeko aukera zuela, baina bazekien ezin ziotela menperatu bide militarretik eta orduan ulertu zuten prozesua horrela jarraituko zuela ete IRAn ere 80ko hamarkadan, uste dut ulertu zutela ez zituztela garaituko, baina ez zirela garaile izango ere ez. Beraz nolabait hor eten da, estankatuta zegoen prozesua, eta horrek bideratu zuen beste urrats batzuk ematea, bake prozesu batean eta hor ere lidergoaz ere hitz egin behar dugu.

Lehen esan du Brian-ek ez genuke bakerik edukiko Leclercik gabe edo Mandelarik gabe ezta?, eta hor ere gakoak izan ziren politikariak McGuinnes eta Gerry Adams garrantzitsuak izan ziren Irlandaren kasuan, bizitza ia oso eskaini zuten lan hori egiten, eta beraien bizitzak arriskua zituzten bakearen alde. Beraz, hor jendea busti egiten da eta konplikatu egiten da bakearen alde, beraz, horrelako etenaldiak gertatzen direnean aurrerapausoak eman behar dira eta horrek ekartzen du arrakasta bake prozesu batera.

John Carlin Moderatzailea

Bai ulertzen dut ezta? zaila dela heldutasun puntu hori ezta?, baina nik ezagutu ditudan bake prozesu horietan urrunetik baldin bada ere askotan liderrak zer esan handia dutela arrakastatsua izateko ala ez, adibidez oposizioan baldin badaude eta indarkeria erabiltzen ari badira helburua lortzeko.

Jonathan Powell

Agian adinarekin lotuta egon daiteke heldutasun puntu hori Adamsen eta McGuinnesen kasuan antzeko zerbait gertatu zen ezta McGuinnes oso gazte sartu zela mugimendu iraultzailean, baina adinean aurrera egin ahala ikusi zuen prozesua betierekotuko zela ez bazuten zerbait egiten, FARCeekin ere gauza bera gertatzen da: 20, 30 urte betetzen dituztenean kideek haren ikuspegia aldatu egiten dute adinean aurrera egin ahala grin hori galdu egitea bera dago lotuta adinarekin.

Sergio Jaramillo

Ni ados nago Jonathanekin. Nik uste dut heldutasun kontzeptua erabilgarria dela, baina ez dago ados Jonathanekin esaten duenean *selfmade* kontzeptu hori. Ba nik uste dut Kolonbian ez zela hori gerta-

tu. Nik uste dut modu erabilgarriago bat dagoela gai hauetan pentsatzeko, hau da, heldutasuna hartu behar da kontuan noski, baina baldintza batzuk egon behar dira, ze kontrakoa baldin bada guztia ba nahiz eta eraikuntza oso ona izan, ez du funtzionatuko. Afganistanen horrela gertatu zen, baina nik uste dut erabilgarriago dela aukerengan pentsatzea, aukera leihoetan pentsatzea, identifikatzea errealitatea norabide batean doala eta zuk harrapatu egin behar duzula eta egituratu egin behar duzula eta bideratu egin behar duzula errealitatera, ura bideratzen den bezala norabide jakin batean.

Eta horrek lidergo asko behar du eta nik uste dut hori egin zuela Santos presidenteak Kolonbian eta ez duela aitortzen nahikoa izan, hau da, ez du berehalako aitortze izango, ze jendeak esango du “bueno zergatik ari zara hori egiten egoera jakin batzuetan non herritarren parte batentzat ez zela beharrezkoa ikusten negoziazio egitea?”.

Beraz leiho ikusi zuen eta hartu egin zuen ze leihoak ireki eta itxi egiten dira, eta Kolonbiaren kasuan zer egin genuen ba 2010-2013 artean negoziazio nolabait lotu zenean inguruko herrialdeen laguntzaz, diplomatikoen laguntzaz, ez zen posible izango 5 urte geroago, ze baldintzek ez zuten ahal utziko, beraz, uste dut hemen baldintza edo adierazpen garrantzitsuena da gaitasuna zegoela aukera zegoela eta identifikatzeko aukera leiho horiek hartu eta berehala harrapatzea.

John Carlin Moderatzailea

Bai noski, beno, gogoratu Arafati buruz esan zen esaldia: sekulan ez zuela aukera galtzeko aukera galtzen. Jonathan aurrera.

Jonathan Powell

Bai ados nago, ados nago aukeraren kontzeptu horrekin. Santos presidenteak esaten zuen aukera zegoela erasateko teknologia zuelako oihanean eta horrek lagundu egin zion ere beharrezkoak ziren baldintzak sortzen, baina tira Kolonbiako gatazka Sergio Jaramillorena da.

Sergio Jaramillo

Ez, ez, ez puntu hori oso garrantzitsua da. Kolonbiari dagokionez termino politikoetan, elektoraletan ezta? horrela hitz egin behar badugu aukerarik errazena 2010 zen geunden bezala jarraitzea, eta hori gertatzen da Israelen eta horrelako herrialdetan ezta? Segurtasunean inbertitzen da eta hor zirkulu zitalak sortzen dira, pizgarriak gutxiago dira bake prozesuaren zailtasunari aurre egiteko segurtasun alde egiten bada. Beraz esango genuen goazen, baina goazen askoz hobeto, eta askoz hobeto aterako gara itxiera ematen badiogu bake akordio batekin

John Carlin

Moderatzailea

Hori da Martinek lehen esaten zuena, barkatu hemen utziko dut, ez baina segi, segi, esan nahi duzuna.

Jonathan Powell

Bai bizkor, bizkor esango dut. Martinek esan du errazagoa dela bakeaz egitea, egitea baino, hau da, ausardia behar dela horretarako eta horregatik ekarri ditut ona bere hitzak.

Teresa Whitfield

Bai, esan behar dut hemengo egoeraz pentsatu genuenean elkarrizketaren estigmatizazioa istorio luze bat pasa ondoren, trantsizioaren ondoren eta trantsizioaren aurretik ere bai. Elkarrizketek porrota ezagutu zuten, bata bestearen atzetik, gobernu bat bata bestearen atzetik, denek esaten zuten ez zutela negoziatuko, baina hor bazegoen negoziazio istorio luze bat, elkarrizketa frakasatu batzuk.

Gero iritsi zen estigmatizazio batera, terrorismoa estigmatizatzea. Beraz aitortu behar da ze lidergo eta ze ausardi izan zen 2004 urtean. Noski elkarrizketa horiek Otegi eta Egiguren artean aitortuak izan behar dute, bere lidergoa onartu beharra dago eta bere ausardia onartu beharra dago, eta baita ere ausardia ETaren aldetik ere bai. Beraz, esaten dudan bezala niri iruditzen zait hau azpimarratzeko zerbait dela eta gainera zer lidergo orokor egon zen Rubalcabaren lidergoa, hain zuzen ere, eta uste dut Kolonbian ere hala izan dela. Gogoratzen naiz Santosen lidergoa, gogoratzen naiz Oslon izan genuen elkarrizketa bat FARCeekin hitz egiteko eta errespetuz hitz egin zuen, hau da FARCeekin errespetuaz eta Espainiako testuinguruan irudiezina da hori guztia gertatzea, baina ausardia hori, esatea hau egingo dut honi utziko diot eta aurka egingo diot datorren kritikari guztiari, euren jasa guziari. Eta atzera eginez dinamika militarraz hitzegiteko orduan nik uste dut ez gaudela bakarrik egoera horretan. Nik uste dut aitortu egiten zela FARCa ezin zirela garaituak bakarrik bide militarrekin. Beraz, hor egoera horretan zeuden, hau da, konturatu ziren hori ez zela bidea eta benetan hasi beharra zegoela prozesu bat.

Brian Currin

Bai, nire ustez hemen ziurrenik falta zena ez zegoen lotuta etenaldi edo estankamendu horrekin. Espainiaren aldetik esaten zuten denborarekin lortuko zutela eta garaitzea eta suntsitzea. Hori zen beraien kontakizuna eta testuinguru hori kontuan izanda ere uste dut hitz egin behar dugula Espainiako lider politikoei buruz, sozialistei buruz, popularrei buruz eta kontuan izan behar dugu zer nolako hautesleak daude. Garai hartan galdu egiten ziren botoak tratuak egiten baziren eta irabazi egiten ziren terrorismoaren aurka borrokatzen jarraitzen bazen. Nik behintzat mezu hori jaso nuen: zergatik eman arnasa erakunde bati, mugimendu bati, dagoeneko bereak egin badu ezta?, eta bake prozesuaren amaieran, Aieteren ostean, hori zen egiten zen kontakizuna. Esaten zen bakea ez du honek

ekarri, ez da honegatik iritsi bakea, iritsi da garaitu dugulako eta garaitu dugulako esango nuke hori zela jarrera, eta uste dut ez zeudela prest armagabetzerako, gobernu ez zegoen prest beraiek jaso, armagabetze bat gertatzeko baldin eta beraiek ez bazituzten arma horiek jasotzen eta armagabetze hura egin zen azkenean Frantziako hegoaldean ezta?

Eta hurrengo egunean hedabideetan irakurtzen nituen artikulua eta txundigarria iruditu zitzaidan ikustea zer esaten zuten hemen Euskal Herrian eta zer esaten zuten Madrilen. Hemen bazen ospakizun bat ezta?

Esaten zuten “armak entregatu dituzte” eta Madrilen esaten zuten “bai, baina seguru gehiago dituztela, ez dela benetako armagabetze bat”. Ikuspegiak oso ezberdinak ziren bi herrialde desberdin ziruditen ezta?, benetan bazen horrela ezta? behin batean behintzat.

John Carlin Moderatzailea

Eta denok gaude ados horretan. Uste dut bake prozesua bikaina izan dela. Hamar urte geroago oraindik ere bakea dirau eta badaude oinarrizko arau batzuk bake prozesuetan aplikatu ohi direnak hemen aplikatzen ez direnak, ezta? Hori ere horrela da eta prozesua zentzu horretan esan dugu alde bakarrekoa izan zela eta hori paradoxa bat iruditzen zait, eta minutu batzuk barru hitz egingo dugu honi buruz, baina badago beste galdera zabalago bat eta da “zein desberdintasun dago bake prozesuak aztertzen ditugunean?”. Desberdinak dira sistema demokratikoetan gertatzen direnean edo sistema autoritarioetan gertatzen direnean? Kolonia, Ipar Irlanda, Euskal Herria, Etiopia edo bestelako herrialdeetan gertatzen direna desberdinak dira? Sistemaren arabera hitz egin dezakegu Hegoafrikan ere? Adibidez ez zen benetako demokrazia bat ezta.

Brian Currin

Beno, Hegoafrikaz hitz egin dezagun. Hegoafrika ez zen demokrazia multipartita bat. Herritaren % 10 bozkatzera joaten zen eta gainerakoak ez. Beraz guztiz zilegia ez zen gobernu bat zegoen boterean eta horrek badu abantaila bat bake prozesu batean, Ipar Irlandarekin konparatuz, esaterako, eta ilustratu egingo dut unetxo batzuk barru, honen abantaila zen gehiengo bat zenez gutxiengo baten kontra aldaketa etorriko zen boterean, bai ala bai, ezinbestean, eta gobernu faxista ez demokratiko bat utzi alde batera utzi eta demokratikoki hautatuko bat etorri zen.

Eta horri esker gobernu horrek egin zituen ba oraindik ere britaniar gobernuak oraindik ezin du hori egin, ze azkenean bake prozesu luze baten ondorioa ere bada. Har dezagun egiaren batzordearen kasua; oraindik ere kontrako ezta irititik joaten zaigu duen inplikazioengatik ze esango luke poliziak, soldaduak, militar britaniarrak onartzea egindako sarraskiak..., baina Hegoafrikan gobernu berri bat izan genuen, ez zuten inongo mandaturik eta segurtasun indarrak kontrolatzen zituzten Hegoafrikan. Beraz beste modu batetan egiten zituzten gauzak, askatasunarekin bandera bat igo zen eta bestea jaitsi egin zen eta hor beste herrialde bat sortu zen azkenean, eta nik uste dut horrek aukera asko ireki zituela.

John Carlin

Moderatzailea

Beraz, uste dut demokrazia ez dela osasuntsua bake prozesuetan, hori esan nahi duzu Currin?

Teresa Whitfield

Beno, nik uste dut funtsezko aldea dagoela herrialde batzuetan, non aukera dagoen bere erreformak egiteko badago aukera bat gatazka bideratzeko eta hori kontuan hartu behar da egoera batzuetan eta beste batzuetan ez. Dena den aintzat hartu behar da eta horregatik ikus ditzakegu ezberdintasuna eta berdintasunak prozesuen artean; badago ere erronka handi bat gatazka asimetriko hauetan bere burua demokrazia aurreratutzat jotzen duen gobernuaren artean eta bere burua erakunde terroristatzat hartzen duen erakunde baten artean.

Zein da erronka horrelako kasu asimetrikoetan? Gobernu demokratikoa ahalegindu behar da bere burua terroristatzat jotzen duen edo terroristatzat jotzen den erakunde batekin hitz egiteko. Gatazka hori ez da gatazka zabalagoak bezalakoak, desberdinak dira, eta gatazka handiago horietan bestelako trantsizioak gertatzen dira. Martinek adibidez hor lan egiten du ikuspegi humanitariotik eta prozesuak oso ezberdinak direla esango nuke.

Jonathan Powell

Niri iruditzen zait oso zaila dela gobernu demokratikoa jendea hiltzen ari den terroristekin esertzea eta hitz egiten hastea. Gogoratzen naiz John Meyerrek britaniar parlamentuan nola esan zuen “seku-lan ez dut hitz egingo Gerry Adamsekin, ze nazka emango dit hitz egiten badut eta eskerrak Martin McGuinness ere hor zegoen eta eskerrak, ze bestela ez zegoen bake prozesurik”. Oso zaila da gobernu batek hori dena onartzea. Batzuetan esaten dute ez dutela egingo, ze biktimak kexatu egingo direlako. Badaude biktima organizazio ezberdinak herrialdeetan. Britania Handian, esaterako, dugu Collin Perry eta bere semea erail egin zuten Warringtonen eraso terrorista batean eta hor larunbat goiz batean gertatu zen, eta norbaitek, bere semea hiltzen saiatzen ari ziren bitartean, norbaitek pertsona horri esango balio britaniar gobernuak IRArekin hizketan ari zela ba eskandalagarria izango zen, baina hilabete batzuk geroago desberdin erantzungo zuen ze esango zuen “bueno nire semearen heriotzak izan du bere helburua”.

John Carlin

Moderatzailea

Hitz egin duzu Santos presidentetzaz lehen, eta ausardia hori izan zuen eta ez ausardia fisikoa, baizik eta ausardia elektoral-politiko bati buruz ari gara ez?, eta gero erreferenduma ere etorriko zen, bai noski. Gustatuko litzaidake hori komentatzea.

Sergio Jaramillo

Bada gai kritikoa ez? eta da oso zaila dela demokrazia batean bake prozesu bat egitea, aipatu diren arrazoiengatik baina baita ere demokrazia esaten delako “aizu eta zergatik hau iruditzen zaie indarkeria bat erabilita eztabaida bat sortu behar dela eta elkarrizketa bat sortu behar dela hemen demokrazia badago?”.

Hor kontraesan bat sortzen da eta esango nuke ere erantzun bat emango duela indarkeria horren aurrean, eta hor askotan gertatzen direla eta hori, hori tragatzea ere zaila da ezta? Hau gertatzen ari da eta demokrazia gara ezta? Baina uste dut demokrazia batean zaila dela onartzea gatazka bat badela bere baitan duen gaixotasun moduko bat eta konpondu egin behar duela bada minbizi bat izatea eta da minbizia duzula ez onartzea bezala. Eta Euskadiren kasuan eta Espainiaren kasuan nik esango nuke hemen demokraziak irabazi zuela eta nagusitu zela argudioak bide politikoak erabiltzearen aldekoa eta esango nuke Espainiako demokraziak horixe duela harrotasun puntu handi bezala, trantsizioan handi batera gertatu ondoren Francok erabiltzen zuen jauregi batean gaude gaur hemen, gauza hauei buruz hitz egiten ezta?, eta zentzu horretan hor lorpen handi bat dago guk Espainiaren legatu hori jaso genuen, izugarria da indarkeria politikoa, eta bake prozesuan esan genuen goazen dena eztabaidatzera, baina bide politikoa erabilita, ez armak erabilita, eta hori da Kolonbiaren borroka etengabe hori ezta?, helburua delako lasaitasun handiagok hitz egin ahal izatea horretaz guztiaz, hau da eta hauek gertatu zirenak, eta horrela izan zen ezta?

John Carlin Moderatzailea

Bai baina hemen lortutako harrotasuna, adibidez, ez da ikusten Espainiako leku askotan ez? eta orain Kolonbiako Gobernuan badago harrotasun puntu bat edo ez?

Sergio Jaramillo

Bai, orain beste alderdiaz hitz egingo dugu ez? Demokrazian bake prozesuak egitea ez da erraza, eztabaida politikoaren erdigunean jartzen direlako gai horiek. Agenda politikoaren erdigunean eta esango dut inoiz ez dudan esan zerbait ez dut zalantzarik, nik uste Alvaro Uribek presidenteak oso ongi ulertu zuela bere misio historikoa: bakea lortzea FARCEkin, baina bera bere proiektu politikoan harrapatuta zegoen eta horregatik horren aurka egin behar zuen, eta horrekin jarraitu zuen ondorio betetan izugarriekin, bakearen eraikuntzaren aurka ondorio batzuk sortuz. Eta uste dut hori demokrazietan ikusten dela eta askotan esan nuen demokrazietan garaitzen duena, normalean, bake prozesuetan bada boterea izateko nahi hori eta ez gatazka konpondu nahi izate hori. Ez da guztion onerako lan egiten horrelako demokrazietan, zaila da, hori horrela denean gertatutakoaren ondorioak jorratzea.

John Carlin

Moderatzailea

Bai, luze hitz egin dezakegu horretaz, ezta? Ez dakit zenbat denbora dugun. Proposatzen dizut azkenengo puntuak jorratzea eta hor amaitzea. Hemen sartzen gara biktimen auzian. Denek aipatu dutena momenturen batean. Beraz hitz egin ezazue egoki iruditzen zaizuen moduan, baina beti ere nahi nahiz iraganeko borrokaz, hau da narratibatik abiatuta, hemen Espainian oraindik ere nahiz eta batzuk horrela ez pentsatu, oraindik hainbeste urteren ondoren ez dago errelato bat, errelato homogeno, hitzartu bat gerra zibilean gertatu zenaren inguruan.

Beraz, gai berriagoen inguruan ari garela “talk to me”, hitz egin, aipaituidazue zer garrantzi duen duten errelato partekatu horrek eta ze arazo egon daitekeen testuinguru horiek, errelatoak, partekatuak ez direnean, biktimen kasuan esan nahi dut, eta zuen zentralitateak, bake prozesuetatik. Jonathan, aurrera.

Jonathan Powell

Bai, beno, oraindik bizi bizirik dagoen gaia da Ipar Irlandan. Tony Blair gobernutik alde egin aurretik batzorde bat sortu zuen eta Robin Insec lideratua, Denis Rafflirekin ere bai, adostasuna sortzeko, baina ezin izan zuten sortu ze errepublikanoek eta unionistek, ez batzuk ez besteek, ez zuten egilea esan nahi gertatu zenaren guztiaren egia esan nahi eta hor nolabaiteko gelditze bat egon zen, estankamentu bat egon zen eta Gerry Adams atxilo hartu zuten hiru egunetan eta soldaduak, hemezortzi urteko soldaduak, laurogei urteko soldaduak barkatu, auzitegietan bukatu zutenak. Beraz, jendeak ez zegoen pozik, ezin zen aurre egin, ze biktimek jakin nahi dute zer gertatzen den eta nolabait hori dena landu egin behar da bake prozesua gelditu gabe.

Britaniar Gobernuak pentsatu zuen aukera edo ideia ona izango zela barkatzea soldaduei, barkatzea, amnistia behin betiko eginez. Nik uste dut intentzioa ona zegoela, ze aurkitu behar da beti modu bat egia iristeko eta ez du zertan izan auzitegien bidez ze ez da beti soluzio asebetegarri bat izango mundu guztiarentzat, baina ezin zieten biktimei kontsultatu biktimen elkarteei eta abar eta abar eta azkenean nik uste dut Irlandan, Ipar Irlandan forma bat aurkitu behar dela hori denak kudeatzeko. Hegoafrikan modu jakin batean egin zen. Guk ikusten dugu oraindik ere ez dugula aurkitu modu bat biktimen auzia tratatzeko mundu guztia asetzeko moduan eta adiskidetza ekarriko duena. Hori da guri beharbada falta zaigun pieza Ipar Irlandan.

Brian Currin

Nire ustez hori tragedia bat da, biktimak erabili egiten direlako ia ia. Ikusten dugu alderdiek erabili egiten dituztela biktimak eta hori gauza izugarria iruditzen zait eta biktimen gaia heldu ez izana larria da eta hori ez bada lantzen, horrek arazoak sortuko ditu oraindik ere. Biktimei buruz hitz egiten dugunean eta haien egiaz hori kontakizunarekin lotuta dago. Askok hitz egiten da kontakizunaz ezta? eta pentsatzen dugunean zer egin daiteken hori zaila da, kontakizunak era askotakoak izan ahal direlako oso ezberdinak dira elkarren artean eta horregatik da hain zaila, ez dagoelako adostasun bat, akordio bat

esateko non hasten gara historia kontatzen: 50ko hamarkadan, 60ko hamarkadan, 80ko hamarkadan, noiz hasten da historia? Non hasten gara gauzak kontatzen, nortzuk ziren biktimak?... eta hor, noski, ba eztabaidak sortzen dira aldeen artean. Beraz, nire ustez, bi aldeek eseri egin behar dira mahai baten inguruan eta adostasun puntu batzuk lortu behar dituzte biktimen inguruan, moduak lortu, bilatu behar dira eztabaida hori hartzeko eta dagoen eskenatoki publiko horretatik ateratzeko.

Ez dakit, agian bi pertsona, bi irudi hartu eta arduratu daitezela gaia ikertzeaz. Adibidez Ipar Irlandan bi pertsona Robert Ins eta Bradley arduratu ziren sentsibilitate desberdinekoak ziren, tradizio eta ibilbide ezberdinetakoak eta presidenteak izan ziren ikerketa batzordean eta agian horrelako zerbait egingo bagenu, agian, lortu genezake akordio, bat jarrera komun argi izateko zeintzuk diren biktimak agian hemen Espainian 50 urte beharko dituzue pertsona horiek bilatzeko, baina garrantzitsua da eztabaida hori testuinguru horretatik, behintzat ahal bada atera.

Beste gauza bat Ipar Irlandari buruz. Batzorde bat egon zen preso politikoak kaleratzeko eta nik lan egin nuen batzorde hartan 1989tik 2012raino. Prozesua luzea izan zen eta zergatik luzatu zen hainbeste? Preso batzuei baldintzapeneko askatasuna eman zitzaielako eta gero borroka batean zirelako pub batean, eta hori Ipar Irlanda gertatu zenez, ba berriro espetxeratu zituzten dena den gehienek bizpahiru urte behar izan zituzten prozesua betetzeko. Ez zen amnistia bat izan, baina bai, egia dela herritar askori kostatu zitzaiola hori onartzea. Asko kritikatu zituzten prozesu horiek unionistek, errepublikanoek, askok kritikatu zuten. Inori ez zitzaion gehiegi gustatu, baina, noski, nahiko azkar egin zen eta horregatik ere mina sakona izan zen. Mina bizia izan zen, biktimentzat oso mingarria izan zen ikuste presoak espetxeetatik ateratzen zirela eta askotan familiak, biktimak eta biktimak eragin zituztenak ezagunak ziren, auzoan ikusten ziren edo supermerkatuan zure aurrean zeuden ilaran. Beraz horrek zaildu egin zuen prozesua. Dena den azkar egin zen eta esan bezala mina bizia izan zen, baina nahiko azkar konpondu zen hori ere. Dena den ez da egon kontakizun bat eraikitzeo prozesua eta horregatik minak hor jarraitzen du.

Horregatik daude haustura horiek Ipar Irlandan eta uste dut hori ikasi beharko zenutela Ipar Irlandatik hemen Euskal Herrian, agian besteren gauzaren bat ere. Badakigu denok zer gertatu den ezta? Preso bat kalera atera zen, ospakizun batzuk egin zituzten kaleetan, eta horrek arazoak sortu zituen eta hori gertatuko da datozen bi hamarkadetan pixkanaka presoak aterako direlako, urteren bat agian eta horrek zer nolako eragina izango du nazio eraikuntza prozesuan, eraikigarria izan beharko da ezta? Konstruktiboa.

Teresa Whitfield

Nik askotan pentsatu dut gai horren inguruan, batez ere nire liburua idazten ari nintzen bitartean, eta nik uste dut zerikusia duela gai zabalago batekin. Errelatoaren auziarekin. Nik pertsona asko elkarrizketatu ditut. Kanpoko pertsona naizenetik, ba ez dakizue zer gauza askotaz, eta hori desabantaila da, baina gero ere pertsona askorekin ikasi dezakezu, hitz egin dezakezu. Nik pertsona askorekin hitz egin dut, biktimak, presoak, biktimarioak, PP-ko pertsonak, ETako kide ohiak, espektro politiko guztiarekin hitz egin dut eta hasieran beti eskatzen nien aholku bat emateko irakurgaietaz, zer irakurri beharko nuke nik ikasteko, ze historiaren kontakizuna ere ezberdina da. Badira modu asko euskal nortasuna,

identitatea, ulertzeko. Modu asko daude euskaldunak izateko, modu anitzak. Historia, berez, oso konplexua da.

Hemen baduzue historia oso luzeak, ze askok hasten dira esaten lehendabizi atzera egin behar dugu 200 urte, 300 urte hau dena ulertzeko eta gero trantsizioa dugu, eta gero ditugu iluntasun horiek, itzal horiek garai hartan sortu zirenak eta gaur egun dauden zailtasunak gertatu zenaren egia jakiteko. Gerra zibilean hor dagoen gauza ezkutu hori guztia, eta faktore horiek guztiek inpaktua dute, biktimen gaiaren gainean. Hau da, askotan hitz egiten dugu errelatoaren borrokaz, baina batzuetan borroka hutsa da eta badirudi beti norbaitek galdu egin behar duela. Beraz, nik uste dut oso garrantzitsua da dokumentazioa bat egitea, dokumentatzea giza eskubideen urraketaren abusuak dokumentatzea, ze askotan giza eskubideen urraketa bakarrik perspektiba batetik ikusi da eta ez perspektiba guztietatik.

Egia da lan handia egiten ari dela arlo horretan, baina oraindik ere ez gara iritsi erabat ulertzera ze urraketak egon diren eta ulertze partekatu batera. Horrek lagunduko luke. Hau egingo bagenu..., baina ez dut uste sekula kontakizun bakarra egongo denik, ez bakarrik hemen, baizik eta baita gatazka guztietan ere, inork ez du egia osoa bere esku inor ez da sufrimendu guztiaren jabe bakarra. Sufrimendu mota asko daude, egia mota asko daude, desberdinak eta onartu beharra dago aniztasun hori, ikuspegi aniztasun bat badagoela.

John Carlin

Moderatzailea

Sergio, uste dut zu zarela aiposena eztabaida horrekin amaitzeko. Zuk lan handia egin duzulako Kolonbian kontakizuna egiteko.

Sergio Jaramillo

Bai, esango nuke Kolonbian ez zela bake akordiorik egongo biktimak kontuan hartu gabe. Beraiek izan ziren guk genuenaren erdigunea eta motorea ere. Beti izan genituen gogoan eta izan ere jaso genuen biktimak egongo zirela egiten zen akordioaren erdigunean; eta gure kasuan ez genituen Martin bezalako adituak izan egon ziren fasilatzaileak, bideratzaileak, baina ez bitartekariak ez genuelako nahi ere ez eta gure artean eztabaida biziak izan genituen. Bizpahiru aste eztabaidan eman eta gero, 2012ko ekaina aldean, adostu zen biktimen puntu bat egongo zela eta hor zehaztu zen bake prozesuaren erdigunean egongo zirela biktimak, eta hori izen zen gerora egin genuenaren *late motivation*. Esango nuke ere, gero, negoziazioak gainditu zirenean, joratu izan genuen gairik zailena izan zela, gogorrena, eta fase horretan jakingo duzue batzuk Habanara gonbidatu genituela hiru, lau, bost delegazio egon ziren eta gonbidatu genituen hara joatera negoziatzaileekin hitz egiteko haien bizipen buruz, haien itxaropenenei buruz eta hori gauza benetan berezia izan zen. Oso ongi gogoratzen dut ze gogorra izan zen bertan zeuden guztiontzat. Eta zergatik izan zen hau posible? Abiapuntu gisa printzipio bat genuelako, Santos presidentek eta gobernuak onetsitakoa eta zen biktima gutiei buruz hitz egingo genuela. Brian Currinek adierazten duen arazoa guretzat oso korapilatsua zen. His-

torialariek esaten dute hasiera eta amaiera jartzea zaila izaten dela FARCCen kasuan hari gara hitz egiten aurkakotasun armatu bati buruz eta aspaldidanik gertatu da gure lurretan. FARCC bada erakunde izugarri handia. Beraz arazoa ez zen hori, arazoa gure kasuan zen onartzea biktima guztiak kontuan izango genituela eta gobernuak inolako momentuetan ez zuen pentsatu berdintasun bat ezartzen zela FARCCen biktimen eta abarren artean, ez.

Printzipioa onetsi egin zen eta orduan horri esker FARCCen negoziazio buruak berak esan zuen “gu ez gaude inpunitatea trukatzeko” eta hori lorpen handia izan zen. FARCCeko buruzagi batek esan zuen, jende asko egon zen Habanara joaten beraiekin hitz egiteko eta hori entzutea haren ahotik niretzat bazen gauza benetan txundigarria izan zen. Nik esaten zuen XXI. mendean ez dugu ikusiko... eta biktimak erdigunean jarri zirenez dena eraiki zen printzipio horren inguruan eta hori gero praktikan ikusten ari gara, egon dira epaitegiak, non epaitu diren FARCCeko kideak, armadako kideak eta non onartu egin den zer gertatu zen, aitortu egin da. Eta badago gai bat oso delikatu eta apaltasun osoz esango dut uste dudala hor daudela esperientziarik baliagarrienak Kolonbian. Kanpotik begiratu bahi baduzue kontakizunari buruz hitzegiteko ere, uste dut hitza bere ere ez zela oso argia, ezta? Ekintza batzuk kontatzeaz hitz egiten digulako eta hor adostasunak lortzea zaila delako.

Iruditzen zait ikasi dezakezuela gugandik aurrena biktimei entzutea eta, gero, erantzukizunez onartzea gertatu zena horrek ez du kontakizunik behar, horrek jarrera bat eskatzen du besterik ez. Eta hori Kolonbian egiten ari gara eta FARCCak ere zentzunak izan ziren, presioa ere jasaten ari zirelako gizartearen aldetik, demokraziaren aldetik, baina beraiek izan ziren lehenik eta behin aitortza horiek egiten hasi zirenak eta ikusi genuen adibidez nola aitortu zuten bahiketa erabiltzea akatsa izan zela, arbuigarria zela, ez zutela horrelakorik egin behar eta hori gero eta gehiago ikusten ari gara espazio askotan Kolonbian, eta hori uste dut zabaldu egin behar dela. Denek onartu behar dutelako erantzukizuna, ez soilik armak erabili zituztenak, baizik eta baita ere testuinguruak sorrarazi zituztenek eta adostasuna baldin badago gauzak horrela ebazteko, uste dut lasaitasuna handiagoz jorratu daitezkeela beste alderdi guztiak.

John Carlin Moderatzailea

Ongi, honekin amaituko dugu eta gogoratu hemen gaudela Aieteko konferentziaren hamargarren urteurrena ospatzeko eta Martin Griffithsek esan duena berreskuratuz, nazioarteko bitartekariok eta behatzaileok zoriondu egin behar ditugu euskal herritarrak hamar urtez bakea mantendu delako, hemen daudenei esker Martini esker lagundu zuten guztiei esker eta bake prozesuaren zati garrantzitsu batek entusiasmorik agertu ez arren, zuek esan zenutelako ez baduzue konpondu nahi guk euskaldunok konponduko dugu eta horregatik nire miresmena eta zorionak eta eskerrik asko gonbidapenagatik.

Nekane Altzelai

“Aiete hamar urte irakaspenak eta erronak” ekitaldi honekin nazioarteko jardunaldi hauei hasiera eman diegu. Gaurkoz hemen amaitzen da irekiera ekitaldia. Bihar Kurasaalen 10etan jarraituko dugu eta larunbatean Baionan. Mila esker bertaratzeagatik eta bitartean ongi izan.

Urriak 15 - Kursaal

Euskal Bake Prozesuaren erronkak

Nekane Altzelai

Egun on, ongi etorriak nazioarteko jardunaldien bigarren eguneko ekitaldi honetara, atzo herrialde desberdinetako gatazken konponbideetan parte hartu duten hainbat adituen eskutik, bake prozesuetaz eta bakea eraikitzeko prozesuetaz irakaspenak jasotzeko aukera izan genuen.

Nabarmena da gurean gertatzen ari den esperientzia munduan gertatzen ari diren beste batzuekin antzeratuta, badaudela, badituela ezaugarri berdinak edo antzekoak, baina era berean ere berezitasunak ere izan baditugu hemengo prozesu honetan.

Duela hamar urte Aieten bildu ziren haiek lortutako adostasunaren emaitzei esker gaude gaur hemen, baina oraindik baditugu lantzeko hainbat eremu eta gainditu beharreko hainbat erronka.

Horretaz hitz egingo dugu gaur goizeko bi mahai-inguruetan. Gatazka konponketen prozesuan eskarmentu handia duten hainbatek Euskal Herrian gertatzen ari den bake eraikuntza prozesuari buruzko azterketa egingo digute ondorengo bi mahai-inguru hauetan. Lehenengo mahaiak gure prozesuan gizarte zibilak izan duen protagonismoa eta adostasunak bultzatzeko egin dituen ekarpenak aztertuko du.

Foro Sozial Iraunkorreko kidea den Aizpea Leizaolak moderatuko du mahai-inguru hau, bera Antropologian eta Hizkuntzalaritzan lizentziatua da eta egun Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Campuseko irakaslea da. Baina, mahai inguruari hasiera eman baino lehen Jonathan Cohen-en hitzak entzungo ditugu. Beraz Jonathan, zurea da hitza eta jarraian Aizpeak mahai-ingurua aurkeztuko digu. Ondo izan eta probestu gaurko goiza.

Jonathan Cohen

Eskerrik asko, plazer handia eta pribilegio handia da gaur hemen egotea antolatzaileen izenean hitz egiteko eta zuen baimenarekin gogora ekarri nahi dut, bake eraikuntza prozesurako denbora behar dela. Conciliation Resources-etik eta pentsatzen dut ere Berghof Foundation -en izenean, esan dezakegula bi erakundeetan bina hamarkada daramatzagula bake prozesuetan laguntzen eta baita ere Euskadiko prozesuan laguntzen. Aurrera eraman ditugun lan guztien erdigunean eta muinean egon da eta horregatik gaude hain pozik hemen gaudelako, gaur hemen eta egun hauetan hemen erdigunean egon da zeregin bat, bakearen eraikuntza bera eta baita ere jaso genuen gonbidapena guk izandako bizipenak hemen partekatzeko eta munduko beste leku batzuetan partekatzeko. Nolabaiteko erresonantzia kutxa bezala jarduteko eta azken batean ideia batekin eta da beste ikuspegiak mahai gainean jartzea, beste hausnarketak mahai gainean jartzea, besteen bizipenak mahai gainean jartzea eta baita ere erraztea, harremanak eraikitzea eta galdera zailak egiteko aukera zabaltzea. Azken ba-

tean bake prozesuak aldaketa prozesuak dira eta guk ere gure jardun horretan entzun egin dugu, ikasi egin dugu, eta oraindik ere horretan jarduten dugu: Ikasten, hausnartzen, entzuten. Berghof Foundation-en ere, duela urte pare bat azterlan bat aurkeztu zuten pentsamendu estrategikoari buruzkoa eta kasu honetan aztertzen dena da nola suspertu, apurtu diren harremanak gatazkaren ondorioz, apurtu direnak entzutea funtsezkoa da noski gatazka bat gainditzeko eta bake iraunkorrago bat lortzeko. Gai izan gara pertsonak biltzeko, gai izan gara hainbat lekutako pertsonak biltzeko, Euskaldunak, Euskal-herritik kanpokoak... hainbat lekutara joan gara ere esperientziak erakartzera, biltzera eta hona ekartzeko. Duela hamar urte eskatu ziguten antolakuntzan jarduteko eta garai hartan ez genuen batere argi zein izango zen emaitza, bagenekien aldaketak gertatuko zirela baina ezin genituen xehetasunak aurreikusi eta uste dut hor aipatu behar dela ere, zer nolako itxaropen egon zitezkeen duela hamar urte eta zein itxaropen egon daitezkeen gaur egun. Gauza batzuk asko aldatu dira, beste batzuk ez hainbeste edo agian ez nahiko genukeen bezain azkar eta horretarako gaude hemen, horretarako antolatu ditugu mahai inguru hauek, oinarrizkotzat jotzen ditugun gai batzuk eztabaidatzeko eta garrantzitsua iruditzen zaigu ere gure buruari galderak egitea, horien artean badago galdera bat egin behar dioguna gure buruari eta da: zer ez da aldatu azken hamar urte hauetan? Badakit Aieteko konferentzia eta gero hainbat galdera jarri zirela mahai gainean. Horietatik zeintzuk daude oraindik erantzun gabe. Gaur gonbidatu ditugun adituek lagunduko digute erantzun horietako batzuk aztertzen eta arakatzen eta bake prozesuei buruz hamar urteren ondoren adibidez, garrantzitsua da eten bat egitea eta gure buruari galdetzea: non egin genuen huts? Non ez genuen ikusi hobetu zitezkeen zerbait? Zer ez genuen ikusi eta zer egin dezakegu gauzak hobeto egiteko? Uste dut etenaldi horiek beharrezkoak direla gauzak hobeto egiteko. Indarkeria egoeretan berriro erori ez gaitezen gure gizar-teetan. Horretarako bildu gara gaur hemen prozesuak aurrera jarrai dezan eta eskerrik asko guztioi hona etortzeagatik, hemendik zatoztenei eta urrundik etorri zaretenoi ere. Eskerrik asko.

MAHAI INGURUA

Aitzpea Leizaola

Aurkezpena

Egun on guztioi, behin tokiak kokatuta itzulpen eta aldi bereko itzulpeneko kanalak eta bermatzeko egin behar izandu dugu guzti hau. Ohore handia da gaur hemen duela hamarkada bat Aiete gerta zedin lanean jardun ziren lau pertsona biltzea. Horietako hiru, Euskal bake prozesuaren baitan mugarrria izan den Aieteko konferentzia deitu eta antolatu zuten hiru eragileetako kideak ditugu. Conciliation Resources, Berghof Fundazioa eta Lokarri bai eta gerora abian jarri zen nazio arteko kontaktu taldeko kide bat ere. Europako azken gatazka armatuaren amaiera bideratu eta bake prozesua abian jartzeko urrats ezin bestekoa izan zen Aieteko konferentzia eta nik uste egun hauetan horren adibide argiak ikusi ditugula atzoko egunean zehar arratsaldean zehar izandako hitz hartzeetan. Atzo Aieteko Jauregian bildutakoek aipatu zituzten prozesuaren nondik norako zenbait. Hamar urte hauetan aldaketa haundiak egon dira bai Euskal Herrian bai nazio arte mailan eta nolabait ere atzera begiradako bat egitea ba inportantea da ikusteko ba, Jonathan Cohen-ek aipatzen zuen bezala ez bakarrik zertan huts egin ahal izan den baizik eta zer ikasi dugun eta hori da hain zuzen ere gaurko mahaian aipagai izango duguna. Bestalde, bueno pandemiak mundu mahaian eduki duen eraginak ere, noski horrek guztiak ere baldintzatu egin du eta lan egiteko molde berrietara egokitu behar izandu dugu baina horrek ere, nolabait ere froga moduan bizitzeko bueno ba parada izan dugu. Bake prozesu guztiak bereziak direla jakinik eta mota desberdinetako kontingentzien menpe daudela jakinda ere, bakegintzan jarduten diren aditu eta eragileek, euren irakaspen eta esperientziak gatazka konpontzeko bidean jartzen dituzte euren jakitea eta euren ezagutza. Tokian tokiko gizarte eta eragileei dagokie, berauek euren gain hartu eta egokitzea eta hortaz gaur hemen aipatuko duguna izango da zeintzuk izan diren Aietetik jaso ditugun irakaspenak eta horren inguruan jardutea eskatuko diet nirekin batera mahaian eserita daudenei. Hortaz gurekin ditugu hemen eta ordenan aurkeztuko ditut gero itzulpen kontuentatik horrela behar delako, Andy Carl, hemen nire parean, gatazka konponketetan eskarmentu handiko aditua 1994an Conciliation Resources fundazioko sortzaileetako bat bai eta bertako zuzendari 2016 arte. Egun gatazka testuinguruetan lanean dihardu besteak beste ekialdeko Afrikan eta beste toki batzuetan, tartean Ipar Irlandan, egia, justizia eta erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermea kudeatzeko moduen inguruan. Bera Aieteko konferentziako antolatzaileetako bat izan zen, hortaz bere lekukotza interesgarria zaigu gaurko mahai honetarako. Bere ondoan, Véronique Dudouet gatazken konponketan doktorea eta Nazio Arteko hainbat agentzietan aholkulari jardundakoa. Aieteko konferentzia deitu zuen Berghof Fundazioko kide da 2005az geroztik, eta hortaz ere bide luzea du kontu hauetan eta gatazka konponbideari buruzko teorizazio lana egindakoa da eta lehen aipatu du Jonathan Cohenek zer garrantzia izan duen ere, nolabait ere, horren teorizazioak mundu akademiakoaren ekarpenak gero praktikara nolabaiteko bi norabidetako bide baten aurrean gaude ez? adituak eta eragileen arteko elkar lan horretaz. Gatazka ondorengo gobernantza eta gatazka armaturik erresistentzia zibilerako trantsizioak aztertu ditu bereziki.

Bere ondoan, Paul Rios dugu zuzenbide eta giza eskubidetan formatua eta 2006 eta 2015 bitartean Euskal Herriaren bakearen akordioaren eta kontsultaren alde lan egin zuen. Lokarri sare herritarraren koordinatzaile eta antolatzailea izan zan. Gaur egun aholkulari independentea da eta kanpo proiektuetarako aholkulari lanetan dabil, Kolonbian besteak beste Agirre Lehendakari Center-en eskutik. Eta 2011an ere, Aieteko konferentzian erraztatzaile izan zen eta antolatzaileetako bat. Eta azkenik nire ondoan, Alberto Spektorowsky dugu Politologo Uruguaiar Israeldarra hainbat bake prozesuetan aholkulari jardundakoa, besteak beste, Cam David-eko akordioetan.

Tel-Aviv-eko unibertsitatean zientzia politikoetako irakaslea izan da eta 2011az geroztik, Brian Curran buru zuen nazio arteko kontaktu taldeko kide izan zen eta gertutik jarraitu du ordutik euskal bake prozesua. Mahai inguruan parte hartuko dute hizlariak eta gero ondoren irekiko dugu tartetxo bat galderak egiteko. Galderak Foro Sozialaren ekimenetan ohikoa den moduan idatziz jasoko ditugu. Hemen ibiliko da Eneko zuen eskubitara, berari pasatu galderak eta mahaiko kideei bideratuko dizkiegu, eskertuko genizueke ere, galdera zehatza baldin bada hizlari jakin batentzat, hori horrela adieraztea eta galderak ere, ahalik eta modu zehatz eta argiengan adieraztea. Eta hortaz, besterik gabe hasiera emango diogu mahai inguruari. ikusten dugunez, hemen ditugunak ibilbide oparoa duten hizlariak ditugu eta nik galdetu nahi nieke, galdetu nahi nizueke zuetako bakoitzari Aieteko konferentziara nondik nora heldu zineten alegia, nola iritzi zineten Aieteko konferentzia, mugarri inportantea bihurtu zen Aieteko konferentzia horretan parte hartzera eta zurekin hasiko gara Andy:

Andy Carl

Eskerrik asko eta eskerrik asko hemen egoteko aukera emateagatik. Jonathan-ek esan bezala, Conciliation Resources abian jarri zenean gure helburu nagusien artean ikastea zegoen, ikasi egin nahi genuen. 90eko hamarkadan hasi ginen argitalpen batzuekin, artikulatu batzuk argitaratu genituen Ipar Irlandari buruz, gaztelaniara itzuli ziren eta Gernikako prozesuan parte hartzen ari ziren pertsonen helarazi genizkien besteak beste. Horrela hasi ginen lanean eta jarraitu genuen pertsona horiekin harremanetan egoten. Uste dut 2007an izan zela, gonbidapena jaso genuela, hausnarketa prozesuetan parte hartzea Ezker Abertzalearekin eta hausnarketa prozesuetan murgildurik zeuden etorkizunaren inguruan eta etorri ginen, etorri ginen gu ere haiekin hitz egitera eta pixka bat azaltzera zer ikasi genuen guk munduko beste leku batzuetan eta noski ikastera Jonathan-ek esan duen bezala eta Aieteko konferentziaz hitz egiten hasi zenean, eragile asko zeuden, eragile sozial asko, bertako asko, eta guk ez genuen pentsatzen gu ere hor egongo ginenik erdigunean. Bagenekien funtsezkoa izango zela Euskal herriko prozesuarentzat eta azken batean ba hor egon ginen jakin gabe ere oso ongi zein izango zen gure ekarpena. Denbora pasata noski, argi geratu zen baita ere amaierako deklarazio hura egin zenean.

Véronique Dudouet

Nire kasuan ere, atsegin handia da hemen egotea, azken hamarkada honetan ikasitakoaz hitz egiteko eta ni konferentzia bera baino urte pare bat lehenago hasi nintzen lanean honetan eta Donostiara etorri ginen urte bete lehenago mintegi bat egiteko. Eraldaketa prozesuei buruzko mintegia izan zen,

gatazken ebazpenari buruzkoa. Hego Afrikako gonbidatuak ekarri genituen eta gero ere, argitalpen bat egin genuen Euskadiko protagonistei buruz, egindako negoziazioen porrotari buruz, eta garai hartan ere Ipar euskal herrira joan ginen eta han ere beste bilera bat egin ahal izan genuen eta bilera hartan kontraterrorismoaz eta horrelako politikez hitz egin genuen, garai hartan gertatzen ari ziren gauza horiez. Lokarrik gonbidatu egin gintuen han egoteko.

Paul Rios

Lokarrin 2009an hasi ginen parte hartzen Brian Currin Hego Afrikako abokatua gurekin harremanetan jarri zelako, lanean ari zelako, Ezker Abertzalean egiten ari zen aldaketa estrategikoan laguntza behar zuen hura ezagutzera emateko eta baita ere gainerako alderdi politikoekin lantzeko, bake prozesuari beste ekarpen bat egiteko. Nazio arteko taldea sortu zen eta harremanetan jarri ere Spektorowsky eta laguntza eta bitartekaritza lanetan egon ginen gauza bera egin genuen ere, su etena egiaztatzeko nazio arteko batzordearekin garai hartan Ram Manikkalingam zegoen haren buru gisa eta garai hartan ere jaso genuen agindua antolatzeko Aieteko nazioarteko konferentzia. Laburbilduz, gu baginen erakunde soziala aktibistak biltzen zituena eta bitartekaritza eta lankidetzaz zereginetan parte hartu genuen nazio arteko erakundeekin, nazio arteko bitartekariekin.

Alberto Spektorowsky

Eskerrik asko gonbidapenagatik, atsegin handia da hemen egotea eta honen parte hartu ahala izana. Brian-i esker, nirekin harremanetan jarri bait zen bera, parte hartu nuen gonbidapena egin zidanean. Nik baiezkoa eman nion argi sentitu nuelako parte hartu nahi nuela prozesu honetan, gertukoa sentitzen nuelako. Sei hilabete eman nituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta horregatik nolabaiteko gertutasuna sentitzen nuen ere. Horrela hasi nintzen parte hartzen eta nire ustez garrantzitsua da inplikazio hori, lan aktiboa egitea eta ni zientzia politikoetan naiz aditua ez gatazken konponketan. Garai hartan ez nekienez ezer edo ia ezer gai horri buruz, beraz ni ez nintzen aditua horretan, nahiz eta noski banuen nire ekarpena teoria politikoari buruz. Slovo Benavidez-rekin lana egindako nintzen Palestinarrekin negoziatioetan eta hori zen pixka bat gatazken konponketan nuen eskarmentua. Noski, zerbait ikasi nuen, ikusi nuen nolako tratamendua ematen zitzaion, nola prestatzen zituzten adiskidetzeko prozesuak eta ez dakit lortu nuen edo ez baina nire ekarpena hori izan zen.

Aitzpea Leizaola

Zure iritziz Andy, zeintzuk izan dira Aieteko irakaspen nagusiak?

Andy Carl

Banekien galdera hori egingo zenidala, bai, susmoa banuen eta horregatik pixka bat prestatua ekarri dut erantzuna. Aieteko konferentzia egin aurretik, asko egin zen, lan handia zegoen eginda eta

Berghof Foundation- en dokumentatuta dago egindako lan horren zati handi bat beraz, baguen zerbait ikasita Aietera iristerako. Zer ikasi dugu azken hamarkada honetan? Badaude irakaspen batzuk lotuta daudenak eztabaida prozesu horiekin ezta? Hemen eztabaidak egin dira iraganari buruz, etorkizunaren eraikuntzari buruz eta ezagutzen nauzuenok, badakizue edo entzungo zenuten, nire iritiz, hiru dimentsio edo hiru alderdi daudela bake eraikuntza prozesuetan. Alde batetik badago barne maila hori, zure etxean, zure mugimenduan, zure elkartean eta hor dira gauzak zailen, hor dira gauzak mingarriak eta hor gatazka konpontzea zailago izaten da. Bigarren maila edo bigarren alderdia da, gatazkak konpontzea beste pertsona eta beste talde batzuekin eta helburu batzuk partekatzen direnean, eta beste eremu batzuetan lehian zaudetenean eta hirugarren maila edo alderdia litzateke oposizioarena eta hor aurkitu behar da zer dagoen komunean bake prozesu bat eraikitzeko. Aiete mugari bat izan zen baina Aiete baino lehen ere gauza asko egin ziren hiru alderdi edo maila horietan eta guzti guztiak ezinbestekoak izan ziren adostasunera iristeko. Barne mailan gauzak pixka bat txukundu egin ziren antolatu egin ziren, eta hori funtsezkoa izan zen Aiete gertatzeko. Aukerak egon ziren ere hausnarketak egiteko eta arrez gero horretan sakondu ahal izan dugu, aztertu dugu adibidez zer nolako harremana egon zen Espainiako Estatuarekin, atera gara gure konfort eremutik eta bake prozesuetan parte hartzen dugunok, badakigu kanpotik parte hartzen dugunok, neutraltasunez jokatu behar dugula, ezin dugula alde baten edo bestearen alde agertu eta batzuetan badakigu ere, funtsak iristen direla eta horrek ere eragin bat izan dezakeela. Zer gertatu zen Euskal Herrian? Euskal Herrian bazeuden alde batetik lortu nahi ziren edo defendatzen ziren helburu batzuk baina gure erakundeetan esan bezala, batez ere, arreta jartzen dugu ikastea eta Euskal Herriko gatazkaren kasuan, erronka zen preskripzioarena, adibidez terroristen zerrendena. Hor adibidez bazegoen informazio bat eta helburua zen beti aukera eskaintzea indarkeriatik ateratzeko eta hori leku batzuetan ilegala da, legeak debekatu egiten duelako. Onartu egiten genituen arrisku legalak maila transnasionalean ere bai, praktikan hauxe egin behar genuen: aztertu zehatz mehatz ze partehartzaile gonbidatuko genituen, ze ekitalditara, ze bileretara eta esate baterako elkarrizketarako aholkularitza taldea ez dago hemen baina, beraiek ere badakite zeri buruz ari garen hitz egiten jakiteko zer arrisku genituen aurrean Brian Currin edo beste hainbat nazioarteko lider Aietera etorri zirenak Kofi Annan ere bai. Guk denok onartu genituen arriskuak zeudela baita ere Berghof Fundazioak ere bazekien arriskuak zeudela tartean. Justizia eta bakea den denek parte hartu genuen guztiek ausardia izan genuen arrisku horiek gure egiteko eta Euskal esperientziak erakutsi digu noski, terrorista zerrendak direla errepasatu beharrekoak eta zerrenda hauek tresna politiko bat dira eta ez dute ezer egiten gatazka konpontzen laguntzeko eta erronka izaten jarraitzen dute gaur egun. Beste irakaspen bat, beno irakaspen bat baino gehiago, gustatuko litzaidake aitortzea, laguntzaile nazio arteko hauen guztien integritatea nolako zen baina arriskuak ere esan nahi nuke, ez genituela guk bakarrik izaten, eta adibidez Paul-ek ere bai eta beste ekintzaile batzuk Euskal Herrian hautatu zutenean bide honetatik joatea. Eta hemen ikasi dudana zerbait da nazio arteko gatazka batean, gatazka armatu batean, normalean nazio arteko zuzenbideren arabera badaudela arauak errepresalien aurka doazenak, ekintzaileen, bakearen ekintzaileen aurka egiteko baina Nazioarteko gatazketan ez ditugu horrelako babesik, ez dago horrelako babesik, hau da, Josu Ternera dugu esate baterako. Josu Terneraren kasua, azkenean absolbitu egin zuenak, Frantziar auzitegi batek duela hilabete gutxi. Nik uste dut gauza horiek asko esaten digutela ekintzaileek bizi dituzten arriskuei buruz bakearen autua egiten dutenean.

Josu Ternera absolbitu egin zuten eta horrek zerbait positibo esaten du bere ausardiaz, bere adiskideen ausardiaz ere asko esaten du eta epaileak esan zuen argi eta garbi negoziatioetan parte hartzea,

bileretan parte hartzea, gatazka armatu bat amaiarazteko, hori ez dela terrorismo ekintza bat, hori oso argi esan zuen epaile frantziarrak. Ezta onargarria negoziatzaileak eta ekintzaileak ez dezaten babes hori, babes oinarritzko hori izan eta hori oraindik ere oztopo bat da beste talde batzuetan. Oraindik ere negoziazioetan sartuta daudenak indarkeriarekin amaitzeko eta nik uste dut hau oso garrantzitsua dela eta kontuan hartu beharrekoa, esate baterako, negoziazioetan eta bueno, gatazka baino gehiago, Espainiako Estatuan eta Kataluniako Gobernuaren artean ez da gatazka armatu bat baina bermatu beharra dago babesa dutela, babesa dutela negoziazioan sartuta duten guztiak eta ikusi dugu ere, haien parte hartzea prozesu honetan zigor ondorioak izan dituela beraz, ez da onargarria arriskuan jartzea negoziazioaren autua egiten dutenak eta elkarrizketaren autua egiten duten pertsonak eta nik uste dut alde guztiak nolabait sistemaren bat adostu beharko dutela ekintzaile hauek babesteko. Beraz ari gara hiru domeinu horiei buruz, hiru esparru horiei buruz hitz egiten. Hau da, bakearen alde lan egitea taldeen barruan, hau da, mugimenduen barru barruan, eta gero dugu borondate hori arriskuak hartzeko eta hau guztia oso zaila da baina gero ere badugu kanpoko arrisku bat, kanpotik datorrena noski. Eta hauek dira ikasitako irakaspen garrantzitsuenetako batzuk eta azken ondorio bat esaten uzten baldin badidazue, esango nizukeke estrategia desberdinak daudela, egon zirela garai hartan eta horrek ekarri zuen Aieteko konferentzia ospatzea. Eta nahiz eta Espainiako Estatu oso zail bat izan aurrean estrategia horrek funtzionatu zuten eta estrategia horiek eman dute, ekarri dute eraldaketa bat, egiazko eraldaketa bat eta horrek euskaldun guztien bizitzak aldatu ditu. Eta azken hamarkadari erreparatzen badiogu, ikus genezake eraldaketa prozesu hori nola gertatu den urteetan barrena, hau da, ikusi dezakegu kamera geldoan ikusiko bagenu bezala, hau da, alde batetik dugu adierazpena 2011an gero armagabetzea etorri zen ETA disolbatu zen 2018an, beraz aurrerapen asko egon ziren eta lortu ditugunak azken urteetan, gauzatu egin ditugunak. Gero baditugu alderdi politikoak, Bildu, EH Bildu, gaur egun legezkoak dira eta publikoaren babesa dute, erbesteratu batzuk itzuli egin dira, eta gero autonomia erkidegoko gobernuari iritzi zaio espetxeen eskumena bere eskuetara. Beraz, asko lortu da hamar urteetan, hamarkada luzea izan da, oso gogorra izan da ere bai baina aurrerapenak ikaragarriak izan dira ere bai, hori kontuan hartu behar da. Eta gainera adostasun global bat egongo balitz, jakiteko nola amaitu gatazka armatu bat eta nola ekarri bakea, adostasun hori zuek berridatzi duzue egin duzuen lanarekin hemen Euskal Herrian. Eta nik uste dut zuen adibidea eredarria dela jakiteko nola eraiki bakea, beno, beste modu batera planteatuko dut, planteatuko dut galdera gisa: Euskal kasua izan daiteke adibide bat jakiteko nola eraiki daitekeen bakea modu alde bakarrekoan, akordio politiko bat egon gabe? Nire erantzuna izango litzateke EZ. Eta azken inspirazio gisa edo nik atera dudana ondorio bat da, prozesu horrek ez duela zerikusirik alde bakarreko prozesu batekin. Ez da prozesu alde bakarreko bat, hau da, hau da adibide bat jakiteko zer lortu daitekeen pertsona askok eta organizazio askok batera lan egiten dutenean ez mugimendu bakarrean baizik eta lankideak direnean eta taldean lan egiten dutenean helburu komun bat erdiesteko. Eta denborarekin lanean, denok elkarrekin lan eginez, ikus dezakegu nola iritsi daitekeen bultzada bat izatea, bultzada geldiezin bat izatea gainera eta zuek bilatu duzue gatazka modu baketsuan ebazteko modua. Eta organizazio baten izenean nik, nazio arteko organizazio baten izenean nik hitz egiten dut eta baita ere nazioa arteko beste organizazio batzuekin ere lan egin dugu, ez lehiatzeko baizik eta lankidetzan jarduteko eta hori da hemen egin duzuen. Beraz, horrela lan egin behar dugu etorkizunean, lankide izan behar dugu, kooperatu egin behar dugu pertsona desberdinen artean eta organizazio desberdinen artean. Gatazka armatuak hurakanen antzekoak dira askotan eta sarritan beren dinamika sor dezake, dinamika konplexua, auto sostengarria eta hor jarraitzen dute bere suntsipen gaitasun handi horrekin eta nik hemen ikasi dudana da, nola ekarri aldaketa baketsu bat indarke-

riaren antzera, aldaketa baketsuak ere bidearen araberakoa ere badela eta beti ere lider politikoen mende dago, askotan nazio artekoetan, tokikoetan, zenbat eta denbora gehiago lan egin pertsona horiek elkarrizketa bultzatzeko, orduan eta iraunkorrakoak izango dira lortzen diren aldaketak. Eta beraz, erabaki guztiak, erabakigarriak izan zirenak, Aiete aurretik hartu zirenak, eta prozesu honek guztiak ekarri du bakearen hurakan bat sortzea, bakearen zurrumbilo bat sortzea eta gatazka oso ilun bat bihurtu duzue zerbait oso positibo eta gainera aukera berri asko ireki dituzue eta zuek denak nola elkartu zineten Aieten duela hamar urte eta ze ahalmen izan zuen lankidetzaren horrek, hori da nik ikasi dudana, hori da nirekin gelditu dena eta eskerrik asko parte izaten uzteagatik. Eskerrik asko.

Véronique Dudouet

Duela hamar urte, Aieteko konferentzian ez genukeen imajinatu ere egingo zer gertatuko zen hurrengo hamarkadan. Denek bagenuen itxaropen bat Aieteko adierazpenak bultzada berri bat sortuko zuela bake prozesuaren alde, Espainiako Estatuaren eta ETaren alde baita Ezker Abertzalearen artean ere eta burutu egingo zela nolabait akordio truke bat eginez eta beharbada hurbiltze bat ere lortuko zela eta hori ez zen gertatu, hori den denok dakigu eta zer gertatu zen orduan? zer gertatu zen? Ba bake prozesu bat sortu zen bat ere konbentzionala ez zena, gorabehera asko izan zituen prozesuak eta egia esan lezio asko ikas daiteke prozesu horretatik. Ari naiz bitartekariez, ari naiz eragile desberdinez, bakea eraikitze orduan mundu osoan. Atzo entzun genuen eta egia da, gatazka guztiak bakarrak direla eta ez dagoela euskal eredu bat errepikatu daitekeena munduko beste bazter batean baina bai dira hainbat elementu oso garrantzitsuak direnak, eskaintzen digutenak nolabaiteko inspirazioa, elementu horietatik asko ikas dezakegu. Esate baterako blokeoa sortzen denean, hau da, alde batek baztertu egiten duenean bakea eraikitzearen ikuspegi bat edo ukatu egiten duenean gatazka politiko bat egon ere badagoela. Eta askotan pribilegioa izan dut hona Euskal Herrira etortzeko eta parte hartu izan dut mota honetako bake foroetan eta seguruenez, askok entzungo didazue esaten orain esango dudana: Baina laburtu behar baldin badut azken hamar urteetan ikasitakoa, nik bi irakaspen gako aipatuko nituzke: Bi irakaspen nik erabiltzen ditudanak edo aprobetxatu egiten ditudanak gatazketan lan egiten dudanean beste herrialde batzuetan. Irakaspen batek du, iraunkortasunarekin eta sormenarekin zerikusia eta bigarrenak du inklusibitatearekin zerikusia. Has gaitezen sormenarekin eta berrikuntzarekin. Nik Euskal herrian ikasi nuen gauza berri hori, elkarrizketa mota guztien artean, eta negoziatioetan ikasi nuen, gizarteak bakea eskatzen duenean, gizarteak galdu egiten duenean bakea modu duinean, nahiz eta bake prozesu negoziaturik ez egon, estatuan egin daitekeela. Hemen Euskal Herrian lortu egin zen hori elkarrizketaren muina aldatuz, elkarrizketaren ikuspegia aldatuz. Jadanik ez zan elkarrizketa bat gobernu zentralaren artean eta beste aldean artean modu blokeatuan. Aldatu egin zen eta elkarrizketa alde anitzetako bihurtu zen edo eremu asko sortu ziren gizarte zibilaren artean, alderdi politikoen artean, euskal gizartearen artean espektro politiko guztiak parte hartu zuen eta askotan ETako militanteekin ere bai. Beste elementu bat sormenari dagokionez, eta hemen ikasi nuena euskal prozesu honetan, izan zen elkarrizketa politiko gatazkan dauden gai funtsezko horiei buruz, adibidez euskal identitatea, euskal abertzalearen gatazka, negoziatio hauek blokeatzen direnean, posible da aurrera egitea elkarrizketaren bitartez eta adostasuna sortuz, oinarritzen baldin bagara behintzat gatazkaren ondorioetan eta giza alderdietan. Gatazkaren giza alderdietan normalean, prozesu tradizioaletan gai horiek azkenean tratatzen dira akordio batera iritsi ondoren. Faktore politikoei buruz, akordio batera iritsi ordez, muinean dauden gai horietan. Nahiz eta blokeoak egon hemen Euskal prozesuan bide ofiziale ho-

rretan, negoziazioetan aurrera egin da beste fronte batzuetan. Eta beti ere hori posible izan da Foro Sozialari esker, ETaren armagabetzeari esker, presoeri esker... Adiskidetzeari buruz aurrerapen handia egin da beste fronte batzuetan eta muinean zeuden faktore politikoak oraindik ez dira konpondu edo ebatzi baina behar bada politika konbentzionalarekin lortuko da horiek konpontzea ere bai. Eta gero bigarren irakaspen batek, zerikusia du inklusibitatearekin, hau da, nork du jabetza, norena da prozesua? Andy-k ondo esan duenez, Independentziaren aldeko indarrak Euskal Herrian beren burua behartuta ikusi dute birplanteatzera ebazketa baten pausuak eta ikasi dute beste bide bat, desmilitarizazio bide progresibo bat ikasi dute, beste eragile batzuen laguntzarekin: Estatu Frantsesa, Euskal Erakundeak eta Euskal gizartearen laguntzarekin orohar ere bai. Eta nire kideak esan duen bezala, nik uste dut lehen maila izango litzatekeela, barne inklusibitatea Ezker Abertzalean. Elkarrizketa hori eman zen, beno Aiete aurretik hasia zen eta gero ondoren ere jarraitu zuen ze oso garrantzitsua da barne adostasun bat iristea une oro eta lider hauek horrenbesteko ausardiarekin erabaki zutenak beste bide bat hautatzea, edo ebazketara iristea bake bidea erabiliz, garrantzitsua zen guztion adostasuna izatea mugimenduaren barruan, garrantzitsua zen bermatzea parte hartzaile guztiek parte har zezaketela erabaki horitan, organizazioa desegite horretan eta soluzio bat bilatzearen aldera. Eta hau oso prozesu garrantzitsua da eta horri esker posible izan zen ETaren desegitea 2019.urtean. Eta gero maila politikoan, inklusibitateak ere esan nahi du, bermatu egin behar zela alderdi politiko guztiak ados egotea eta hori gauzatu egin zen Baionako Adierazpenean. Eta benetan harrigarriena dena eta positiboa da alderdi politiko guztiek gonbidapena onartu zutela biltzar horretara joateko eta oraindik ere akordioan jarraitzen dutela eta inklusibitatea ere gertatu zen gizarte mailan ze niretzat ere irakaspen oso garrantzitsua izan da ze Euskal gizartea gai izan da modu inklusiboan sustatzeko eta jarraitu du izaten eragile nagusia bake prozesuan eta hemen gogora etortzen zait, esate baterako, Lokarri-k lideratutako ekimen batzuk eta hemen ere bake bidea dugu alderdi anitzeko plataforma eta hainbat Foro Sozial 2013 tik aurrera antolatu direnak eta ekarri dutenak elkarrizketa nazional bat sortzea eragile guztien artean Euskal Herrian eta ondorioz prozesua herriarena da, hau da, Foro Soziala bihurtu da egitura iraunkor bat hori 2013an gertatu zen eta foro horrek proposamen espezifikoak egin ditzake blokeatze horiek gainditu ahal izateko eta horrela prozesuarekin aurrera jarraitu ahal izateko, hau da, arrakasta izateko ere bai ari naiz pentsatzen bakearen artisauen kasuak beraiek izan ziren azken batean, desarmearen tresna bat, eragiketa horren tresna bat. Eta horixe da hemen gertatu dena. Zeren eta eragile militarrek, segurtasun eragileek erantzukizun hori utzi zuten armagabetzearen ahalmena utzi zuten, gizarte zibilaren esku. Hori gauza aparta izan zen, hori ezta askotan gertatzen munduko beste alderdi batzuetan. Eta horrela iristen naiz inklusibitatearen azken elementura, hau da, nazioarteko inklusibitateaz ari naiz. Nik uste dut Gizarte Zibilak Euskal Herrian eta eragile politiko Euskaldunak oso inteligenteak izan direla nazioarteko elkarteak gonbidatu dituztelako, nazioarteko irudiak edo figurak gonbidatu dituztelako lekuak izatera, ikusteko nolako urratsak ematen ari ziren bake prozesuan eta norbanako bakoitzari utzi diote, erakunde bakoitzari utzi diote bere indarretik ekarpenak egiten eta bere ahalmen horretatik esperientziatik ekarpenak egiten, den denek laguntzeko bake prozesu horretan. Pentsatzen ari naiz adibidez, nazioarteko kontaktu taldean Brian Currin-en lidergoan, Dialogue ere bai, elkarrizketarako aholkularitza taldea, beste erakunde batzuk ere ditugu parte hartu dutenak eta diplomazia lanak egin dituenak Espainiako Estatuarekin. Gero baita ere beste erakunde batzuk, niri erakundearen antzera Berghof instituzioak eta bakoitzak bere ikuspegitik lagunduz eta bakoitzak bere esperientziatik lagundu dute pixkanaka bultza egiten prozesu honetan eta aurrera jarrai dezan eta noski ere Euskal ekintzaileei lagunduz, horiek bait ziren benetako protagonistak bake prozesuan. Orain bermatu behar dugu inor ez dugula atzean uzten hurrengo urratsetan. Aipatu dugu jadanik norbanakoen rola, hau da, arris-

kua hartu zuten pertsonak bake bilatzeko eta orain bere prezioa ordaintzen ari direnak. Josu Urrutikoe-txea esate baterako eta beste batzuk, ari naiz pentsatzen ere presoengan. Borondate oneko keinu bat merezi dutenak botere judizialaren aldetik Espainian eta Frantzian. Beraiek ekarpenak egin dezaten gizarte bat eraikitzerako orduan, bakean biziko den gizarte bat gero ere ari naiz pentsatzen biktimen-gan, oraindik ere aitortza oso baten zain daudela bere sufrimenduaren eta oinazearen aitortza bat. Erronka asko ditugu esku artean baina datozen mahai inguruetan hitz egingo da horri buruz. Eta horre-kin bukatzen dut nik ikasitako irakaspenekin baina nik izandako irakaspenak bakarrak izan dira eta inspirazio iturri izan dira bakearen arloan lan egiten dugun mundu guztiarentzat, pertsona askorentzat mundu osoan beti erabiltzen ditut hemen ikasitako irakaspenak munduaren beste bazter guztietan. Eskerrik asko.

Paul Rios

Ez dakit gidoi barik geratu ote naizen, gainera Véroniquek eta nik ez dugu elkarrekin prestatu baina bere argudioari jarraituz, inklusibitateari buruz hitz egin du eta uste dut Aiete aurretik gertatu dena-rekin bat eginez, eta inklusioa ardatz hartuta, gutxi gogoratuko duzue ze Aieteko argazkia da nazioar-teko liderren arteko argazkia eta han daude eskailek eta konferentzia egun bat lehengo hasi zen, urriaren 16an hasi zen hain zuzen ere, igande batean antolatu zen eta topaketa bat antolatu genuen nazioarteko bitartekarien artean. Ez banago oker, Brian-ek eta Albertok parte hartu zuten eta elkartu egin ziren Euskal gizarte zibileko ordezkariekin, bakearen eta giza eskubideen aldeko gizarte erakun-detakoekin, unibertsitateko kideekin eta kultura munduko erreferenteekin bildu ziren. Horrekin Euskal gizarte osoa konferentzian parte hartzera bultzatu nahi genuen. Eta era berean konferentzia-ren arrakastarik handienetarikoa bat, gure historian inoiz izan ez den aniztasuna biltzeko gaitasuna izan zen ze aretoan Euskal Autonomi Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko ia alderdi eta sindikatu guztiak egon ziren. Ze inoiz ez genuen espazio bera partekatu bakearen eta bizikidetzaren aldeko konpromiso kolektibo batean. Eta uste dut horrekin guztiarekin prozesu inklusibo bat bultzatu nahi genuela eta sektore sozio- politiko guztiek bere lekua izango zuten, prozesuaren partaide eta prota-gonista sentituko zirela. Batzuetan kosta egiten zait itzultzea ere Véroniquek ere esan du gaztelaniara itzultzea ere kosta egiten zait esatea baina nahi genuen sentitu protagonista bera prozesuaren jabe izatea ze kanpoan uzten baldin baduzu norbait gero oinarriak jartzen dituzu porrota izan dezan. Eta bakearen iraunkortasunak guztiok ordezkatuta eta entzunda sentitzea eskatzen du eta nik uste dut horixe lortu egin zela. Bigarren irakaspen bat ere, nazioarteko fasilitatzailen garrantzia eta nahita esaten dut, fasilitazioari buruz hitz egiten dut eta ez bitartekaritzaz. Atzo hitz egin zen bitartekari-tzaz jauregian. Nik zalantzak ditut bitartekaritza neutralaren eraginkortasunari buruz baina zuek zarete adituak eta zuek dakizue nik baino gehiago baina zalantzak ditu horren inguruan. Baina bai egiaztatu izan dut urte hauetan nazioarteko fasilitazioaren garrantzia. Garrantzitsua izan dela jakina, Brian, Alberto eta harremanetarako Nazioarteko taldeko gainerako kideak adibide garrantzitsuak izan dira, haien funtzioa bikoitza izan bait zen. Alde batetik alderdiak hitz egitera bultzatzen zituz-ten. Askotan bizitan etortzen zitzaizkigunean eta alderdi politikoekin biltzen zirenean ikusten zuten asteak zeramatzatela hitz egin gabe elkarren artean eta haien gomendioa beti berbera zen: Komuni-kazioa berriro hartu behar duzue eta horrela gertatu zen bere bisitaren ondoren kontaktuak berriz ere haste ziren haien aholkuak jarraituz. Beraz haien bultzada erabakigarria izan zen elkarriketa geldirik ez egoteko. Baina egin zuten lanak ere beste bertute bat edo ezaugarri positibo bat zuen, hau da, al-

boko pentsamendu laterala esango genuke. Azalduko dut zer esan nahi dudana: indarkeriaren eta gatazkaren egunerokotasunean murgilduta gaudenontzat oso-oso zaila da beste perspektiba bat izatea eta askotan iruditzen zaizu horma zeharka ezin bati aurre egin behar diozula etengabe, ez duzula inolako aukerarik. Nazioarteko bideratzaileek lagundu ziguten perspektiba izaten ze arazoari beste ikuspuntu batetik begiratzen lagundu ziguten, horregatik esaten dut albokoa dela eta lagundu ziguten ere irtenbide irudimentsuak aurkitzen beste bake prozesu batzuetan izandako esperientziaren ondorioz eta uste dut ez garela oraindik jabetzen zuen laguntza izatea ze luxua izan zen guretzat ze egokia izan zen guretzat momentu konplikatuetan eta behar bada guk geure kabuz ez genuen izango gaitasun hori egindakoa egiteko zuen laguntzarik gabe. Hirugarren irakaspen bat izango litzateke eskualdeen bultzadaren garrantzia, bueno, batzuk entzungo duzue hitz hori, eskualdea, erregional, erabiltzen den hitz teknikoak honelako egoeretan. Gure bake prozesua hara, ez da gobernu nazionalak parte hartu nahi ez duen egoera bakarria munduan, ez da bakarria, gu ez gara horretan bakarrik eta gure kasuan prozesu berritzaile bat garatu dugu non protagonismoa Véroniquek eta Andyk esan duten bezala, gizarteak berak izan zuen, bai eta alderdiek eta erakundeek eta ingelesez esaten den bezala *“it takes two to dance tango”*. Bi pertsona behar dira tango bat dantzatzeko, ba bakea eraikitzeke orduan ere bai, noski, eta baita ere bake prozesu hori eraikitzeke eta gure kasuan gobernuak dantzatu nahi ez zuenez gero, ba gizarteak dantzatu zuen eta bigarren dantzari gisa agertu zena ildo horretan azpimarratu nahi dut oso garrantzitsua dela gure gobernu eta erakunde propioak izatea ze gobernuaren inakzio horren aurrean teknikoki eskualde gobernuak deitzen direnak izan dira lekukotza hartu dutenak, hala nola Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua edo Iparraldeko Mankomunitatea zeinek beren ekintza eta euskarriekin une garrantzitsuetan babesa eman bait zieten inakzio horiei eta egoera askatzeko ekimena ere hartu bait zuten eta ez da ahaztu behar ze hemen hainbat pertsona daude Udaletxeetatik datozenak eta beraz, ez da ahaztu behar Udal askok elkarrizketa eta deskripzio prozesuak bultzatzeko egin zuten lan horretan. Laugarren irakaspena izango litzateke Etika Estrategiaren aurrean edo versus Estrategia. Badakit ez dela sekretu bat, ni bakezalea naiz. Uste dut indarkeria bidegabekoa dela eta giza duintasunaren arku egiten duela eta hori da nire jarrera etikoa eta uste dut gure herritarren zati handi batena ere hori dela. Posizionamendu etiko berbera dugula baina asko eskatzen bagenuen ere, ETA-k ez zuen indarkeria eteten, haren etika bestelakoa zen. Bere ondorioak ateratzen zuten, bere etika, ETA-ren etika desberdina zen, eta zentzu horretan jende askori entzutea gustatzen ez bazaie ere sektore politiko askori, uste dut egokia izan zela ze estrategia jorratu zen aukera berriak sortzeko bake prozesuan, hau da, eztabaida etikoarekin jarraitu ordez, bestalde ezinbestekoa baina inora eramaten ez gintuen gogoeta estrategikoa bat egin zen. Eta ETA-ri eta Ezker Abertzaleari planteatu zitzaie hausnarketa estrategikoa gehitu zitzaie. Eta bi galdera: Indarkeria haien helburu politikora hurbiltzen al zituen? Hori zan galderetako bat eta beste galdera zen: Indarkeriarekin bake prozesu berri bat bultzatzeko baldintzak jartzen ziren? Eta nik uste dut oinarri horien gainean hausnarketa eraikitzaile bat egin zela ze posible zen hala egitea eta arlo horretan zalantzarik gabe Ezker Abertzalearen lidergoa funtsezkoa izan zen eztabaida horri azken ondorioetaraino heltzeko. Eta bostgarrenez, azken irakaspen gisa nik adieraziko nuke bakearen aldeko ekosistema bat bagenuela eta saiaturiko naiz nire burua azaltzen: Gertatu den guztia Aieteko konferentziatik indarkeriaren amaiera arte eta aurreko edo ondorengo urratsak ere ez zirela hutsean eman, ez ziren alperrik eman, ez ziren bat batean gertatu. Urte askoan euskal gizartearen zati handi bat indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen aurka mobilizatua zen jadanik. Gizarteak berak ere, elkarrizketarako espazioak bultzatuak zituen eta horiek erakutsi zuten indarkeria ez zela saihestezina aitzitik indarkeriarik gabeko alternatiba demokratikoak ba zeudela gure arteko desberdintasunak kudeatzeko. Horren guztiaren

ondorioz, gizartearen gehiengoak indarkeriaren amaiera babestu zuen baita ere elkarrizketak, giza eskubideak eta biktimen babesa ere bai eta hori zen 2011 baino lehen zegoen egoera, gehiengo oso-tze handi batek oso argi zuelako. Beraz ez da indarkeriaren amaiera desiragarria zela baizik eta indarkeriaren amaiera halabeharrezkoa zen gizarte honen aurrean. Ezinbestekoa zen eta nik uste dut Aieteko konferentzia ahalegin kolektibo horien guztien gailurra izan zela, pastelaren ginda izan zela. Eta ziur nago prozesua iraunkorra izan dela, ez duela porrot egin neurri handi batean, gure gizarteak jada egina zuelako gure aniztasuna modu baketsuan kudeatzeko eszenatoki baterako bidea, egina zuelako eta jasangarria izanda atzean bazegoelako gizarte bat aspaldidanik gehiengo batean kudeaketa baketsu bat eskatzen zuela gure aniztasunean. Eta azken adibide bat jartzeko, bukatzeko, lurra emankorra zen, ongarrিতua zan jadanik aspalditik, hazia jadanik ereinda zegoen aspalditik. Eta hauek dira nire gogoetak irakaspenen inguruan, eskerrik asko.

Alberto Spektorowsky

Zer hitz egingo dut Gaztelaniaz edo Ingelese? - nahi duzun bezala.

Eskerrak eman nahi dizkiet denei esan dituztenengatik, aipatu dituzten puntuengatik. Uste dut nola-baiteko esparru teorikoa ematen digula eta badaude nik baino azalpen hobekoak eman dituztenak. Dena den, ekarpen bat egin nahiko nuke ikuspegi pertsonaletik, nik izandako bizipen batzuetatik nolabait osagarri moduan. Nik banuen, eskarmentua esan bezala Palestinan parte hartu nuelako Palestinarren eta Israeldarren arteko elkarrizketa horietan. Hortik iritsi nintzen ni gatazka honetara eta Aiete baino lehen Brian-ek eskatu zidan beraiekin joateko, izan ere, Paul ere gurekin etorri zen bilera hartara eta bilera bat egin genuen Rubalcabaren taldearekin ez Espainiako gobernuarekin baizik eta Rubalcabaren taldearekin. Prestatzen ari ziren pixka bat egoera, Aieteko konferentzia baino lehen, posizioa finkatzen ari ziren eta ni prestatu nintzen bilera hartara joateko eta pentsatu nuen, ongi, kasua aurkeztuko dut ezta? hortik hasiko naiz. Indarkeriaren amaieraren aurrean gaude beraz, momentu hau serioa da, gauza serioa da, ezta? Eta pixka bat pentsatu nuen ea zer nolako erantzuna eman zezakeen gobernuak, Israeldarrek zer esaten duten: “ez esan tontakeriarik hau ez da indarkeriaren amaiera badakigu ezetz”, beraz ni prestatzen ari nintzen konbentzitzeko baietz indarkeriaren amaiera zettorrela, puntu horretan geundela, pixka bat horren inguruan konbentzitzeko. Autodeterminazioarekin lotutako gaiak asko aipatu ziren aurreko bileretan esan zidatenez eta bazirudien horrek eten edo geldiarazi egiten zituztela elkarrizketa horiek. Guk izango genuen bilera horretan, ez ziren hitz egingo gai horiek bilera horretan eta nik beraz espero nuen jarrera hori agertuko zutela ezta? Badakigu ezta? Eta nire harridurarako iritsi nintzenez benetan beraiek ere sinetsita zeuden benetan indarkeria amaituko zenaren inguruan. Benetan sinesten zuten eta nire sentimendua izan zen tira! ba ez dut lan askorik hemen ezta? Ikusita zein fasetan zeuden, beraz hor hurrengo urratsa zetorren ezta? Zer gauza eskatuko diren, zein planteamenduak egingo diren, noski presoen gaia hor zegoen eta nik kontuan izan buruan nuela adibidez HAMAS-ek Israelgo gobernuari esaten ziola: “tira ba hau egin dezakezue eta jarraipena eskatzen dugu armagabetzeko” eta abar ez? Horrelako testuinguru batetik nentorren. Kasu honetan, testuingurua bestelako zen, gobernuak konfiantza hori zuelako eta orduan presoen hitz egin genezakeen adibidez ezta, konfiantza horretaz eta azken batean horrelako negoziatioetan estrategiak agintzen du onartzen diren ala ez eskatzen direnak. Nik bilerara iritsi nintzenez ulertu nuen ez nekiela zer nolako planteamendu estrategiko egiten zen Espainiako

Gobernuaren aldetik eta Espainiako Gobernuaren kasuan lege kontuak ziren batez ere interesatzen zitzaizkionak ez hainbeste presoen gaia ezta. Denbora guztian esaten zena zenez, legea beteko dugu, gure testuinguruan dagoen legea beteko dugu... Ez zen galdetzen zer nahi genuen zer espero genuen beraz, haien lekuan jarrita nik zer egingo nuke? Ba onartu ere proposatzen ari zena, ikuspegi estrategikotik logikoa zelako baina ez zen hala izan ezta? Beraz gogoeta horiek egin nituen nik bilera hori baino lehen eta bilera hori eduki eta gero eta ikusten nuena zen ez nuela ulertzen edo ez nuela barneratuta haien jarrera estrategikoa. Gobernu aldaketarekin berehala ulertu nuen prozesua pentsatu baino askoz korapilotsuagoa izango zela. Eta horrekin batera, prozesu hau alde bakarra izan zen ezta. Baionan izandako bilera gogoratzen duzue ezta Paul? Gogoratzen duzu nola geunden puntu batean atera -biderik gabe eta gogoan dut nola egun hartan hausnartzen genuen zein zen xedea horrelako prozesu batena eta alde bakartasuna posible izan zen hein batean erakunde propioei esker. Dagoeneko aipatu den bezala, nik ulertu nuen ezinezkoa zela Espainiako Gobernuarekin horrela hitz egitea eta askotan egoerak okerrera ere egiten zuen gobernuaren jarrera zela eta. Beraien jarrera zen, delinkuente batzuk zirela ezta? Argi zuten ez zutela nahi gatazka nazionalista izatea eta horretan tematuta zeuden beraz, bide hori itxita zegoenez, beste bat bilatu behar genuen, beste estrategia bat eta hor gertatzen dena da beste gai batzuetan sartzen garela: nola erabaki edo nork hartzen du erabakia adibidez presoak gerturatzeko? Estatuak. Eta Estatuak ez badu bide hori onartu, ezin dugu ezer egin gai horietan aurrera egiteko eta horregatik ulertu nuen jarrera alde bakarra zela, estrategikoki baliatu beharrekoa. Ez geunden hemen, edo demagun hemen gaudela Euskal Gizarteak erakunde batzuk dituelako hainbat alderdi politikorekin eta guk beti bultzatzen genuen hitz egin zezaten aniztasun horren baitan beraz zentzu horretan alde-bakarra izan arren, ez zen guztiz alde bakarra izan, hainbat eragile edo hainbat alderdi zeudelako eta nazioartetik horretan lagundu genuen. Hori normalean Estatuari eskatzen zaio baina eskualdeko gobernu baldin bada zeregin horretan diharduena, hor subiranotasun ariketa batean dago ezta? Eta nolabait legezkotasunaren langa hor dago, gertu dago eta ulergarria zen ere Eusko Jaurlaritzak hartu zuen jarrera, legezkotasunaren kontua ere hor zegoe-lako. Dena den, beste leku batzuetan ikusi dugu subiranotasuna bere egiten dutela eskualdeko gobernu batzuek eta beraz, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaz bazegoen emu gris batean legezkotasunaren mugan. Niri dena den, iruditu zitzaidan alde-bakarreko jarrera horri jarraitu behar zitzaiola Espainiako Gobernuak zuen jarrerarengatik eta ni, nire iritziz pertsonala ematen ari naiz nire oroitzapenetan oinarrituta gero agian gauza teorikoagoei buruz hitz egin dezakegu beste adituak izango ditugulako eta alderatu ahal izango ditugulako ere bake prozesuak elkarren artean. Nik dena den ikusi nuen baietz hortik jo behar genuela, ezin genuelako Espainiako Gobernuarekin hitz egin baina hor genuen Euskal komunitate osoa eta hor Foro Sozialak ekarpen izugarri handia egin zuen: Eragile sozialak, gizarte zibilak, alderdi politikoak, erakundeak... bildu egin zituelako. Indarrak batzeko baliagarria izan zan eta prozesuak oraindik indarrean jarraitzen du. Euskal Herrian askok bere buruari galdetzen diote oraindik zer gertatuko den kontakizunarekin, memoriarekin eta hori horrela da edozein gizartetan, horrelakoa da joko politikoa, Azken batean beti bilatu behar da zein den gure kontakizuna eta hor kontuan izan behar dugu prozesu horiek ez direla errazak, hainbat ikuspegi daudelako eta hemen ere noski norberaren bizipenen araberakoa da hori. Garrantzitsuena dena den da hitz egitea, hitz egitea eta aitortzea aniztasuna. Ezin ditugu kontakizunen aniztasunak baztertu, hitz egiten jarraitu behar dugu kontakizun hori eraikitzeko. Eta hemen ere politikan aspaldidanik eztabaida bat egon da adostasunak bilatzearen inguruan eta elkarriketa bultzatzearen inguruan arerioen artean ere hitz egin dezaten. Zer dira arerioak? Arerioak gara? Ez ba gara besterik gabe iritzi desberdina duten pertsonak ezta? Eta hori horrela izanda adostasunak lor ditzakegu. Beste leku batzuetan lortzen

ari dira, adibidez Israelen eta ikasi egin behar dugu desberdintasunekin bizitzen, elkarrekin bizitzen eta demokraziaren testuinguruan hitz egiten jarraitzen badugu, eta prozesuak bizirik mantentzen baditugu, nire ustez aurkituko dugu bide bat aurrera egiteko eta noizbait lortuko dugu kontakizun bat egitea. Ez naiz oso optimista ere ze ez da erreza errelato eta kontakizun komun bat sortzea, istorio bakar bat sortzea... Jarrai dezagun bien bitartean zauriak sendatzen eta kontakizun ugari izaten. Hemen hainbat eragile, hainbat alderdi ari dira lanean elkarrizketan jarraitzeko eta politikaren bide-tik jarraitzeko eta politikaren arauak jarraitzeko. Horrela funtzionatzen dut, onartzen dut zer esaten duzun, onartzen dut pertsona gisa zuk iritzi hori izatea baina jardun politikoan zu nire aurkaria zara eta orduan aurre egingo dizut ezta baina politikan. Eta funtsezkoa da joko politikoak ere aurrera egi-teko eta alderdi politikoen sistema horrek aurrera egiteko beharrezkoa da kontraste hori. Demokra-zian horrela funtzionatzen du politikak eta ez dugu horren beldurrik izan behar.

Aitzpea Leizaola

Moderatzailea

Galdera bat daukagu eta agian galderak ere eramaten gaitu orain dela hamar urteko testuinguru ba-tetara. Galderak dio: Zer egin irtenbiderako biderik ez daukan gatazka batean? Adibidez, nire herrian biztanleriaren %70ak babesten duen independentzia nahia dago baina herri hori kokatuta dagoen estatuak ez du inoiz hori baimenduko. Galdera oso zabala da, laurentzako da baina igual nik batez ere hartuko nuke lehenengo partea ez? Zer pentsatu edo nola pentsatu edo pentsatu ahal daiteke irtenbi-derik ez daukan gatazka batean? Nahi duenak erantzun dezala. Nola pentsatu, Aiete baino lehen ere pentsatzen zen irtenbiderik ez zegoela. Hori da pixka bat nik hartzen dudana galdera honetatik.

Paul Rios

Gatazken konponbideak, nik esango nuke kudeaketaz hitz egin behar dugula gatazkaren kudeaketaz ez konpontzeaz batez ere identitateaz eta subiranotasunaz ari bagara, gatazka hori berez ezin delako konpondu. Identitateak eta gure subiranotasuna ulertzeko modu desberdin horiek hor egongo dire-lako etorkizunean ere beraz, gatazka konpontzea ez dut nik hainbeste horrela ikusten. Niri iruditzen zait kudeaketa egin behar dela. Indarkeriaz kudeatzeak eta giza eskubideak urratuz kudeatzeak la-guntzen zigun arau berrietara iristen eta garai berriak zabaltzen? Nire ustez erantzuna da ezezkoa. Orain baditugu gakoak kudeaketa hobe bat egiteko eta adostasun puntu gehiago aurkitzeko? Esango nuke baldintzak hobeak direla. Orain duela hamar urte edo duela hogeit hamar urte genituenekin alderatuta. Bestalde, guri dagokigu alderdi politiko gisa, eragile gisa, gizarte zibil gisa, nola bideratu nahi dugun, zer nolako irtenbide eraikitzaile proposatu nahi ditugun baina hor gurea da ardura eta erantzukizuna ezta? Eta nik esango nuke hemen baldintzak genituela izan genituenean, aurretik ez.

Andy Carl

Ez da erraza erantzutea. Guk hainbat prozesuren inguruan hausnartu dugu eta dokumentatu ditugu eta ikasten duzu nola gertatzen diren une erabakigarri batzuk, aldaketa batzuk eta guk ikusi genuen

Conciliation Resources-en, gertatzen direnean horrelako mugarriak, aldez aurretik ez dela jakiten berez nola ebatzi egoera bat, nola gainditu gatazka bat. Ez genekien nola egiten zen eta guk lan egiten dugu atzera begirakoarekin ezta? Ikusten duzu bake prozesua eta ikusten duzu ekimen jakin batzuek funtzionatu dutela eta niretzat interesgarria da gogoan izatea gertatzen ari den horretan ziurgabetasunarekin, zalantzekin lan egiten dugula eta egin behar duguna da esperimintatu, probatu gauzak eta batzuetan gauzak nolabait lerrokatu egiten dira eta funtzionatu egiten dute eta funtzionatzen ez dutenak bertan bera gelditzen dira, bidean galtzen dira ezta? Eta guk esaten dugu prozesuak direla hauek ez gertakizunak eta noski beti gertakizunetan arreta jartzeko joera dugu baina prozesuez ari gara eta uste dut argi izan behar duguna da zein den gure helburua eta bidea hori dela ezta? Eta batzuetan oztopoak agertuko dira gure bidean baina argi izan dezagun zein den helburua, zein den bidea eta egin dezagun aurrera urratsez-urrats eta atzera begiratzen dugunean horixe ikusten dugu, zenbat urrats txiki egin ziren bidean eta iruditzen zait zaila dela lan honetan esatea: hau al zen lor genezakeen guztia, ezta?

Uste dut kontuan izan behar dugula iraganetik datozen arazoekin, gatazkekin ari garela lanean. Askotan belaunaldi askok jasan dituzten gatazkekin beraz, hori ezin da bere ahala konpondu, denbora behar da. Nire ustez erroka nagusia da ez geratzea hor etenda, ez geratzea ez aurrera ez atzera eta benetan sinestea ezinezkoa dela, ezin dela ezer egin. Horrelako egoeretan sentitzen garenean uste dut atzera egin behar dugula gure elkarrizketak aldatu eta gure jarrerak aldatu. Bizitzan ere horrela gertatzen da ezta? Eta iruditzen zait interesgarria dela ikustea nola beti, nahiz eta testuinguruak oso zaila denaren itxura izan, badaudela bideak aurrera egiten jarraitzeko ezta?

Véronique Dudouet

Bi pentsamendu aipatu denari dagokionez: maila teknikoan, guk hitz egiten dugu mekanismoez ezta, eten horiek gainditzeko. Espazioak sortu behar dira, batzuetan arazo batzuk egoten dira oso erraz ebatzen direnak eta beste batzuk oso gogortuta egoten dira eta horietan zaila izaten da pixka bat aurrera egitea. Hor askotan ideia bikainak sortzen dira ezta, pixka bat polarizaziotik urruntzen garenean eta hor garrantzitsua da ere entzutea lortzen diren ideiak eta probatzea ia funtzionatzen duten eta hori bada mekanismoetako bat, probatzea. Eta Paulek ere esan du, gatazkak ez direla konpontzen baina nik ez dut esango kudeatu egiten direnik ere ez. Nire ustez, eraldatu egiten dira, hori gustatzen zait niri. Nola parte har dezakegu gatazka batean elementu eraldatzaile horrekin, nola lan egin dezakegu trantsizio horretan, fase politiko horretan ezin badugu aurrera egin independentziarekin gertatzen den bezala. Ba uste dut hor testuinguru inklusiboak behar ditugula eta osasungarriak. Armak ez badira ekuazioan sartzen, elkarrizketak aurrera egin dezake guztiokin. Nire ustez hori garrantzitsua da eraldaketa bat lortzeko gatazka batean.

Alberto Spektorowski

Uste dut galdera oso ona dela, asko egokitzen zaigula nazio subiranotasunaren inguruko gaiekin lan egitea ezta? Mundu ireki batean gaude, mundu global batean eta hor subiranotasunaren gaiak pil-pilean daude eta nik esango nuke globalizazioa dela eta, hain zuzen ere, migrazio mugimenduei dela

eta batez ere, gehiago dugula identitate nazionalaren beharra handiagoa dela eta kasu honetan identitate Gales bat, Euskaldun bat, Katalan bat... ez da gaur egun datorkigun zerbait baina etorkizunera begira esango nuke hortik doala Europaren etorkizuna, pertsonen Europa hori identitateekin lotuta egongo dela, hain zuzen ere globalizazioaren ondorioz. Uste dut gaur egun inork ez duela pentsatzen globalizazioa dela mugarik gabeko mundu bat, uste dut hain zuzen ere, kontrakoa gertatzen ari dela. Inoiz baino garrantzitsuagoak direla identitate nazional horiek eta badagoela ez soilik autodeterminazioarako eskubidea baizik eta autodeterminazioarako beharra. Hori da pixka bat nik dudan ikuspuntua.

Aitzpea Leizaola Moderatzailea

Amaiera emateko mahai honi pixka bat laburbildu nahiko nituzke agertu diren hainbat auzi. Hamarkada batera atzera joan gara begira, aipatu dira eragileak, prozesua bera nolakoa izan behar zuen edo zer nolako desira zegoen hasiera batean eredu klasikoaren bilateraltasun horren huts egindakoan nola egin aurrera, unilateraltasuna edo aldebakarrekoa eta multilateraltasunaren arteko eztabaidak egon dira, nik uste hor esparru teorikoan oraindik ere nahikotxo idatziko dela hemengo bake prozesuaren inguruan maila teorikoan. Eragileak, gizarte zibila aipatu da ere, ezinezkoa zen hori buelta eman eta aukera bihurtu eta hor zuek aipatu duzue behin baino gehiagotan, aukeretaz hitz egin duzue, posibilitateaz... Badago hor euskarazko atsotitz bat, *Ezina ekinaz egina*, nolabait ere Véroniquek aipatzen zuen berrikuntzarako eta eredu berri edo imajinazioarako esparruen garrantzia baina baita ere arriskua aipatu duzue zuek denak praktikan eta arriskua aipatzerakoan nolabait ere itzalean gelditu da eta igual horrela gelditu beharko du oraindik ere hamar urte gutxi delako egindako sukalde lana eta sukalde lan handia dago nolabait ere oraindik ere jende aurrean aipatu ezin daitekeena baina baita ere mugarrak: Aiete izan dugu horietako inportanteena eta bidea. Eta nik uste dut Andyk aipatu duen kontzeptu batekin - denborari erreparatzen ari garen, atzera begira ari garen, iruditu zait oso inportantea “bitartea” esan duenean, bitartean, “*in the meantime*”, bitartean gauzak egiten jarraitu behar hori, ez? Etenik gabeko prozesu batean murgilduta gaude. Hamar urte pasatu dira baina prozesuak oraindik bidea jarraitzen du eta honen berri entzungo dugu edo honen inguruan jardungo dira ondorengo mailan Aietek suposatutuen erronkak jorratuko dituzten hizlariekin. Nire aldetik ba eskerrik asko zuei denoi, lau hizlariok noski eta aurrerantzean elkar ikusteko aukera izango dugulakoan ba nahi duzuen arte.

Etenaldia

Nekane Altzelai Aurkezlea

Bigarren mahai inguruari emango diogu hasiera. Datozen erronkei buruz hitz egingo digute beraiek Euskal gatazkak irtenbidea lortu dezan hurrengo erronken inguruan zer proposatzen duten, hori izango dute aztergai bigarren mahai honetan eta moderatzaile lanetan Jonathan Cohen izango dugu, bera Conciliation Resources-eko zuzendari exekutiboa da eta azkenengo hamar urte hauetan ere jarraipen zuzena egin dio Euskal prozesuari. Beraz, zuena da txanda:

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko eta espero dut denak ondo funtzionatuko duela soinuaren kontua pixka bat oso arraroa da niretzat ze mikrofono batetik hitz egin behar dut eta gero entzungailuak erabili behar ditut. Mahai inguru zoragarri bat entzun dugu, irakaspenen inguruan, bukatu berri den mahai inguru horretan eta benetan zoragarria iruditzen zait paradoxa horiek entzutea. Pazientziak zenbaterainoko garrantzia du eta baita ere inpazientziak, ezin egon horrek, hau da, denak buru gogorrek izatea eta aldi berean ere malguak eta orain erronkei buruz hitz egingo dugu. Zer erronka ditugun mahai gainean, zeintzuk ditugun eta zeintzuk izango ditugun etorkizunari begira. Atsegin handia niretzat lau hizlari hauek aurkeztea, oso anitzak gainera oso desberdinak eta ikuspegi desberdinak ere eskaini ditzaketenak, iritzi desberdinak ere bai. Alde batetik Agus Hernan dugu lehenik eta behin. Agus Hernan-ek ekarpen handia egin du armagabetzean eta ETA-ren disolbatzean, desegitean eta baita ere preso dauden pertsonen aldeko lanean. Gero hitza emango diot Robert Manrique-ri.

Robert Manrique bizirik irten zen Bartzelonako Hipercor-en atentatuan 1987an. Izan zen atentaturik okerrenetako bat une hartara arte, gatazkan, Euskal gatazkan. Robert Manrique-k ere hainbat biktimekin lan egin du eta bizitza eskaini du biktimekin lan egitera eta hainbat topaketetan parte hartu du, Foro Sozial Iraunkorra kontuan hartuta. Eta gero ere atsegin handia da niretzat Karmen Galdeano Prieto izatea. Karmen Galdeano presoen defendatzailea eta bere aita erail egin zuen GAL-ek 1985ean eta Karmenek hainbat topaketetan parte hartu du ere, ETako biktimekin egindako topaketetan. Eta Brian Currin ere dugu gure artean, abokatu bera, Hego Afrikarra. Nelson Mandelak eskaini zion ikerketa batzorde baten buru izateko Apartheid-ren inguruan eta baita ere egiaren batzordearen sorkuntzan parte hartu zuen Hego Afrikan. Eta gero baita ere bitartekaria izan da prozesu askotan, Ipar Irlandan esate baterako eta baita ere irudi funtsezkoa izan zen harremanetarako Nazioarteko taldea sortzerakoan Euskal Prozesuan parte hartu zuena. Beraz, lau ikuspegi desberdin ditugu eta oso interesgarri ere bai. Saiatuko gara parte hartze laburrak egiten. Lau bost minutukoak mahai inguruko parte hartzaileen aldetik eta gero hitz egingo dugu gai funtsezkoenaz eta gero galderak hartuko ditugu publikoaren aldetik. Beraz mesedez planteatu zuen galderak eta horretarako denbora izango bait dugu, azken ordu erdia eskainiko diogu galderak erantzuteari baina bueno besterik gabe, atzerapen gehiagorik gabe eskatuko diot Agus-i hasteko mesedez. Agus, gustatuko litzaidake, bueno nik marko edo esparru bat eskaini nahi diot lehen hitz horiei, kazetaria zara, ekintzailea zara Gizarte Zibilean eta lan egin duzu soluzio inklusibo bat bilatzeko gatazkan. Jakin nahiko nuke pixka bat zeintzuk izan diren zuk aurkitu dituzun mugak, muga zailenak, zailtasun handienak prozesu honetan guztian eta zein den zure ikuspegia jakiteko nola eraiki daitezkeen zubiak etorkizunera. Nola egin dezakegu aurrera?

Agus Hernan

Egun on! Eskerrik asko denoi etortzeagatik. Foro Sozialaren ordezkaria naizen aldetik, denoi esker-tzen dizuet. Nik uste dut bi elementu daudela, bi zailtasun daudela oraindik ere presente daudenak. Foro Sozialak asko defenditzen du erdiko karrilaren, erreiren kontzeptu hori, hau da, desberdintasun politikoaren artean eta baita ere, errei zentrala, hau da, bi kuestio azpimarratu nahi nituzke horretan. Errei, karril horrek presio asko sufritzen ditu. Kontatuko ditugu gauzak ahal dugunean eta

alderdi askok presio handia egiten dute karril horren gain. Hortik aterata beste espazio baten sar zintezten. Nik uste dut Foroaren indar-gunerik handiena dela, ez duela bakarrik aniztasuna oso zabal bat biltzen ez dago bestelako espaziorik. LAB, ELA, CCCOO, elkarrekin daudenik eta Nafarroan ere Alderdi Sozialista ere parte hartzen duena. Beraz, hori da gure indar-gunea, hain parte hartze-zabala izatea eta askotan bizi ditugun eztabaida garrantz horien ondorioz batzuetan zailtasunak izaten ditugu errei erdi horretan izatea eta Foroak ez du inoiz interpelutzen, ez du inoiz balorazio bat egiten eta oinarritu egiten da bakarrik proposamenak egiten blokeoa gainditzeko. Hori da erdiko erreia eta horrek utzi digu hona iristen, iritsi garen baldintza hauetan. Esaten ari naizen bezala baldintza gogorretan batzuetan hainbat eztabaida politiko ikusten ditudanean prentsan, ematen du okerrago gaudela duela hamar urte baino, beste batzuetan askoz hobeto gaudela. Aldebakartasunaren, alde aniztasunaren eztabaida, nik uste dut orain alde askotako prozesu batean gaudela: Euskal Prozesu batean, Nafar Prozesu batean baita Iparraldean ere bai. Zer esan nahi du alde aniztasun horrek? Eragile askok parte hartzen dutela eta ekarri, eskaini egiten duela bakoitzak bere espaziotik. Hiru errei dira paraleloan doazenak baina denak prozesu bereran daude. Alde aniztasunaren ideia horretan atzo entzun nuen aldebakartasunaren ideia nik sekula interpretatu ez nuen modu batean. Hau da, Euskal Herria, Espainiar Estatua eta beti interpretatu nuen alde aniztasunaren ikuspegia ba urrats ematek, batek ematen duen urrats horretatik eta atzo mahai inguruan askok insistitu egin zuten ideia horretan aldebakartasunaren ideia nik uste dut prozesu inklusiboaren ideia hori ba nik horrela azaltzen dut: niretzat eskailera bat da eta hor urratsak ematen dira eta une batean hor gelditu batera iristen gara, nola lortu den preso kasuan akordio bat alderdi politikoen, sindikatuen aldean urruntzea defenditzetik pasatu gara, normaltasunaren aplikazio baten eskaria egitera, espetxe politikan eta salbuespenezko egoera gainditzea. Eta hirugarren maila bada integrazio akordio bat lortzea zeinean preso dauden guztiak sar daitezten espetxe legaltasunaren. Horrek guztiak hainbat maila eragin ditu eta hor oinarrituko kanpamenduak ere sortzen ditu gure egoera honetan eta nolabait sortzen ari dira kontsentsuak. Behin entzun nion aditu bati, gatazken ebazpenean aditua zen bati esaten, guk bake prozesu klasikoetan, hau ez da prozesu klasiko bat, ze Osloko mahaia bukatu zenetik ez da nazioarteko bake akordio integral bat egon. Pertsona horrek esaten zidan: Beharbada eraginkorragoa da horrela ze ikusten ari gara akordioetarako marko orokorrak adibidez Habanako inplementatzeko orduan ba zailtasunak izan ditu hau da, lehen ikasi adostasunak sortzen eta hor hasi zen lehen Foro Sozialean hamabi gomendioen inguruan. Horrek pixkanaka indar garrantzitsuagoa hartu zuen ETaren armagabetez zibilarekin. Hegoaldeko eta Iparraldeko indar asko elkartu ziren arraun egiten norabide berean, helburu bakar batekin, gertakari horren amaiera izatea etsai asko eta zailtasun asko izan zituenak. Gero gainera ETA-ren disoluzioa, orain ere gertatzen dena, eta baita ere preso gaira, biktimen gaira eta baita ere memoria kritika inklusibora. Hor geldituko naiz zure galderari erantzunez.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko, nik uste dut oso hasiera ona izan dela gure eztabaidarako. Robert, zure bizitza betirako aldatu zen ez, atentatuaren ondorioz, 87ko atentatuaren ondorioz. Beraz, bakearen ibilbideaz pentsatzen duzunean zeintzuk izan dira erronka nagusiak biktimentzat?

Robert Manrique

Beno, hasteko esan, ni hemen nagoela, hizketan ari naiz Robert Manrique gisa ari naiz hizketan baina etorkizunari begira eta iraganari begira planteatzen ari naiz gauzak ikusteko modu bat biktima askok partekatzen duguna baina ez naiz biktimen izenean hizketan ari. Zoritxarrez batzuek hitz egiten dute biktimen izenean, nahiz eta ez diguten inoiz iritzia galdetzen, beraz asko harritzen nau biktimei buruz hitz egitea, ez bagaituzte ezagutu ere egiten, beraz argitu nahi dut hasieratik esateko bai biktima askok partekatzen dugula orain esango duguna eta nik errespetatu dezakedala beste biktima batzuk pentsa dezaketena nahiz eta nire izenean ez izan ze nik ez dut ordezkariarik, hori oso argi daukat. Hori esan ondoren, kontzeptuak argituz, biktima askok, atentatu terrorista izan genuenetik, ETA- ren biktimak edo GAL-en biktimak edo GRAPO-renak edo Terra Lliure -renak edo Milizia Katalanarena, edozein banda terroristak, bueno hogeita hamalau urtean banda terrorista askotako biktimak ezagutu izan ditut eta beti helburu bat izan dugu partekatuta: Lan egitea, saihestu ahal izateko beste pertsona batzuk, zoritxarrez ere guk pasatako sufrimendua pasa ez zezaten. Urte askotan gauza asko ikusi ditugu gustatu ez zaizkigunak noski, begi bistan dago. Bake prozesuaren bidean, azkenean lortzea ETA desagertzea hori lan konplikatua izan da eta lan konplikatua izan da zentzu batean: Aurre egin behar izan diogu ez bakarrik alde kontrakoei, hau da terroristei baizik eta baita ere borroka egin behar izan dugu gehiegitan nire iritziz, gure aldekoa zen horren kontra edo pentsa genezakeena, kasu honetan administrazioa, lagundu behar zuen administrazioaren kontra egin izan dugu, eta oraindik ere gehiago borrokatzen gara administrazioekin eta ez terroristekin. Nik terroristarengatik ez dut ezer espero, hori argi dago baina Estatuaren aldetik bai noski eta zoritxarrez Estatuak ez du laguntzen, ez du asistentzia integral bat ematen biktimen kolektiboari, kontutan hartu gabe zein izan den egilea, egile terrorista. Beraz, bide honetan bidea zaila izan da? Bai noski. Lehen Agus-i galdetu diot atzo ikusi nuenean jardunaldiko logoa, esan zidan, bueno hamar urteko logoa da esan zidan bai, oso ondo bikain ze leiho bat da irekita dagoena etorkizunera, itxaropenera, argitasunera... Beraz, gogora ekartzan dit Katalunian egin zen lehen eskultura hura, biktimen oroimenean egin zena, hain zuzen ere, leiho bat zen brontzezko leihoa. Zer lortu dugu? Lortu dugu leiho hori irekita mantentzea, lortu dugu leihoa irekita egotea nahiz eta zoritxarrez gaur egun pertsona askori gustatuko litzaiokeen, leihoa ixtea, itxaropenari leihoa ixtea giltzarrapo bat jartzea leihoari eta inork ez irekitzea. Ez da biktima askoren planteamendua, biktima askok lanean jarraitu nahi dugu leiho horrek irekia iraun dezan. Horretarako onartu behar ditugu gutxiago edo gehiago gustatzen zaizkigun gaiak baina onartu beharra dugu. Hori da legea, hori da araudia eta bestela exijitzen dut legeak babez nazala nahi dudanean baina orduan ere esan beharko dut legeak ere babestu egin beharko dituela besteak nahiz eta niri ez gustatu. Hemen kontua da positiboak izatea lanean jarraitzeko aurrera begira eta sufrimendu gehiago saihesteko. Zoritxarrez ez da ezezaguna badagoela beste terrorismo bat askoz ere okerragoa, hau da, askoz aleatorioagoa, ausazkoagoa dena, Yihadista jatorria duena eta horren kontra ere lanean jarraitu behar da baina oraindik ere konbentziturata gaude, gutxienez ETA-en aldetik ez dugula sufrimendu gehiago izango ezta oinaze gehiago izango. Hori oso garrantzitsua da, ikusi nahi ez duenak, azaldu dezala zergatik ez duen ikusi nahi. Egon daitezke ideia politikoak noski, egon daitezke partiduen ideiak, hori argi dago baina Agusek eta bere taldeak gonbidatu nindutenean ba azterlan txiki bat egin nuen, agenda errebisatzen hasi nintzen eta konturatu nintzen nire eginkizuna aholkulari gisa, laguntzaile gisa, biktimen adiskide gisa, nire terrorismoaren gaian sartzen dudana lanaren %95 eskaintzen diodala eta %5 erabiltzen dut politikariekin hitz egiteko eta esan dezaket gehienek ez dutela ezertxo ere egin beraz nire eginkizuna eta biktima askoren lana batez ere da laguntzea elkarren artean baina

helburu batekin: nahiz eta oinaze hori bizi izan dugun eta hor gelditzen den eta inork ez duen konponduko, saiatuko gara oinaze gehiago saihesten. Hori da biktima askok argi utzi nahi duguna. Bidea zaila izan da? Ba ez dakizue ondo... 87.urteetik nabil bide honetan eta badago jendea lehenagotik dabilena honetan eta geroago ere bai eta elkarrekin lan egiten dugu eta nik beti argi dut biktima askok ez ditugula bereizketak egiten biktimen artean. Niri Hipercor-ekoa gertatu zitzaidanean, inork ez zidan aurreko egunean galdetu: Bueno zuk Hipercor-en lan egiten duzula, nori ematen diozu botoa eta zeini ematen nionan arabera bihar ez joan ze kriston saltsa egingo dugu bihar. Zergatik egon behar dugu planteatzen biktimak egon behar dugula beti ideia beraren atzean, bandera beraren atzean? Ez, ez, horrela ez da kontua. Beraz aniztasuna eskatzen dugu errespetatzea eta errespetatu nadila, hori eskatu dugu urte askotan. Badakigu zaila dela ze interes asko daude tartean baina badakigu ez dela ETA-ren atentatu gehiago izan eta hori da biktima askoren helburua ETA-ren biktima askoren helburua. Hau da 30 urteko ibilbidea.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Gero nahi baduzu hitz egingo dugu gehiago. Eskerrik asko Robert, mezu oso potentea, eskerrik asko. Eta orain hitza emango diot Karmeni; Karmen, zuk ere galera pertsonal bat izan duzu gatazkaren ondorioz eta baita ere presoekin lan egin duzu eta beraz ikusi duzu espektrua osoa, esperientzia askoren espektrua bat. Zuretzat zeintzuk izan dira erronka kritiko eta funtsezkoak oreka horren artean, bakea eta justiziaren artean?

Karmen Galdeano

Beno, ezer baino lehen eskerrik asko zuen gonbidapenagatik eta beno, bai hasi nahi dut be bai eskerrik ematen Robertori, ze bueno urteak dira elkar ezagutzen dugula eta badakit jende askok harriduraz hartuko duela daukagun harremana baina seguru gure arteko harremana beste biktimen kolore bereko biktimen edo hori adierazten diguten biktimen arteko harremana baino gurea askoz hobeago dela, ez? Gogorra izan da gure arteko elkargune hauek gaitzitzea baina benetan merezi du eta horregatik ere pixka bat gu gaude hemen gizartea bide honetatik animatzen jarraitzeko. Azken hamar urte hauetan kokatzen dugu gure burua eta gure abiapuntua. Guk orain dela hamar urte, Estatuko biktima moduan ez ginen existitzen eta orain existitzen gara, behintzat gure testigantzak, ni neu hementxe nago ez? Aietek egindako deklarazioan, biktima guztiak onartu eta lagundu behar zirela eta eragindako mina onartu behar zela aitortzen zen biktimen esparruan. Horrela gu sortu ginen eta bide horri eusten saiatu izan gara lan potentea egiten, biktima guzti horiei hitza eman nahian, testigantzak bilduz. Onartu behar dugu ere, Estatutik ate guztiak itxita egon badira ere, bai Nafarroan eta bai Gasteizeko parlamentuaren aldetik, Gasteizeko instituzioen aldetik ere legeak aurrera ateratzea, kostata eta oso murriztuak zentzu askotan arazo askorekin baina hortik abiatuta testigantza horiek ateratzen ari gara eta bai orain uste dut inork ezin dezakeela esan hemen biolentzia bakarra egon denik. Gure lana da biolentzia hori mahai gainean jartzea, horrela uste dugulako, azken momentu batean Estatuak bere ardurak onartu behar dituelako. Gu existitzen garen heinean, inork ezin digu esan polizia batzuen nahia izan dela edo abusu polizial horien barruan kokatu behar gaituztenik. Hemen estatuak

eta instituzioak atzean egon dira. Gu zaintzeko ziren estatu eta gobernu horiek gure kontra jo zuten, diru publikoa erabili zuten gure kontra, estrategia oso bat erabili zuten gure kontra eta hori mahai gaineratzea izan da azken hamar urte hauetan gure lana. Eta bueno, bitarte horretan ere, bilgune asko egin ditugu, parte hartu izan dugu beste biktima askorekin, eta oso gogorra izan bada ere, bueno nik uste dut, merezi izan duela gure aitortza txiki hori lortu nahian. Baina egia da baita ere oraindik oztopo gehiegi dauzkagula aurrera ateratzeko legediaren inguruan eta diskriminazio horrekin ere bukatzeko garaia badela eta hori uste dut erronka bat izan beharko litzatekeela.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko Karmen. Pribilegio bat da, bai zu eta bai Robert entzutea. Ongi! eta orain Brian-ni eman nahi diot hitza. Lehen esan dut, zuk parte hartu duzu hainbat bake prozesutan eta lan egin duzu hainbat egoeratan. Egoerak elkarren artean desberdinak dira baina baita ere antzekoak, beraz, zuk nola ikusten dituzu hemengo erronkak, egon direnak eta oraindik aurretik ditugunak eta nola eragiten diote aurrera egiteko aukerari?

Brian Currin

Egun on eta eskerrik asko hemen parte hartzeko aukera emateagatik. Nik parte hartu nuen egiaren batzordearen topaketa horretan Hego Afrikan. Adiskidetzaren alde lan egiten zuten eta biktima asko ordezkatzeko zituen, estatu indarkeriaren biktimak eta Hego Afrikaren testuinguru horretan esango nuke, Estatuaren biktima horietako batzuk terrorista zirela, niretzat terroristak ziren, nik horrela deskribatuko nituzke. Segurtasun indar bateko kidea izatea etiketa bat baino ez da. Zu zarena zure barruan dago eta horren adibide bat emango dizuet: Polizia bat geratuta zegoen jasotzeko “Combi” bat, eztaikit hemen nola esaten diezuen, garraio horietako bat ezta, autobus txiki horietako bat. Eta bera joan behar zan jasotzera autobus horietako bat eta autobus horretan gazteak zeuden 15 eta 21 urte bitartekoak gehienak 18 urte ingurukoak eta konbentzitu zituen berarekin joateko. Berak esaten zien aterako zituela herrialdetik, entrenatuko zituela Estatuaren aurka borrokatzeko, bidaiari ospatzen joan ziren eta garagardoak eman zizkien. Garagardoan drogak sartu zizkien eta mugara iritzi zirenerako denak konortea galtuta zeuden, dinamita mordoa sartu zuten autobusean eta ezandarazi egin zuten. Eta horiek indar armatuen agenteak ziren, Estatuaren indarraren segurtasun agenteak ziren. Hori Hego Afrikan gertatu zen eta nik beti diot, etiketek ez dute inporta, inporta duena da zer egiten duzun edo zer egin zenuen. Berdin zait askapen mugimendu baten parte bazara, polizia baldin bazara, bardin zait, jokabidea da axola duena. Eta Hego Afrikako egiaren eta adiskidetzaren batzordea ez zen prefektua izan noski, baina garrantzitsua izan zen adiskidetze prozesu batzuk abian jartzeko. Eta izugarria da entzuten dudanean, nola da Roberto edo Robert? ados Robert, entzuten dudanean Robert edo entzuten dudanean Karmen hitz egiten, hemen gaudelako Aiete baino hamar urte geroago eta ikusten dugu nola Estatuak ez duen ezer egiten legatuaren arazoak konpontzeko, adiskidetzea, erreparazioa lantzeko eta haiek dira, biktimak dira aktibista bihurtu behar direnak estatua konbentzitzeko zerbait egin dezan eta elkarri lagundu behar dute biktimen adiskidetze hori eraikitzeko. Gauza benetan izugarria iruditzen zait. Eta biktimen gaia iruditzen zait ardatza dela, erdigunean dagoela,

muinean dago eta hor presioa egin behar diezue, Estatuari, lider politikoei... Esan behar diezue: aiezue, ez zarete ezer egiten ari! Presionatu beraiek bilatu ditzaten moduak gaiak heltzeko. Eta gauzak okerrera egiten dute, biktimekin lotutako guztia politikan erabiltzen denean futbol partida bat izango balitz bezala ezta? Erabilkeria hori izugarria da, horrek sufrimendua areagotu egiten duelako eta bilatu behar da modu bat biktimen tratamendu hori despolitizatzeke. Atera egin behar dugu eremu politiko horretatik. Ezin diegu utzi politikariei gai hori ustiatzen. Eraginkortasunez, azkar jorratu behar da gai hori, objetibotasunez. Ez da nire lana esatea nola egin baina uste dut hori eskatu behar duzuela. Hori ez bada egiten, datozen hamar urteetan, orduan iruditzen zait, gauza guztiz onartezin batetaz ariko ginatkeela. Beste erronka bat, nik beste erronka bat ikusten dut hemen eta holakoa da: heldu egin behar zaio dibertsitateari, kudeatu egin behar da dibertsitatea eta behin eta berriz aipatu da, dibertsitate hori, aniztasun hori, Euskal Herrian dagoen aniztasun hori, Iparraldean, Nafarroan, Euskal Autonomia Erkideagoan, badira euskaldun sentitzen ez diren pertsonak ezta? hor badago sekulako aniztasuna eta honek niri gogora ekartzen didana da edo iradokitzen didana da, etorkizunera begira dagoen erronka bat. Egia da iragana landu behar dela kontakizun bat egin behar dela baina energia ere, beharko dugu, erregaia beharko dugu ere aurrera egiteko eta etorkizunera begirako lana egin ahal izateko. Eta batzuei polemikoak iruditzen zaizkio nire baieztapenak bake prozesutik urrunez daudenentzat batez ere, baina badaude proiektu egingarriak, energia hori izan dezazuen eta nazio bat eraiki dezazuen. Askok pentsatzen dut esango didazuela, “eta nola eraikiko dugu ba nazio bat”? “Independentzia behar dugu hori egiteko ezta”? baina ez da horrela. Nazio baten espiritua sor dezakezue. Nazioa eta estatua bereizi behar ditugu, ez dira gauza bera. Eta iruditzen zait guztiok hausnartu beharko genukeela Euskal gizartea denaren inguruan, zer da eta nolakoa izango da adibidez lurralde hau hamabost urte barru? Zer egin daiteke orain Euskal Herriaren identitate hori lantzeko bere aniztasun guzti hori baitan hartuz? Nire ustez ohartzen gara, badakigu gure seme-alabek ez dutela gure pentsamolde berbera, beraz, hor dugu erronka hori aurretik. Aniztasuna kudeatu beharko dugu eta kontuan izan beharko dugu gure seme-alabek, bestelako iritziak, bestelako ikuspegiak izango dituztela. Eta hor dator eraldaketaren kontzeptu hori. Eraldaketarekin lan egin dugu ezta, kontzeptu horrekin eta eraldaketaren inguruan esan ohi da erakundeak eraldatu egin daitezkeela baina nik gutxienez bi hamarkada lan eman ditut eta ikusi dut eraldaketa gertatzeko pertsonaren barrua eraldatu behar dela eta hori gertatzen ez bada, pertsona batek ez badu aldatzen bere iritzia besteei buruz, identitateen politikak ez dira eraldatzen eta prozesuak sakonekoak dira, iraunkorrak eta zaila da atzera egitea eraldaketa prozesu horietan. Iruditzen zait oro har, eta ez bakarrik Euskal Herrian ditugun erronkak kontuan hartuta, aniztasuna eta aniztasunaren integrazioa guztion erronka bat dela. Denok hasi behar gara besteen inguruan pentsatzen, hausnartzen eta aitortzen besteak ez direla gu bezalakoak eta hori aplikatzen da mundu osoan baina baita ere Euskal herrian, beraz, esan bezala, ez duzue subiranotasunaren zain egon behar, nazio espiritua eraikitzeke. Hasi pentsatzen nolakoak izango zareten nazio Euskaldun bezala hurrengo hogeitahamar, berrogei, berrogeita hamar urteetan... Uste dut Albertok aipatu duela ezta, Europa eta Europa nola aldatuko den eta nola erabakigarriak izango diren komunitateak eta haien identitateak beraz, hasi pentsatzen zuen nazio horretan, zer egin nahi duzuen, nola eraiki nahi duzue? eta horrekin batera eta eraikuntza lan horrez gainera, legatuarekin lan egin nahi baduzue, iruditzen zait etorkizunera begirako lan horrek ere, indarra eta erregaia emango dizuela iraganaren lana egiteko.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko eta horien eraikuntzarekin lotuta ere Agus, Brianek proposamen bat egin du eta aipatu du ze garrantzitsua den biktimen arazoa eta adiskidetzaren esparru politikotik ateratzea eta eragin-kortasunez lantzea. Hitz egin dugu ere identitate berria eraikitzeaz. Brianek aipatu du nazio espiritua eraikitzeaz... Zure iritziz nola egin dezakegu aurrera abiapuntua hau izanda Aietetik hamar urte igaro direnean?

Agus Hernan

Biktimena bada orain dugun erronka handienetako bat. Uste dut ez dugula ondo ulertzen zenbat aurrera pauso eman ditugun. Gogoratzen dut duela hamar urte edo, GOGORA-n egon nintzela eta Mikel Zabaltzaren senideekin elkartu naiz bi bider; bat Nafarroako parlamentuan izan zan eta esaten zieten ez zutela inolako aitortpenik jaso erakundeen aldetik eta GOGORA-n elkartu ginenean esan zuten aitortza hori jaso zutela. GOGORA-n lan egiten da gai horrekin Euskal Autonomi Erkidegoan eta horrek erakusten digu zenbat aurrera pauso eman diren baina gaur egun ez zaio baliorik ematen. Nire ustez bai Nafarroan eta bai EAE-n alderdi politiko guztiek eta esango nuke Iparraldean ere, onartu egiten dela nazio arteko estandar hori zeinaren bitartez biktima guztiek dute aitortuak eta erreparatuak izateko eskubidea. Lehen biktimen justiziaz hitz egiten zenean, kasuak berrirekitzeaz hitz egiten zela ulertzen zen, konfrontazio ziklo horrekin jarraitzeaz. Beraz hor urratsak eman dira baina lantzen ari gara ere aitortza ofizialarena, ETA-ren biktimek aspaldidanik dituzte legeak. Estatuaren biktimentzat ere lekukotza jasotzen hasi dira nahiko azkar Autonomi Erkidegoan, Nafarroan badute ETA-ko biktimen legea eta espero dugu urte amaiera baino lehen Estatuko biktimentzako lege bat ere egotea. Beraz, esparru ofiziala, hor dago testuinguru ofizial hori badago. Aste honetan alderdi politiko baten arduradunak hitz egin du artikulua batean bere alderdiaren biktimei buruz bakarrik, beraz, niretzat harrigarria da oraindik ere, gaur egun bigarren mailako bezala sentitzea Estatuaren biktimak. Eta elkartu gara hainbat biktimekin eta esaten dute: ez dugu ezer espero justiziaren aldetik, baina behintzat nolabaiteko aitortza espero dugu eta iruditzen zait funtsezkoa dela gainditzea iruditeria kolektiboaren bitartez, biktimak aipatzean, jendeak ETAn biktimez ari garela ulertzen duen. Biktima guztiez hitz egin behar dugu, alderdikieriaz betetako iruditeria hori gainditu behar dugu edo aldeetan oinarritutako biktimen irudi hori ezin dugu hitz egin gure biktimez. Aietetik hamar urte igaro direnean, biktimak guztionak dira, gizarte osoarenak. Robert eta Karmen gehiago daude, askoz gehiago baina badira adibide on bat. Ez da erraza izan egoera honetara iristea, lan handia egin behar izan dugu. Foro Sozialak biktimen topaketak antolatu zituen, bizpahiru urte eskaini zizkion berariaz hori lantzerantz eta asko dira hor lan egin duten pertsonak. Eta gaur egun horrelako foroetan eta kongresuan ere Sanchezek Maria Jauregiren txio bat ekarri zuen eta besteak Rosa Lluch-ena beraz, konfrontazioa ezta, eta gure ahotsa maila guztietara iritsi da eta uste dut testuinguru honetan horri buruz ere hitz egin behar dugula eta Brianek aipatu duen bigarren alderdia, ez da gure zeregina Foro Sozial gisa. Guk ez ditugu arrazoiak lantzen, adibidez bide-orrian Aieten hori alderdien esku uzten zen, haiek hitz egitearen esku, Gure esku ekimena sortu zen hori lantzen duena ere eta badakizue zenbat oztopo eta bloke dauden hor. Ez naiz gehiegi sartuko ez delako Foro Sozialaren eginkizuna baina ikusi dugu zer gertatu den alderdiekin. Ponentzian lan handia egin zen Gasteizen eta azkenean ezinezkoa

izan zen akordioetara iristea eta Kataluniako eztabaida-mahai ikusiko dugu noraino iritsiko den baina momentu honetan nik ez dut aurre ikusten jarrera demokratiko bat Espainiako Estatuaren aldetik, eztabaida horretan parte hartzeko eta lurraldetasun auzi hori ebazteko. Ikusiko dugu, badirudi ez direla baldintzak emango hala izan dadin baina Brianek esan bezala goazen pentsatzera, nora goaz herri gisa? Nora iritziko gara hamar urte barru, hogeitau urte barru, zer eraiki nahi dugu? Eta hor hitz egin beharko dugu, entzun egin beharko dugu, baretasunez, beharrezkoa da baretasuna mantentzea. Eta gero hitz egingo da memoria kritiko inklusiboaz, kontakizunaz... Beharrezkoa da krispaziotik urruntzea eta modu eraikitzailean egitea eztabaida hauek. Nik beti esaten dut Zapatero bezalakoa naizela. Optimista antropologikoa.

Robert Manrique

Bai erronka gogorra da eta nik mahai gainean jarriko nukeena da, Estatuak ulertu beharko lukeela, terrorismoa estatu arazoa dela eta ez hauteskunde arazo bat. Ez da botoen biltegi bat eta zuk esan duzu irakurri duzula artikulu bat, bere biktimei buruz hitz egiten zuena eta horren arabera, ez duzu zertan esan norena zen, baina jarrera horien arabera besteek ez dugu axola eta iruditzen zait hori esanguratsua dela, biktimak aitortu egin behar direlako, berdin dio nork sortu dituen biktima horiek. Zergatik jabetzen dira batzuk min horretaz? Biktima batzuk oso pozik daude horrekin ezta, ideologikoki ere ados daudelako alderdi horren edo horien postulatuekin. Baina eta besteak, eta beste biktimak? Nik ezagutu nuen lehenengo biktima, 87an ezagutu nuen ospitalean, Albert izena du, bigarrenak Jaume eta nik ez nien galdetu nori bozkatzeko zieten. Eta ni gogoratzen naiz esan nuela, Hipercor? Eta bai! esaten zidaten eta beste batek bai, bai! Nik ez nien galdetu nori bozkatzeko zioten, beraz, erabiltzea tamalez berriro ere modu nazkagarri horretan besteen mina politika egiteko. Hori oso mingarria da biktima askorentzat. Batzuek ez dugulako nahi politika egitea gure mina baliatuta. Biktimen legea iritzi zenean ere esan genuen, tira ondoko herrira joan beharko gara. Ez zuen erantzun gure beharretara. Ia berrogei urte behar izan ziren terrorismoa hasi zenetik, araudi bat egoteko, nolabaiteko araudi bat. Arauetan zeuden beharrak osatzeko eta nolabait argi puntu bat emateko, legean zegoen iluntasun horretan. Bai 99ko legea dago, abenduaren 8koa baina 2021ko urrian? Nire galdera da, betetzen al da lege hura? Ez da betetzen, beraz, araua hor dago baina interpretatzeko moduan kontuan hartzen da nor den biktima. Biktima izenik gabeko horiek %99,99 hori eta bardin zait eskuin muturrekoak diren, ETA-renak, GRAPO-renak... bardin zait. Hogeita hamar terrorismo modu aipa ditzaket gutxienez Katalunian. Zer eskubide ditu biktima anonimo horrek, izenik gabeko horrek? Interpretazioaren arabera da? ba bai, espedientea interpretatzen duen arabera da eta uste dut legeak aldatu daitezkeela, arauak alda daitezkeela, guk daukagun lege honek ez duelako mamirik, ez du edukirik. Asko hobetu behar da lege hori oraindik ere. Eta zer gertatzen da ere 17ko abuztuko biktimekin Ramblas-ekoekin, Cambrils-ekoekin... Zer gertatzen da? Duela lau urte gertatu ziren eraso horiek eta egiten ari diren akatsak juridikoak zigor-kodekoak, badira Martxoaren 11koak, badira Hipercor-ekoak, badira El Papus berbera, El Papus 77an gertatu zen beraz, asko dago oraindik ikasteko biktimen tratamenduan. Ikusten duzunean beraz, norbait biktimen izenean hartu eta nazio batuen erakundera jotzen duela esateko biktimen arretarako arauak Espainian direla munduko onenak, ba esan dezakeguna da gezurretan ari direla Nazio Batuen Erakundean eta hori ez da zalantzan jartzen eta horrela gaude biktimak, noski gauza batzuk egin dira baina oraindik asko dago egiteko. Erronkei buruz ari gara, etorkizunera begirako erronkez eta eskatu Estatuari mesedez, bardin zait nor dagoen

agintean, ez dezatela erabili terrorismoa biktimen kolektiboa beraien jardun politikorako, ez dezatela erabili hauteskundeak irabazteko. Patetikoa da, patetikoa da baina ikusten dugu egiten dugula, egiten dutela eta hori mingarria da gutako askorentzat.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko Robert. Deskribatu duzu zein mingarria den biktimen auzia, zein mingarria den beraien tratamendua eta hori politikaren baitan, narratibaren gatazkan sartzen da ere eta Brianek esan du eta uste dut zu ere ados zaudela ezta, Kontakizunen gatazka hori gainditu egin behar dugu eta nik ulertzen dut badagoela gai oso sentsible bat eta bada ere espetxeratuen gaia ezta, honekin lotuta, biktimekin lotuta. Nola kudeatu hori? Badakit azken urteotan gauzak asko aldatu direla. Lehen presoak oso urrun espetxeratzten zituzten, Euskaditik urrun eta orain badakit gutxienez erdia hemen dagoela eta beste erdia ere gerturatu dituztela. Uste dut 200 inguru direla ezta presoak gaur egun eta duela hamar urte konferentzia egin zenean, jendeari iruditzen zitzaion edo pentsatuko nuke, duela hamar urte jakin izango balute 200 pertsona oraindik espetxean egongo zirela, agian gauzak desberdinak izango liriatekeela. Eta zuri galdetu nahi dizut. Zuri zer iruditzen zaizu, honek nola eragingo du adiskidetze prozesuan eta horri dagokionez zer urrats eman daitezke edo eman beharko liriateke nolabaiteko oreka bilatu beharko litzatekeelako biktimen artean eta biktimek behar dituzten aldaketen artean eta espetxeratutako pertsonen artean? Nola aurkitu oreka hori?

Karmen Galdeano

Egia da presoen afera dela hor ondorioen artean konpontzeko oso garrantzi eta denbora emango duen gaia ez? Denbora asko ematen ari dena jada, dagoeneko gehiegi. Abiapuntua da badaudela presoak hogeita hamar urte, erraz esaten dela, hogeita hamar urte espetxean daramatenak eta batzuei, atera baino berrogei urtera luzatzen ari zaizkienak zigorrak lege berezia dela eta. Egia da pausuak eman direla azken urte honetan hurbildu egin dituzte, hurbildu eta behintzat Espainia aldean denak Madriletik gora kokatzen dira. Baina oraindik ez zaizkie aplikatzen graduak, gradu aldaketak. Horrek suposatuko luke, legearen barruan behintzat, irteera mailatu bat egitea. Horrek biktimen ikuspegitik ez zan izango hain mingarria denak batera aterako balira ez? Baina nik biktimei, bueno lehen komentatu dugu ez? Biktimak oso politizatuta daude, batzuk, eta pozgarria da Robertok esaten duena, beno zuetako askok, nik entzuna neukan, baina entzutea terrorismoaren biktimei buruz Robert-ek esaten duena oso adierazgarria da ze beti pentsatu izan dugu denak bat gure kontra, edo denak Estatuak esaten ziguna edo denak bat etortzen zirela eta hori ez da horrela. Horregatik zoriontzen dut behin eta berriz horrelako lekuetan parte hartzen dutenean. Argituta biktima horiek guztiak ez dutela berdin pentsatzen, erabiliak izaten direla eta bozgorailua dutela edozer gauza esateko, horiek beti izango ditugu aurrean. Baina denok onartu behar dugu bake prozesu batera baldin bagoaz eta elkar bizitzaren alde egin behar badugu, gorrototik atera behar garela, gorrototik atera eta pausuak eman. Gure kasuan adibidez, eta nik uste hori inportantea dela, guk ez daukagu presorik, gure hiltzaileak ez dira preso egon. Preso egongo balira, seguru beste irtenbide bat topatuko genuke baina zoritxarrez bakarrik ditugu alde bateko presoak. Biktima batzuei gutxi irudiko zaie hogeita hamar urte espetxean

egotea Puerto de Santa Marian. Gureak oraindik, moral lezioak ematen dizkigute prentsan, onartzen dute egin dutena eta oraindik libre daude eta inork ez die ezer esaten. Karguak dauzkate, kondentatuak izan diren apurrak berehala espetxetik atera dira, inkluso postuz igo dituzte, sarituak izan dira ezta? Hori da guk bizi izan duguna. Horregatik nik bai eskatzen dut, eskuzabaltasun hori biktimen artean aurrera egin nahi badugu, ez gaitezen geratu gure gorroto edo behar pertsonak horretan. Niri orain esango bazidaten bueno, Felipe Gonzalezek onartu du hau eta espetxera doa hogeita hamar urte, ba sentitzen dut baina nik hori ez dut nahi, nik hori ez dut nahi. Zer konponduko dugu hori egiten? Ez, ez. Guk nahi duguna da behingoz onartzea. Guk badakigu eta Euskal Herri osoak daki zer gertatu zen eta nik gainera uste dut PSOERI ondo datorkiola behingoz jada onartzea gertatu izan zena behintzat garai horretan bestela eskumaren aldetik etengabe ari dira, orain ikusi dugun bezala, Corcuera-ren historiarekin eta karta bonben inguruan. Edozein aukera topatzen dute GAL ateratzeko, gerra zikina ateratzeko. Goazen hori onartzera, horren atzean guk ez dugu zigorrik nahi, guk ez dugu inor espetxeratu nahi. Guk zabaltasunez jokatu dugu eta jada hogeita hamar urte espetxean egon ondoren, guk ere eskatuko genuke, preso horiekin ere eskuzabaltasunaz jokatu behar dela. Eta behingoz afera honi beste pausu bat eman behar zaiola. Biktimenzat mingarria izango dela? Ba bai, guretzako be mingarria da baina ez daukagu bueltarik. Aurrera egin nahi badugu ez daukagu bultarik, ez dago bake biderik 200 pertsona espetxean jarraitzen badute, ez dauka zentzurik nire ustez. Eta orduan hor ikusi beharko da, guztion eskuzabaltasun hori, pausuak benetakoak izan daitezen eta behintzat, poliki-poliki presoak beraien legedia aplikatuta ateratzen has daitezen. Eta oso inportantea iruditzen zait berrogei urtera hasi direla jada zigortzen 2003 ko lege baten oinarrituta, oso-oso arriskutsua da ze benetan beste hamar urte gehiago zigortuko ditugu, aurrera pausuak eman beharrean, goazen mesedez jada behingoz legedi berezi horiek atzera botatzen eta goazen benetan aurrera egiten.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko Karmen. Bi gai garrantzitsu aipatu dira, aitortza eta eskuzabaltasuna. Agus, zerbait komentatu nahi duzu? Gero ere nahi nuke jada hasi galderak jasotzen edo ze iruzkin dauden aretoan. Agus?

Agus Hernan

Beno, gauza batzuk badaude pendiente, hau da, politika normalizatu bat erabili behar dela presoekin eta inziso txiki bat egin nahi dut, berak aipatu duen gai horretan, hau da, ebatzi gabeko kasu horietan, bai Estatuaren aldetik eta bai ETA-ren aldetik. Presoen kasuan, oraindik baditugu eginkizunak egiteke, oraindik ere badago salbuespenezko legeria bat eraikigintzena preso tipologia honentzat. Karmenek 2003ko legea aipatu du berrogei urteko zigorra ezartzen duena, ezartzen uzten duena eta horrek esan nahi du oraindik ere herrialde honetan egon daitezkeela presoak denbora askoan. Ez dakigu noiz arte Robert, ni ez naiz abokatua baina andamiaje horrek hiru parte ditu. Alde batetik graduen bilakaera normalean bigarren gradutik aurrera badituzte eskubide batzuk eta laurden bat bete ondoren badute eskubide batzuk preso hauei aplikatu zaiena, hau da graduen aplikazioa arindu egin

behar da, hobetu egin behar da, hau da, behintzat espetxe periferiko horietan, aldirikoetan euskal espetxeetara ekartzeko, Nafarroako espetxetara ekartzeko, hori izango litzateke bigarren elementua. Eta hirugarren elementua zentzu horretan izango litzateke, beharrezkoa dela Espainiako Estatuak Europako zuzentaraua aplikatzea, Estatu gehienetan errepikatzen dena, hau da, zigorren metaketa. Eta horrek ere ekarriko luke hainbat gauza bideratzea zentzu horretan. Egia da ere, eten txiki bat egin nahi dut, agendan sartu behar dugu erbesteratuak eta iheslariak. Hor ez dago erresertibitaterik estatuaren aldetik, hor leihatila bat dago Entzutegi Nazionalean nahiko itxita dagoena eta bueno, deportazioa beste kasu espezifikoa da, orain ez gara sartuko xehetasun teknikoetan baina iheslariari ez zaio uzten Entzutegi Nazionalako espediente eskura izaten. Esaten zaio etortzeko espediente bila eta horrek zailtasun bat erantzten du beraz, gai hori ere, agendan egon beharreko da. Eta funtsean aurkitzen ditugu bi arazo, eta eztabaida bat. Lehenik eta behin Entzutegi Nazionala: momentu honetan Euskal Espetxeetako presoek batzuek baimena lortzen ari dira espetxe tratamenduaren batzordearen onespenez eta Entzutegi Nazionalean badago lehen aretoa, Espejel-ek- epaile bat ezagutuko duzue -eta berriro helegitea eta berriro espetxera bidaltzen ditu. Eta konparazio bat besterik ezta, utziko didazue egiten: Katalunian preso dauden politikariek, haiei baimena ematen zietenean, ateratzen ziren eta gero berriro sartzen zituzten espetxean. Hori bizi izan dugu eta orain eszenatoki horretarantz goaz eta bigarren eztabaida da, Euskal Gobernuari entzun diogu transferentzia emana dagoela. Nik konfiantza daukat epe arrazoigarri batean edo denak etorriko dira Euskal Herriko espetxeetara eta Espainiar Gobernuaren azken mugimenduak bukatu zuen hurbilpenak egiten Madriletik gora. Har dezagun nota eta espero dezagun gero bizkorrago egingo dela. Baina gero Eusko Jaurlaritzari entzun diogu espetxe eredu desberdin bati buruz eta justizia restauratiboari buruz hitz egin du Eusko Jaurlaritzak. Interesgarria da ze hautsi egiten du Espainiako Estatuak orain arte ezarritakoaren irizpidearekin. Aznar-en esaldia adibidez: “ustel daitezela espetxean” hau da, egiten duenak ordaintzen du eta abar... Oso punitiboa den jokamoldea. Justizia restauratiboa berritzailea da elementu interesgarria da eta hirugarrenez esan behar dut Nazioarteko estandarretara hurbiltzen dela Europako estatu progresistenetara. Klaro, gero beti praktika ahazten zaie ea nola egiten den teorian onartzen den hori guztia. Eta ikus dezagun zer proposamen egiten diren eta nola ezar daitekeen berrintegrazio bide bat, euskal bide bat denontzat, eragile guztiak hitzartua eta pertsona guztientzat, preso guztientzat erabakita. Eta orain pixka bat konpondu gabeko kasuak aipatuko ditut: Garrantzitsua da ze bakea eraikitzean badu bere pisua. Etengabe sartzen da eztabaidan gainera eta Estatuaren biktimak..., hairetatik ez dago inolako presorik eta kasu oso ireki gutxi daude zentzu honetan. Nik uste dut orain arte aplikatu den eredia agortua dagoela. Kontua zen, eredia zen kasuak irekitzea ETA-k hor esperantza handia zuen, bi kasu egon ziren irekita zentzu horretan. Estatuaren biktimen kasuan ez da lortu kasu bakar bat ere irekitzea. Nik uste dut bide hori agortuta dagoela. Pentsatu behar dugu bide barri batean ze uste dut egiarekiko eskubidea berdina dela biktima guztientzat. Zein den bide hori? Atzo Nazioarteko ordezkariak esaten zuten bezala, herrialde honetan ez zaigu gustatzen beste prozesu batzuei begiratzea ze gurea oso berezia da eta oso propioa, oso gurea da, atzo izan zuten eztabaida hori. Baina nik uste dut beste prozesu batzuk aztertu behar direla Brian aditua da horretan, egiaren batzordeak ere daude kontzeptu gisa, horrek utziko luke beharbada egia eskaintzen biktimei eta soluzioak adiskidetzeta eta bizikidetzeta demokratikoaren arloan, ez bakarrik ikuspegi punitibista erabiliz espetxe gehiago emanaz. Ez naiz ere inpunitateaz ari, justiziaz eta egiaz baina justizia aplikatu daiteke modu batean edo bestean beti ere, testuinguruaren arabera. Ez gaude duela hamar urteko testuinguruan, orain gaur egungo testuinguruan gaude eta Euskal Gizarteak aurrera egin nahi du bizikidetzeta demokratikorantz eta urratsak eman nahi ditu adiskidetzeta.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko Agus. Robert, ez dakit zerbait erantsi nahi duzun eta gero galdera bat dut Brianentzat publikoaren aldetik, beno minututxo bat, ez dut gehiago.

Robert Manrique

Beno, biktima asko erabat ados gaude horrekin, biktima asko, ETA-ren biktimak ba hurbildu behar dira terroristak ba hurbiltzeko ba oso ondo, oso-oso ondo iruditzen zaigu, espetxean egon behar dutela zigorrak bete arte ba oso ondo, ateratzen direla ba oso ondo. Hori da legea, hori da araudia. Hemen Arazoa da batzuek esaten dutenean ezetz, esaten diotenean guztiari jakin gabe ze terroristaz ari diren. Nik hitz egin dezaket Hipercor-ekoeri buruz, kalean daude? Bai legeak esaten du? Bai Nork du errua? Bueno ba atentatua 87an izan zen. Nork du errua 87an atentatu hori gertatu izanak? ETA-k. Nork du erantzukizuna haiek kalen egoteaz? Ba legeak egin zuen hartu ardura hori eta lege hori pertsonaje batek egin zuen, diktadorea zen eta Francisco Franco izena zuen. 73ko zigor kodea, bueno orain ez dakigu non dauden Francoren gerakinak, bost axola zait baina jakin nahi duenak ba joan daitezela galdetzeraz zergatik aplikatu zen lege hau. Honek uzten badu atera daitezela ba hori gertatzen da eta ez da ezer pasatzen baina ezin dira beste pertsona batzuk errudundu edo gobernu batzuk errudundu egiten dutenean araudia bete, besterik egiten ez dute beraz, biktima batzuk hori ulertzen dugu baina beste batzuk ez dute ulertu nahi. Bueno errespetatzen dut baina ez dezatela nire izenean hitz egin, utz nazatela bakean. Ez dezatela nitaz hitz egin ezta beste batzuei buruz. Beraz, hurbiltzea bai noski, atera zergatik legeak dioelako? ba oso ondo. Hortik aurrera egin dezatela ahal dezaketen bizi modu normala eta ez daitezela itzuli lehengora. Hori gertatu zen duela hamar urte eta horrela gaude orain.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko ideia horiek gurekin partekatzeagatik Robert, eta nik uste dut horrek oso ondo garamatzala Briani egin diodan galdera horretara. Zuk adiskidetzat aipatu duzu, adiskidetzat, nola baloratuko zenuke gaur egungo egoera Euskal Herrian konparatzen badugu zer egoera bizi genuen terrorismoaren amaieraren aurretik eta baita konparatuko bagenu esate baterako ze egoera zegoen trantsizioaren ondoren. Kontuan hartuz ze aniztasun dagoen gaur hemen, nola izango litzateke adiskidetzat hori. Nik uste dut zerikusia duela Robert-ek esan duenarekin, errespetatu egin behar dugula legea egiten dugun guzti horretan baina behar bada birplanteatu beharko genuke pixka bat legea ez? Nola izango litzateke adiskidetzat hori praktikan?

Brian Currin

Ba ea ondo ulertu dudan galdera. Galdera hori egia esan galdera horrek erreferentzia egiten dio guzti honen hasierari. Noiz hasi beharko luke honek guztiak? Eta begiratzen badiogu adiskidetzeari, bat

egiteari eta aitortzari, aitortza oso elementu garrantzitsua da adiskidetzan eta kontuan hartzen badiugu elementu hauek guztiak orduan ezin dugu hasi 80ko hamarkadaz edo 70ko hamarkadaz hitz egiten edo 60ko hamarkadaz hitz egiten, ez, nire ustez egin behar dena da sartu behar dugula diktaduraren garaia oraindik landu ez zena edo atertu ez dena parametroen barnean, eta hau aukera bat izan daiteke zerbait inklusiboa egiteko behar bada aukera bat ere izan liteke legatu hau lantzeko, iritzi zaiguna diktaduraren garaietatik. Nire balorazioa, politikaren inguruan egin dezakedan balorazioa Espainiako Estatuan hau da: Alderdi Popularraren arteko eta Alderdi Sozialistaren arteko harremana, harreman horrek oraindik ere sufritu egin duela Frankismotik iristen zaigun legatuaren ondorioz eta orduan nire ustez aprobeixatu egin beharko genuke aukera hau, gogoeta egiteko guztiaren inguruan ze hori guztia, hori guztia bada, bada gizarteak hitz egiten duen horrekin bat egiten duena, hau da, horri buruz hitz egiten ari da ze sarraski gertatu dira, biktimarioak. Sarraski horien egileak jadanik ez daude bizirik baina horrek ez du esan nahi Espainiako Estatuak ezin duenik aitortu gertatu egin zirela gauza horiek, sarraski horiek, izugarrikeria horiek eta ez dakit horrela erantzun diodan galderari.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Bai uste dut erantzun diozula galderari. Galdera nahiko zabala da hau da, nola izango litzateke adiskidetze hori? Zer esan nahi du adiskidetzeak gaur egungo egoeran? Nik planteatuko nukeen galdera gako bat zuei egin nahi dizuedana, hauxe izango litzateke: Hau da, guk hemen nahi baldin badugu Euskal Gizarteak aurrera egin dezan eta egia da entzun ditugula lekukotza oso potenteak, oso indartsuak hemen eta norbanakoen esperientziez hitz egiten ditugunak ze biktima desberdinak egon diren eta nola atera diren aurrera. Niri gustatuko litzaidake planteatzea galdera hau: Nola lideratu ditzakegu gazteak, nola aska ditzakegu gazte hauek esperientzia mingarri horietatik bere gurasoek eta aiton-amonek bizi izan zuten egoera horretatik adiskidetzan praktikan bizitzeko izenik eman gabe. Eten gabe adiskidetzeaz hitz egin behar ez izateko, gertakari hutsa izan dadin. Zer egin dezakegu horren inguruan Agus, esan nahi duzu zerbait?

Agus Hernan

Bai, nik uste dut alderdi hau hirugarren erronka batekin lotuta dagoela, hau da, memoria kritiko inklusiboarekin lotuta dago eta ze momentu ari garen bizitzen. Nik uste dut gure helburu nagusia, edozein bake prozesuren helburua dela ez errepikatzearen oinarriak jartzea eta hori ez dago inon bermatuta. Hemen zorionez ez da disidentzia armaturik egon prozesu honetan, beste leku batzuetan ba, Kolonbian, Irlandan, leku askotan disidentziak egon dira prozesua hauetan guztietan eta bueno, gurea ere bake prozesu ohiko bat esan genezake eta askotan disidentziak sortzen dira eta ematen du eremu horretan ez dagoela inolako aukerarik baina nik behintzat ez nuke eskua sutan jarriko zentzu horretan baizik eta lehendabizi presoen auzia konpondu beharko litzateke, biktimen auzia eta baita ere memoria inklusibo kritikoarena. Ondo konpondu behar dira gatazkaren ondorioak bestela indarkeria zikloa bukatu dadin behingoz- Eta parentesi txiki bat egin nahi dut, lehen ahaztu zait presoen gaian funtsezkoa da soluzioa ematea Iparraldeko betiko zigorren inguruan. Orain blokeo oso handia dago eta nik uste dut agendan egon behar duela. Bihar landuko dute hori Iparraldean eta oso garran-

tzitsua iruditzen zait ere gai hori. Betiere ko zigorrak, bi presok dituzte zigor horiek iparraldean. Foro Sozialean oso kezkatuta gaude une honetan eta gauza asko egiten ari dira memoriaren arloan, gazteen artean, ikastetxeetan, badago tokiko mailan egiten diren esku hartzeak Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundia gauza asko egiten ari da zentzu horretan baina zer ari da gertatzen une honetan? Nik ez dakit ondo egiten ari garen, ez dakit memoria kritikoaren eztabaida ondo ari garen ematen. Nik uste dut gaizki egiten ari dela espazio politikoan. Bizpahiru urte daramatzagu etengabeko argudioak errepikatzen hau da, interpelazioa eta nik gehiago eta zuk gehiago eta zuk gutxiago. Eta bakoitzak uste du zilegia dela, arrazoa duela eta besteak mugitu behar duela. Eta hori etengabeko eztabaida bat da Espainiako kongresuan, eskuin espainola eta Vox hor daudela eta etengabeko eztabaida bat dago eta etengabe errepikatzen dira. Aieteren aurretik hiru lau astez eztabaida kritiko bat, krispatua, zorrotza egon zen. Nola iritsiko ginen berriro Aieteren espiritura? Nik uste dut lortzen ari garela dena den. Zer ari gara helarazten belaunaldi berriei, politikarien eztabaida garratz hauekin? Ba oso irudi negatiboa. Elkarrizketa gune bat sortu behar da 2:54:21 denetatik hitz egin daitekeela sentitu behar da eta ez mikrofonoaren tentsio politikotik baizik eta elkarrizketatik gatazka konpontzeko modu gisa. Gatazkak beti egongo dira, gatazkak beti mugitzen dituzte gizarteak baina ebatzi egin behar da elkarrizketaren bidez. Gatazkak daude fabriketan, familietan eta abar eta abar. Normala da, funtsezkoa da gizartearentzat baina lortu behar da elkarrizketaren bidez konpontzea. Nik uste dut zentzu horretan “Aieteko espiritua”, utziko didazue esaten, nik uste dut jardunaldi hauen inguruan eraikitzen ari garela zentzua eta atzo izan genuen, tentsio dialektikoaren espazio batetik pasatu behar dugu eraikitza gune eraikitze batera eta hitz totem-etatik atera behar ditugu, beti ateratzen dugu hitz Totem bat eta gero ez dugu desmuntatzeko modurik aurkitzen, hau da, hitzarmen guneak bilatu behar dira eta badakit eztabaida elementu oso garrantzitsua dela baina nik uste dut zentzu horretan gai izan behar dugula aurrera egiten. Eta bukatuko dut Brianek esandakoarekin bat egiten: Espainiako Estatuak espero dugu keinu bat egingo duela sortutako min guztiaren aitortza gisa? Nik ez dut espero, nik ez dut espero heldutasunik dagoenik hori egiteko, Robert-ek ere esan du: Nik ez dut uste hala denik. Espero behar da Espainia mugitzea gu mugitzeko, argi dago ezetz. Hau hemen konpondu behar da eta lagunduko luke Espainiako gobernuak keinu bat egitea egin duen minaren inguruan? Noski, ekarpen handia izango litzateke bizikidetzaren demokratikoan. Baina nik ez dut espero eta beraz, bake prozesuaren barruan, hau da, zergatik alde bat mugitzen da hainbeste eta bestea ez den mugitzen?

Nik uste hemen auzia argi dagoela; hemen gaude eta hemen konpondu behar ditugu arazoak eta gainera baditugu zauri batzuk irekiak eta zauri horiek itxi egin behar dira ze hori da modu bakarra gauzak konpontzen joateko, indarkeria zikloak ixten joateko ze hori da modu bakarra egiazko ez errepikatzea baldintzak sortzeko, bizikidetzaren demokratiko bat sortzeko, hori bait da helburua eta berriro esango dut, oso kezkatuta gaude hamar urte geroago eta hasieran esan dut, ni goizetan jaikitzen naiz, prentsa ikusten dut eta ematen du duela hamar urte baino okerrago gaudela eztabaidaren tonu horretan.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko Agus. Hitza emango diot Karmeni. Badakit amaitzen ari garela sesio honetan beraz azken hiru interbentzioak izango dira hauek. Hitza pasatuko diot Karmeni, gero Brian-i eta gero itxi egingo dugu eztabaida.

Karmen Galdeano

Bat nator eta igual pixka bat aportazio modua, ados nago Euskal Herrian konpondu behar dugula gure gizarteak konponduko duela eta tresnak eta autua badagoela baina bide horretatik eta krispazio hori ere aipatu ondoren, mahai gaineratu nahi dut ze krispazioa suposatzen digu guri zoru etikoari buruz ematen dizkigutenean lezio moralak. Guk ez dugu lortuko Estatuak onartzea bere mina baina ez segi mesedez behin eta berriro alde bati eskatzen, beraiek ez direnean kapaz onartzeko, ez Madrilek onartu behar duenak, Gasteizek onartu behar duena be bai. Orduan oso-oso mingarria da. Hemen konpondu behar dugula, ados eta guztiak egin behar dugu erreflexio hori. Ez eskatu hainbeste aurrian daukazunari, zu zeuk oraindik pausu bakar bat ere ez duzunean eman. Esperantza behintzat badaukat, ez Madriletik etorriko denik baina bai esperantza daukat behintzat, gizarteak aurrera egingo duela eta egia da behintzat gure gazteak gai honi dagokionez ez dut krispaziorik somatzen, ni behintzat nire inguruko gazteekin asko ibiltzen naiz, eta beldurra ematen didana bai, faltsuan utziko dugun debate hau, horrek ere beldurra ematen dit. Pertsonalki nekatuta nago, niretzako 36 urte dira jada borroka honetan nabilela, ez? Askotan esaten dut: nahiko da ez noa jada inora, ikusten dudalako azkenean nora goaz ez? Baina bai egia da saiatu behar garela faltsuan ez ixten, gazteak dialogo eta hitz egiteko eta giza eskubideen defentsan hezi behar ditugu, gorrotorik ez eta hori bat uste dut inportanteena dela eta positibotasun hori baina benetan berriro errepikatu nahi dut, oso mingarriak dira ematen dizkiguten lezio moralak.

Robert Manrique

Beno, zauriak ixteko, soluzioak aurkitzeko eta aurrera ditugun erronkei erantzunak emateko, nik uste dut badagoela hitz bat funtsezkoa: Egia, egia bilatu behar da. Bakoitzak gure egia dugu bueno ba kontrastatu egingo dugu, ikusiko dugu zeintzuk diren bakoitzaren egiak eta aterako dugu denon artean zein den egia. Etorkizunari begira, gazteriaz ari garela, ba begi bistakoa da, gertatu dena azaldu behar zaiela, ezer ezkutatu gabe eta gazteei eta gaizki egin dunari buruz hitz egin behar da eta ondo egin duenari buruz ere bai. Baina nik, distantziatik begiratu ordez, hemen 400 eta 500 km-ra nago hemendik, hemen Kataluniatik pixka bat urrutiago ikusten dugu baina kezkatuta gaude ere bai. Baina ikusten duzunean planteamendua dela badagoela jendea mezu bat egiten duena, mezu positibo bat egiten duena bere jendeak egiten duenean eta negatiboa da bere jendeak egiten duenean mezua. Baina bere jendeak gaizki egiten duenean isildu egiten dira eta bere jendeak ondo egiten dutenean ere isildu egiten dira. Parkatu, hori ez da egia, hori da zure bertsioa baina zuk ezin duzu eskola batera joan, unibertsitate batetara joan, ikastola batetara hori azaltzera ixten ari baldin bazara egia zure ideologia pertsonalagatik hau da, lehen aipatu dugu zer izango litzatekeen aitortza soziala eta bueno flash bat etorri zait ze jada gogoratzen nintzen eta oso garrantzitsua izan zen. Gogoratzen naiz ekainean, uste dut Hipercor-en urteurrena izango zela, 2006an uste dut izan zela eta gainera gutun hori ohore handiz gordetzen dut. Jaso nuen Ibarretxe Lehendakariaren gutun bat aitortuz Euskal Herriak, Euskaldun guztien izenean hitz egiten zuela uste dut, aitortuz Euskal Herriak ez zituela ondo tratatu biktimak. 2006, duela 15 urte eta erdi eta ez nuen ere oihartzun handirik izan Maixela Lasak irakurri zuen gutun hori Bartzelonan Hipercor-ekoen taldean eta ez dut gogoratzen oihartzun handirik egon zenik horren inguruan. Seguruenez, idatzitako komunikatu hori Gasteizen irakurri izan balitz, eta parkatu eta kontuz itzulpenarekin, “la ostia” izango zen baina pixka bat oharkabean pasatu zen.

Euskal Herrian bueno jaun- andreak bai, utzi zaituztegu botata, ez zaituztegu tratatu, tratatu behar zintuztegun bezala jo ba "ostia", eskerrik asko. Zergatik gogoratzen dut orain une hau? Ze horrek itxi egin zuen oinaze asko. Jende askorengan jada ezin duzu esan Eusko Jaurlaritza ez da kezkatzen ze esan dizu jadanik baietz eta aitortu du bere hutsegitea. Eta orain Rosa LLuch-ek nik baino hobeto jakingo luke ze ni dataz ez naiz gogoratzen baina 2012ko azaroan Ezker Abertzaleko bozeramaile batek Bartzelonako unibertsitatean eta ETArekin biktima batzuen aurrean eta muturreko eskuineko batzuen aurrean ere bai, Terra Lliure-Ko batzuen aurrean ere aitortu zuen Ezker Abertzaleak, ez zela bere mailan egon, ETA-K sortutako biktimen kasuan. Beti gogoratzen naiz Fernando Barrena bueno eztakit zein izan zen Fernando barrena edo beste bat, Fernando Barrena izan zela uste dut baina Bartzelonan irakurri eta ez zen ezer pasatu. Eta gero niri hortik esaten didatenean Ezkerra Abertzaleak paso egiten du biktimez, ez parkatu, niri irakurri didate komunikatu bat esanez ez dutela paso egiten eta aitortu egiten dute biktima horiek utzi dituztela bertan behera utzita beste alde batera begiratu eta ez zutela egin behar. Berriz ere esango dut, beharbada arazoa ez da zeinek esaten dituen gauzak baizik eta non esaten dituen, beharbada konbentzitututa nago berritasun bat izango dela askorentzako. Irakurri egin zan 2012an Bartzelonako unibertsitatean, Deustun izan balitz ikaragarria izango zen baina Bartzelonan izan zenez ez zen ezer pasatu. Behar bada falta zaigu pixka bat komunikazioa hainbat lekuren artean azaltzeko ondo egin diren gauzak beraz nik ere aitortzen dut gauza asko ondo egin direla ustez nire etsaiaren aldetik, ez da nire etsaia egia esan, baina baita esaten dut ondo egin dela. Badaude arazoak, egian hezteko, egia erakutsi behar dela eta ez bakoitzaren egia, ezin bait da frogatu.

Brian Currin

Oso labur. Denok dakigu zelako eragina izan dezakeen aitortza batek eta hori Hego Afrikan ere ikusi dut eta ikusi dut zer gertatzen den publikoki aitortzen denean edo ez denean aitortzen egindako kaltea. Eta hiruei entzunda, antz ematen da akituta daudela, mina dagoela, sufrimendua dagoela gauzak jarraitu egiten dutelako beti berdin, ezta? Badirudi ez dela aurrera egiten. Eta hori antzematen dut, jasotzen dut eta baita ere esan nahiko nuke, Jonathanek ere galdetzen duela zer egin daitekeen ezta? Zer egin dezakegu etorkizunera begira aurrera egin ahal izateko. Nire ustez, inoiz baino gehiago proiektu bat bilatu behar duzuela Euskal Herriarentzat. Euskal Herriak proiektu bat behar du, agian berreskura daiteke nazioa eraikitzearen proiektu hori. Zuk Nazio bat eraikitzen baduzu eta aldaketa sakona, aniztasuna jorratu behar duzulako besteak beste. Beraz, kontaketa ez da egongo lotuta gauza negatibo bati baizik eta nahien eta etorkizunerako kontakizun bihurtuko da. Nire ustez gizakiok itzaropena behar dugu, sentitu behar dugu zerbait lortu nahi dugula. Guk Hego Afrikan ez dugu nazio hori, eta bai eduki dugula egiaren eta adiskidetzaren batzordea baina oraindik ere lege batzuk mantendu ziren, lehenengo gobernu demokratikoak mantendu zituenak, jarrera hori edo tribal hori mantentzen dutenak edo nolabait babestu egiten dutenak. Eta sustatu egiten da tribalismo hori lege horietan eta hori noski kontrajarria zen oposizioan zaudenean baina gobernura iritzi zirenean mantendu behar zituzten legeak baldin eta milioika zulu horien botoak eskuratu nahi bazituzten. Eta izan ere, lege horietako asko lidergo tradizionalekin, autoritate tradizionalarekin lotuta daude eta lege horiek Apartheid-eko Estatuak egindako legeak ziren, ezta, itxurakeriatan aritzen zirelako ezta? Esaten zuten ez zela egongo gutxiengo zuri baten nazio bat baizik nazio asko zeratutako nazioak. Beraz, tira hori hor dago. Eta iruditzen zait gure kasuan Hego Afrikan beharrezkoa dela nazio proiektu hori

lantzea. Goazen begiratzera Ipar Irlandari, zer egin dute? Sistema bat sortu dute eta Ipar Irlandan bizi baldin bazara, aukeratzen duzu Irlandarra edo Britainiarra izan nahi duzun. Zuk aukeratzen duzu pasaportea nolakoa nahi duzun edo bi lekuetako, ezta? Batzuek noski nahi dute Irlandaren Errepublikaren baitan egotea, beste batzuek Britainia Handian egotea baina nire ustez onena zer litzateke? Nazio bat eraikitzea Ipar Irlandan, Ipar Irlanda dena, beste nazio bat eta honela gai horiek lantzeko aukera izango luketelako: identitatearekin eta aniztasunarekin lotutakoak.

Jonathan Cohen

Moderatzailea

Eskerrik asko Brian zuri ere. Uste dut gaur goizeko mahai inguru honetan gure erronka zela erronkak lantzea eta zuk Brian aipatu duzu erronka handi bat: Nolakoa litzateke identitatea, nazioa etorkizunean. Amaitzeko Ipar Irlandako pertsona batek esandako zerbait aipatu nahiko nuke: Berak zihoen adiskidetzak ez duela hasierarik eta amaierarik, gure izanaren parte bihurtzen dela eta. Hori uste dut garrantzitsua dela gatazkan bizi izan ditugun guztiontzat. Askok pentsatzen dute adiskidetzak dela irtenbide erraza eta gaur ikusi ahal izan dugun moduan, badela biderik eta aukerarik gogorrena bizikidetzarako. Eskerrik asko Agus, Karmen, Robert eta Brian. Eskerrik asko zuen ekarpenagatik, gaur egin duzuen ekarpenagatik baina baita zuen egunerokotasunean adiskidetzeari egiten diozuen ekarpenagatik eta Karmen, iruditzen zait akituta sentitzen zarela, ulertzen dut eta uste dut hori askori gertatzen zaigula ezta, dena den, jakin ezazue inspirazio iturri direla zuek gaur esandakoak hemen gauden guztiontzat. Orain bazkaltzeko etena dugu, ez dakit zerbait esan behar digun Nekane arratsaldean gertatuko denari buruz. Eskerrik asko ere interpreteei benetan lan bikaina egiten ari direlako. Goiz guztia daramate hizkuntza guztien artean aldatetak egiten elkar ulertzeko aukera izan dezagun. Eskerrik asko beraiei ere. Eta ez dakit zerbait gehiago esan nahi duen Nekane arratsaldeari buruz.

Nekane Altzelai

Aurkezlea

Zerorrek esan duzu dena, gaurko ekitaldia, goizeko ekitaldia eta saioa, amaitutzat ematen dugu, arratsaldean elkar ikusiko gara, beraz, probestu eguerdia.

Urriak 15, Kursaal Gatazken eraldaketa demokratikoa

Nekane Altzelai Aurkezlea

Arratsalde on eta ongi etorriak nazioarteko jardunaldi hauetara. Jarraian hasiko den mahai inguruarekin bukatutzat emango dugu “*Aiete hamar urte ikaspenak eta erronkak*” nazioarteko jardunaldien bigarren egunari. Pozik gaude jardunaldi hauek erakusten duten zentraltasunagatik eta aniztasunagatik. Bizikidetzaren demokratikoaren eraikuntzaren alde diharduten sentsibilitate politiko guztiak presente egon zitezten horren alde aritu gara lanean eta atzo Aieten erakutsi zen aniztasuna eta bihar Baionan ikusiko dena, oso gutxitan gertatzen dela esan genezake, are gutxiago eztabaida politikoa bereziki korapilatua dagoenean.

Agus Hernan Aurkezlea

Egun batzuetan badirudi duela hamar urte baino okerrago gaudela baina esan behar dugu errealtatea buru gogorra dela eta hori ez dela horrela. Bi egun hauetan, aurrera egin dugun guztia aztertu dugu eta zeregin horretan alde guztiok gure ekarpena egin dugu prozesu inklusibo batean gaur egun multilateral dena. Beraz, erakundeek eta alderdi politikoek, nazioarteko komunitateak eta gizarte zibilak batera egin dugu aurrera. Hainbat irakaspen atera ditugu bi egun horretatik baina lau azpimarratu nahi genituzke: Lehenengoa bakea eraikitze prozesua, prozesu konplexua da, pazientzia handia eskatzen duena eta etengabe elikatu behar dena. Kolonbiako presidente ohia izan zen Juan Manuel Santosek adierazi zuen zailagoa dela bakea egitea gerra baino. Gaur gure herrian esaldi horrek zentzua duela dirudi oraindik. Bigarren puntua, prozesu honen une erabakigarri batean gaude, azken urteotan egindako aurrerapenak hurrengo erronkak definitzera behartzen gaituzte, horietako bat, kontakizunaren bataila deritzona da. Adierazpen ikaragarria baina mundu guztiak ulertzen duena.

Premiazkoa da kontakizunaren batailaren eztabaida esparrua aldatzea, konfrontazioaren egungo espaziotik eraikuntza espaziora eramanez eta eztabaida poliedrikoa izango da edo ez da izango eta beraz, esaten dugun bezala, konfrontazioaren egungo espaziotik eraikuntza espaziora eramanez behar dugu, mikrofonotik kanpo, helburu zaila da baina datozen hilabeteetan Foro Sozialean lan egingo duguna, tematu egin behar dugu horretan. Hirugarrena, ez errepikatzeko bermeak ez daude oraindik ondo finkatuta. Belaunaldi berriei giza eskubideen kultura bat helarazi behar diegu non gatazkek beti egongo direnak modu erabakigarrian konponduko diren eta horrela besterik ez.

Eta giza eskubideen kultura bat non gatazkek beti existituko direnak elkarriketa eta eztabaida demokratikoaren bidez konponduko diren. Laugarrenez, harro sentitu behar dugu urte hauetan lortutako aurrerapenengatik. Gizarte bezala lortu dugun aurrerapenengatik. Prozesu berezi bat eraikitzen ari gara eta jadanik erreferentzia dena Aieten ikusi dugun bezala eta Kursoalean bezala eta aztergai dena adituak diren pertsonen artean.

Nekane Altzelai

Aurkezlea

Lan handia holako hiru eremu hauetan. Biktima guztiek, egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko duten eskubidea baita ere diskriminatuak sentitzen diren biktimak entzutekoa eta haiekin enpatizatze-koa. Presoak egun oraindik pairatzen duten salbuespen egoera gainditzea eta iheslari eta deportatu-tako pertsonen auzia agendan barneratzea, memoria kritikoa eta inklusiboa bultzatzea, jaso daitezela kontakizun guztiak memoria honetan eta ez dezala inor atzean utzi. Orain entzungo dugun mahai inguruak, Aieteko adierazpenaren laugarren puntua sakontzeko aukera izango du, Ordezkari politi-koen arteko elkarrizketa, gatazka demokratikoki konpontzeko tresna gisa, hori zan Aieteko itunaren laugarren puntua eta horretaz arituko dira. Moderatzaile lanetan Stephen Gethins izango dugu. Bera Eskoziako Saint Andrews Unibertsitateko nazioarteko harremanetarako eskolako irakaslea da egun. Alex Salmond eta Nicola Sturgeon Eskoziako lehen ministro nazionalisten aholkularia izan da eta liburu bat argitaratu berri du “*Nation to Nation scotland´s place in the world*”. Beraien txanda da orain eta animatzen zaituztet oholtzara igotzera.

Stephen Gethins

Moderatzailea

Arratsalde on, eskerrik asko. Zoragarria da zu hor pantailan ikustea. Stephen Gethins dut izena eta zoragarria da hemen egotea zuekin guztiokin, eskerrik asko aurkezpenagatik eta esan behar dut bai, Stephen Gethins naiz, irakaslea naiz Saint Andrewseko Unibertsitateko nazioarteko harremanen eskolan, parlamentari Britainiarra izan nintzen. Eskoziako alderdi nazionalistaren ordezkaria SNDP eta kanpo arazoetako ministerioa izan zen nire ardura Europako gaiak eta zerikusi handia izan nuen kontu horrekin guztiarekin Brexitaren erreferendunarekin eta argi uzteko ni zer naizen eta zer uste dudana, nik Eskoziaren independentzian sinesten dut, pribilegio bat da beraz niretzat hemen egotea baina baita esan beharra dut ez dudala iritzirik nire hemengo “kolegekin” edo kideekin zerikusia du-ten auziekin, niri ez dagokit beraz, horri buruzko iritzia ematea baina argi daukat eraldaketa demo-kratikoa eta konpromiso demokratikoak lehen lekuan egon behar duela. Mahai inguruarekin hasi au-rretetik, pentsa dezagun ze momentu berezi bizitzen ari garen gaur egun. Parlamentarioa Ingalaterran erail egin zuten ebakuntza kirurgiko batera zihoanean. Kontserbadorea zen eta oposizioan zegoen ni parlamentuan nengoenean baina oso gizon atsegina zen, adeitsua eta oso konprometituta zegoen demokraziarekin eta gogoratzen naiz parlamentari gisa sartu nintzenean eta saiatu nintzenean nire lana kontziliatzen, nire eginkizun politiko berria kontziliatzen, bateratzen nire familia bizitzarekin oso atsegina izan zela nireganako eta haren heriotza ez zen galera bat izan soilik bere familiarentzat edo alderdi kontserbadorearentzat baizik eta ikaragarria izan zen demokraziarentzat eta gogoratu nahi dut eraldaketa demokratikoan, prozesu demokratiko bat oso gauza hauskorra dela, parka egi-dazue mesedez gogoeta hau egiteagatik, oroitzapen tragiko honengatik. Orain bai aurkeztuko ditut mahai inguru honetako kideak: Lehenik eta behin entzungo dugu aurkezpenik behar ez duen perso-na bat, Juan Jose Ibarretxe. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen 1999 eta 2009 artean. Euskal Autonomi Erkidegoko lehendakaria izan zen. Gaur egun Washingtoneko Kolonbiako EHUko uniber-sitateekin lan egiten du, kolaboratzen du eta bera da Agirre Lehendakaria Center-eko presidentea. Quim Torra ere entzungo dugu, Kataluniako Generalitateko presidente ohia eta Omnium Culturaleko

ere presidentea eta poz pozik nago gainera hemen beste kide bi ditugulako, mugimendu zibiletako bi kide ditugulako: Amalur Alvarez batetik, Amalur Alvarez “Gure Esku Dago”ren kide da eta prestatzen ari da gaur egun Doktoretza, ai! parkatu jada Doktorea zara!!, parkatu Amalur, gaizki dut orduan informazioa, doktorea da, doktorego bat egin du zientzia juridiko eta politiko arloan oinarrituta. Erabakitzeke eskubidea, *XXI. Mendeko eskubide baten genesisia* du izena bere tesiak eta ondoan Jordi Cuixart dut Omnium Culturalekoa, ekintzailea, enpresa burua, lau urte eman zituen espetxean bueno eta eskatuko diet gure lau hizlarietara egin dezatela hamar minutuko aurkezpena gaiaren inguruan eta gero pasatuko gara galderen txandara, planteatu daitezkeenak idatziz esan didatenez helaraziko zaizkigu zuen galderak eta hamar minutuko aurkezpen bat egin ondoren zuetako bakoitzaren aldetik planteatuko ditugu ahal ditugun galdera guztiak arratsaldeko zortziak arte. Denbora asko ematen du bai baina ikusiko duzue nola ez den horrela. Gai asko ditugu oso interesgarriak eta hauek bezalako adituekin oso azkar pasatuko zaigu. Hasiko naiz Ibarretxe Lehendakariarekin: Zer pentsatzen du gatazken eraldaketa demokratikoaz?

Juan Jose Ibarretxe

Arratsalde on! Beno, Quirker-ak esan zuen teoria ez? Berak esaten zuen bizitza bizi ahal izateko, aurrera begiratu behar dugula baina ulertzeko atzeruntz begiratu behar dugula. Eta zaila egiten zait aurrera begiratzea eta aholkuak ematea zeren eta sekula ez dut sinetsi ba bueno pertsona bat joaten direnean daudela eta bestela alderantziz gertatzen dela. Beraz gogoeta batzuk egingo ditut benetan eragiten didatenak garai hark lehendakaria izan nintzenean Euskal Herriaren Erkidegoaren lehendakaria izan nintzenean eta hortik aurrera hasiko naiz esaldi batekin, Kofi Annan-en esaldi batekin, esaten duenean: “Maitatu daiteke zarena eta gorrotatu gabe ez zaren hori” Nik benetan esango dut, errespetua diot Espainiako herriari, errespetatzen ditut Espainiar ikurrak, sinboloak, estimatu egiten ditut Espainiako jendea, oso jende atsegina da baina ni Euskalduna naiz. Eta beraz, egia esan, izugarri gustatzen zait ikusten dudanean nire adiskideak, Espainiako adiskideak poztu egiten direnean eta gorriarekin amets egiten dutenean baina ere nik eskubide berbera dut amets egiteko egunen batean berdearekin, talde berdearekin, inori kalterik egin gabe. Eta gainera, gogoetan ausartuz, batzuetan hitz egiten denean gaur egungo munduaren arazoa nazionalismoak direla, ados nago ere bai horrekin baina zero betatzen dute nazioak, hau da, beren nazioak eraikitzeke beste nazioak ukatzen dituztenen perspektiba hori. Eta nik konstatazio bat egin dut nire bizitzan, hau da, hainbeste urte pasatu ondoren, modu bakarra dagoela arazo politikoak konpontzeko eta hori egin daiteke bakarrik demokratikoki, printzipio, hastapen demokratikoa aplikatuz, hau da herriak asistitzen duen printzipio demokratiko hori, ez da negoziagarria Katalan herria edo Eskoziako herriak edo Euskal Herriak edo Quebec-ekoak ez dezan izan bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea baina bai dena posible da hitzartzea, hura egikaritzea, hau da, noiz eta ze modutan egin daitekeen hori. Eta egia dena da, nahiz eta desnaturalizatu den printzipio demokratikoaren kontzeptua azken garai hauetan badago beste alde batetik ziurtasun bat kontra ematen diena argumentu hori erabiltzen dutenei, hau da, bi kasuetan mendebaldeko munduak esan duenean hastapen printzipio demokratikoa onartzen duela, Quebec edo Eskoziak, harrigarria bada ere, emaitza ez zen izan sezesioa baizik eta indartu egin zela batasuna, gehiengo horren batasuna eta orduan horrek frogatzen du argi eta garbi printzipio demokratikoak ez duela ikuspegi baten edo beste baten ikuspegia eskaintzen. Beste argudio bat ere esan genezake, jakina mundu globalizatu batean ezta, non mugek gero eta garrantzi gutxiago duten eta

zentzu gutxiago duen protagonismo propio bat izatea, hau da, komenigarria den edo ez hau da estatu bat sortzea edo errepublika bat sortzea. Ederki ba, hartzen dituzten erabakiak, edozein herrik hartutakoak ze harrigarria da fijatu zaitezte, bizitza osoan ikusi dugun nola 45.urtean Nazio Batuek 51 kide zituzten, batzuk pentsa lezakete mundu globalizatu batean laurogei urte pasa ondoren, jokalaria gutxiago egongo zirela joko zelaian baina ez, azken estatistiken arabera 2011koak, hau da, nortasun propioa duten herrialdeen kopurua 193 dira gehi Vatikanoko Hiria. Eta bueno, norbaitek esan lezake, gu mugitzen garen esparruari jarraikiz, hau da, Europar Batasuna esan genezake hori maila globalean gertatzen dela baina zer esan genezake integrazio prozesu bat gertatzen den toki batean, integrazio politiko, sozial eta ekonomiko bat? Ze zentzu du aldarrikatzea Eskoziarrak edo katalanek edo Euskaldunek guk posizio bat izatea, guk gure posizio propioa izatea. Desagertzen ari direnean historiaren orban horiek, hau da, mugak diren horiek, hori ere ezta egia. Europak 20 jokalaria zituen. Gorriaren eta berdearen adibidea jarraituz, 20 jokalaria zituen lehen mundu gerraren aurretik 1914ean. 26 jokalaria zituen Agako biltzarra egin zenean non sartu ziren herriak eta atera ziren Estatuak 1949an 26 jokalaria zituen orduan joko zelaian. Norbaitek esango du, bueno, hor hasi zen Europako integrazio prozesua beraz 26 jokalaria horietatik ba gaur gutxiago izango ditugu, ba ezta horrela, gaur 50 ditugu, 50 jokalaria daude joko zelaian eta ikusiko dugu etorkizunean eta nik espero dut haien arten gainera egongo direla gure herriak besteak beste Victor Hugok esaten zuen bezala Euskal Herriari buruz eta nik eransten dut ere Katalan Herria, gezurra dirudi bizirik egotea hainbeste gauza gertatu ondoren. Hau da, krater bat bezala aintziraren azpian, ba hori gara gu, krater bat aintziraren barruan eta leher-tu egiten dena noizean behin, beraz demokratikoki leher-tu egiten da. Eta ze irakaspen lortu dugu jokalaria handitze horretatik? Ba irakaspen bat mugimendu politiko batentzat nik militaritzen dudan horretan, Euskal mugimendu nazionallean. Nazioa baino garrantzitsuagoa estatalitatera heltzeko izan da demokraziaren kontzeptua ze demokraziaren kontzeptua harago doa, hau da, nazioa zilegiztatzen duen hori. Guk nazioaren inguruan zilegiztatu dezakegu %50- %52 arekin baina ni erabat sinetsita nago, erabakitzeko gaitasun horretan askoz ere gehiago bil genezakeela ba Katalunian gertatzen den bezala. Nik beti “Gure esku dago” bilerak egiten ditut jendeari bi gauza galdetzen: nork ez du nahi erreferendum hitzartu bat, bai, erreferendum hitzartu bat nahi dugu baina konstituzionalismoak konpondu ez duen gauza bat da nola hitzartzen duzun aurrean aulkia hutsik badago. Eta bigarrena, hemen erreferendum bat egingo balitz, Eskozian egin bazen bezala, “*Remind of live*” terminotan ze botako zenuke eta jende guztiak eskua altxatzen du eta “live” esaten du, alde egingo dugu orduan nik interesatzen zaigu egotea printzipio demokratikoa onartuz, ez botatuko lukeena “*Remind*” esango esaten duguna berri-egin behar dugu “Gure esku” filosofia ze jende asko luke, gelditu egiten gara eta botatzen baldin badugu ba gelditzen gara ondorio guztiakin. Hortik aurrera zer egin genuen? Egin genuen egoki iruditu zitzaiguna. Ni ez nago aholku asko emateko inori Jordi ze gu ahalegindu ginen eta ez genuen lortu eta beraz, saiatzeko dena eta lortzen ez duenak izan behar du apaltasun arrazoigarri hori aitortzeko ze zailtasun duen ba batek aholkuak emateko orain politikak egin behar dituenari eta gauzak konpontzeko azken batean baina bai apalki egin genuena izan zen oinarrizko kanpamendura eraman erabakitzeko eskubide hori eta berri-egin duena printzipio demokratikoa beti ere autodeterminazio eskubidera lotuta eta desnaturalizatua zegoena modu interesatuan argudio jakin batzuekin pisu handia zutenak eta tokikoa eta indarkeriari lotuta eta ETArekin lotzea eta nazioartekoa hau da, lotzea beti ere kolonien eskubideei. Nahiz eta nik dakidala ez ekialdeko Alemaniak ez mendebaldeko Alemaniak ez ziren kolonietako bakar bat ere eta printzipio hori erabili zen haiek elkartzeko horixe egin genuen guk, guk erabakitzeko eskubidea jarri genuen oinarrizko kanpamenduan eta gero zuek etorri zineten Jordi, zuek etorri zineten eta sufritu egin duzue eskubide urra-

tze indibidual eta kolektibo argiak eta ez zuek dituzuen ideiangatik, ez ezta horregatik baizik eta nahi izan duzuelako demokratikoki haiek garatu eta horregatik estatu mendekatzaille batek zer erabaki du, bueno bardin da zuk Jordi izena izatea baina inori okurritzen baldin bazaio bere ideiak demokratikoki garatzea zuek egin zenuten bezala, jakin ezazue hau guztia duzuela atzetik baina gauza bat esango dizuet Andre Juit-ek poeta frantses zoragarriak esan zuen olatu guztiek bere edertasuna zor diotela pasa ziren olatuei eta erretiratu ziren horiei.

Zuek adibide bat eman duzue, duintasun adibide bikaina eman duzue termino politikoetan eta demokraziaren kontzeptua goratu egin duzue eta zuen herriaren partehartzea eraman duzue maila go-renera eta gainera ausartak izan zarete gaur goizean Andonirekin nentorren eta esaten nion General ausartek Napoleonek Marotori esaten zion bezala: *ez esan aurrera egin, esaeizu jarrai iezadazue* eta zuek ikuspegi horretatik adibide bat eredu bat izan zarete, ez diozue gizarteari esan aurrera egin baizik esan diozue, jarrai iezadazue eta onena opa dizuet, onena beti. Nik pertsonalki sarri askotan esan dizuet maite zaituztet baina gainera sinetsi egiten zaituztet eta bigarrena, lehenengoa bezain garrantzitsua da. Eskerrik asko President.

Stephen Gethins

Moderatzailea

Eskerrik asko. Eta orain Quim Torra jauna entzungo dugu. Urrunetik hitz egingo digu. Eskerrik asko Quim Torra jauna hemen egoteagatik, zoragarria da zu pantailan ikustea.

Quim Torra

Arratsalde on, besarkada bat Lehendakaria eta lagun Amalur. Jordi pozik nago zu hemen ikustez Giro-natik eta Gethins jauna eskerrik asko zure konpromiso handiagatik eta aukera ematearren ni hemen egoteko, mahai inguru honetan egoteko. Lehendakari jauna sinbolikoki egin genuen erbestearen gure presidentek Companys eta Agirrek elkarrekin joan ziren erbestera eta elkartu ziren erbestean eta gaur ospatu egiten dugu Companys presidentearen erailketa duela 81 urte eta beharbada gogorarazi behar dira Agirre Lehendakariaren hitzak, beti bezala Kataluniaren kausaren alde egin zuena. Hau da, nik eskerrak eman nahi dizkizuet bihotzez egin didazuen gonbidapen honengatik mahai inguru honetan parte hartzeko. Gogorapen oso ona dut, uste du 2018 ko azaroan izan zela non zuetako askok eta “Gure Esku dago”rekin batera hemen egon nintzen Kurasaalean arratsalde zoragarri bat pasatzen konplizitate askorekin, Euskaldunen eta Katalanen arteko konplizitateak lantzen eta baita ere eskerrak zure hitzengatik Lehendakari jauna Kataluniaz hitz egin duzun moduagatik. Nik zentzu honetan nahi nuke zuri esker horiek eman ere bai ze zuk bide bat markatu zenuen zalantzarik gabe ze hori izan zen Kataluniak gero egin zuenaren abiapuntua, hau da, bere Ibarretxeren proposamena oso sakon aztertu genuen Katalunian. Uste dut funtsezkoa izan zela ulertzeko ate hori irekita zegoela, aukera bat zegoela behintzat, kaiolaren atea irekita zegoela nik normalean horrela definitzen dut Espainiar Konstituzioa, kaiola. Eta 2018ko azarotik aurrera gauza asko pasatu da, Jordi gaur gurekin dago, hori gauza garrantzitsua da eta COVID bezalako zoritxarrak bizi izan ditugu baina uzten baldin badidazue eta pixka bat oinarrizko arratsalde honetan eta eztabaida honetan, nik gehiago azpimarratuko nuke zer gertatu ez den, hau da,

ez gara gai izan, Espainiako Estatua ez da gai izan errepresioarekin bukatzeko eta adibideak etengabe-koak dira. Azken ordu hauetan jakingo zenuten kontu auzitegiak eskatzen ari da familia katalan askoren galbidea eta haietan guztietan pertsona horiek arduratu egin baitziren. Puigdemont presidentea erbestean da beste kide batzuekin batera jarraitzen du eta ikusi duzue Espainiar Estatuak edozein aitzakia, bueno nik beti hitz egiten dut Espainia dena bat dela, hau da, aurka egiten diogu ez bakarrik gobernuari baita ere botere judizialari eta abar... Beraz, nik beti hitz egiten dudanean Espainiar Estatuaz, hitz egiten dut orohar, hau da, bere eskura duen edozein tresna erabiltzen bait du jarraitzeko bere errepresioan. Nik uste dut mendeku bat besterik ez dela, mendeku bat modu demokratiko eta baketsu batean emaitza batzuk mahai gainean jartzen saiatu zirenean. Eta nik uste dut eta Lehendakari jaunak esan duen bezala, orain partehartze labur honetan flash bat bota nahi nuke nire esperientzia pertsonalaren inguruan. Laburra izan da baina intsentsua izan da nire presidente gisa izan dudana. Oso denbora gutxian egon naiz, esaten dizuedan bezala eta espero dut balio izan duela esperientzia hau, ba egiaztatzeko beharrezkoa dela berriz ere ze 300 urte daramagu egiaztatzen baina berriz ere egiaztatzen dugu ezinezkoa dela Espainiak aitortzea autodeterminazio eskubidea. Espainiako Estatua barruan dau den nazioen eskubidea ez zen posible izan errepublikarekin, pentsaezina izan zen frankismo garaian baina errestaurazio borboniko berrian ere ematen du ezinezkoa izan dela, trantsizio garaian ere ezinezkoa izan zen. Herrien autodeterminazioen eskubidea ez da kontenplazten konstituzioan, ez da kontuan hartzen eta euskal ordezkari gehienek ez zuten konstituzio hori errefrendatu, ez zen kasua izan diputatu katalanen kasuan baina bai diputatu batzuen kasua. Barrera jauna gogorarazi nahi nuen bere keinuarekin gutxienez duindu egin zuen bere abstentzioa konstituzio horren aurrean, hain zuzen ere, Lehendakari jaunak esan zuen bezala. Ez Espainiak ez guk ez dugu gaitasunik edo konpetentzia nahikorik ezer erabakitzeko autodeterminazioaren inguruan, hain zuzen ere herri horien eskubidea izanik. Euskal eta Kataluniako gatazkaz hitz egiten da eta definizio hori perbertsoa da bere baitan, hau da, ez dago ezer gatazkatsurik hor. Hau da, nazio batek besterik gabe nahi izatea Estatu bihurtu, hor ez dago ezer gatazkatsu baina dena demokratiko du aitzitik eta nik ere gauza bera esango dut, Lehendakariak esan duena esango dut, gatazka baino gehiago, ondo legoke terminologia beste modu batera erabiltzen, aspirazio demokratikoaz hitz egingo bagenu eta munduko herrialde desberdinetako herriek ba iritzi direnean ondorio batetara, hau da, bere gizartearen parterik garrantzitsuena eta duten indar guztiarekin eta aukera guztiekin eta Estatua izateko eta hori eskaintzeko bere herritarrei hobeto joan zitezen bere seme-alabek etorkizun oparoagoa izango lukete, aukera gehiago izango lituzkete, bizitza duin bat izateko. Uste dut aspirazio hori zilegi dela eta demokratikoa dela eta beraz, azken batean uste dut horretaz ari garela, jarduteaz sakonki eta modu erradikalean benetan demokrazian, ariketa demokratiko sakon batez ari gara. Eta momentu honetan Espainiako Estatuan esango nuke Euskadin eta Katalunian soilik dugula aukera, zuen baimenarekin, haustura bat sortzeko sistema batean, erreforma baten bidez ez haustura itxurarekin eta aukera izan nuen ere president nintzela Portugalera joateko, hitz egin nuen senatariekin, diputatuekin eta iruditu zitzaidan gakoa hor dagoela, erreforma bat egitean eta erreforma horri esker da posible hain txertatuta dauden egitura zurrun eta frankista horiek botatzea edo eraistea eta hori garrantzitsua iruditzen zait. Uste dut gainera horrela zilegitasun handiagoa duela mugimendu independentistak, bai euskaldunak eta bai katalanak, nolabaiteko izaera demokratikoagoa ematen bait digu. Trantsizioan uste dut agian ez genuela lortu sakontasun demokratiko hori. Dakizuen ez ni 155.na aplikatu zenean bihurtu nintzen presidente Katalunian. Berriri martxan jarri behar izan genuen gure zuten eta berarekin izan nituen bilerak eta proposamena ez zen Ibarretxe Jaunarena bezalakoa baina bai eduki nuela aukera berarekin hitz egiteko eta elkarrizketa maila zeritzona abian jartzeko. Eta hain zuzen ere Sanchez jauna alderdi sozialistakoa izanda ere, bere erantzuna ez da Alderdi Popularraren

oso bestelakoa, ezta? Ez, ez da edo inoiz ez kasu honetan eta gauza batzuk ezin dira jarri mahai gainean, ezta? eta horregatik iruditzen zait garrantzitsua gaur hemen egiten ari garena eta iruditzen zait hitzak zuzen erabili behar direla. Ezin diogu elkarrizketa-mahai deitu komunikagarritasun politikoaren mahai bati. Horrek ez dio laguntzen Kataluniako mugimendu independentistari, ez du laguntzen kontakizun nazionala egiteko eta Ibarretxe Jaunak ongi daki mahai batean zer izan beharko genukeen hizpide: Data, erreferenduna noiz egingo dugu, nola egingo dugu, ezta? Elkarrizketa mahai batean aukera izan beharko genuke hitz egiteko eta ez Parlamentuan zerbait proposatzea, helegite bat aurkeztea eta inhabilitatua izatea. Uste dut onartezinak direla baldintza horiek eta beharrezkoak direla nazioarteko behatzaileak, errelatoreak, bitartekariak... Eta hor galdera bat ere sortzen da: nola egin daiteke ariketa demokratiko bat efikaza izango dena eta zerbait irabaztea ahalbidetuko gaituena. Lehendakari Jaunak egin zuen ahalegina, saiakera egin zen eta uste dut Jordik nik baino zilegitasun handiago duela azaltzeko zer egin zen, zergatik ez garen independenteak, zertan egin genuen kale eta iruditzen zait teorikoki egituratuta zegoen moduan, ongi egituratuta zegoela, prozesua demokratikoa zen eta Kataluniaren Parlamentuaren babesa zuen eta han dago Kataluniako nazioaren subiranotasuna. Baina zerbaitek huts egin zuen: erreferendum legeak, transitorietate legeak, legezketasun berri batera eraman behar zutenak ez ziren aplikatu baina uste dut arazoa ez dela bakarrik hori; Badaude beste gai batzuk gehiago sakondu behar direnak eta iruditzen zait ez genuela defenditu ariketa demokratiko hura Katalunian eta ez genuela azkenengo muturreraino eraman ariketa horren defentsa. Eta lagun batek, nire abokatuak, eta tira, askoren abokatuak, esaten zuen judizializazioa horrelako muturretara iritsi dela gaur egun, ezta? Generalitateko president bat ezgaitu daiteke, ezta? mutur horietara iritsi da, ez dielako agindu nahi pankartak ken zitzaten Kataluniako erakunde horietan, ezta? Nola eskatuko nion nik jendeari askatasunez ez adierazteko bere burua? Badago esaldi bat diona Britainiarrak ohituta daude 5 minutu arinago ateratzen kolonietatik, Espainiarrak beti 5 minutu beranduago. Eta uste dut esaldi honetan bada goela jakinduria dezente, erakusten baitugu zaila dela ere zorrotzasunez betetzen bada demokratikoki prozesu bat, %100an demokratikoki jokatzeko bada, zaila da kaiolatik ihes egitea ez badugu egiten horrekin batera beste ariketa bat. Ariketa demokratikoa batetik baina bestetik ariketa guztiz desobedientea edo obediente legezketasun berriarekiko. Denok dakigu zer kasu edo zein egoeratan egon diren Eskozian eta munduko beste hainbat adibide ere baditugu baina kontuan izan behar dugu, aldebakarrakotasuna ez dagoela debekatuta. AGAKO irizpidetik gauzak aldatu dira eta zerbaitetarako ditugu nazioarteko auzitegi horiek. Kontua da aitortzarik ez edukitzea baina beste zerbait da debekatuta egoitea beraz, debekatuta ez badago jardun daiteke, egin daiteke eta baldintza horiek uste dut denok onartzen ditugula. Eta uste dut denok nahi dugula prozesu demokratiko eta bake zale bat. Eta amaitzeko, lau ideia, lau ondorio: Nire iritziz ez gaude testuinguru anglosaxoi batean, Espainiaren testuinguruan gaude eta Espainia patriaren batasun banaezin horretan konstituzioa du eta hura bermatzeko armada du eta ez du aitortuko inoiz autodeterminazio eskubidea bertako herrientzat ze zesioa beraz, aldebakarrakoa izango da, nazio horretan baimenduta dago modu demokratiko batean egiten bada zorrozki baina horrekin batera esan bezala, desobedientzia ariketa bat egin beharko da edo obedientzia legezketasun berriarekiko. Beraz, autodeterminazioa printzipio demokratikoa betetz, autodeterminazioa Ibarretxe lehendakari ohiak esan bezala. Ordezkatzen ditugun nazioek duten eskubide alienazio horregatik ez dugu eskumena gure burua ukatzeko baina baita ere autodeterminazioa azkenengo baliabide gisa, egoera bidegabe bat konpontzeko. Horrela ulertuta, uste dut autodeterminazioa gauza modernoa dela, indarrean dagoena eta guztiz garaikidea dena. Eta horrekin amaituko dut eta galderen eta eztabaidaren zain geratuko naiz. Mila esker.

Stephen Gethins

Moderatzailea

Eskerrik asko zure hitzengatik. Hemen gaude eraldaketa demokratikoaz hitz egiteko, demokraziaz hitz egiteko eta demokraziak ez du funtzionatzen inon politikarien laguntzarengatik ez bada. Gizarte zibilaren inplikazioa ere kritikoa da mundu osoan zehar eta pozik nago baditugulako bi politikari eta mugimendu zibilen bi ordezkari, oreka bikaina. Jarraian Alvarez doktoreak hartuko du hitza.

Amalur Álvarez

Beno, aurrena eskerrak eman nahi ditut antolatzaileei, “Gure Esku”ri aukera bikain eta eder hau emateagatik eta azkenean guretzako aukera bikaina da azaltzeko guk aldarrikatzen ditugun erabakitzeko eskubideak zer lotura daukan gatazken konponbide demokratikoarekin eta “Gure Esku”ren lana eta ekarpenak ze lotura daukan guzti honekin. Eta bide batez ere, lagun Katalanei eta kasu honetan Eskoziarrei ere eskerrak eman zeren nik uste dut guretzako, Aieteko hamargarren urteurrena ospatzen dugun honetan, aukera ederra daukagula aurrera begira jartzeko eta zuekin batera, aurrera begira jarri eta hausnarketa horiek partekatzea oso aberasgarria dela iruditzen zait. Eta hau esanda zerbait aitortuta hasi nahi dut: Erabat diskurtso pragmatikoa ekarri det. Ez dakik adin kontua dena edo genero kontua den ... Ohituta nago arazoaren muinera joaten nire bizitzan, bestela denborak jan egiten nau eta erabat diskurtso pragmatikoa ekarri dut. Analisi txikitxo bat egingo dut egungo egoerarena baina batez ere gustatuko litzaidake modu propositiboan aurrera begira jartzea, ez? Eta horretarako hasiko naiz Aieteko adierazpenaren laugarren puntua mahai hontara ekartzen. Duela hamar urte Aieteko adierazpen horretako laugarren puntuan jaso egiten zen kultura eta gizarte demokratiko baterako oinarritzakoa den konpromiso bat. Edozein auzi, edozein gatazka, edozein proiektu politiko bide demokratiko eta baketsuetatik erantzun behar zaiela. Hamar urte pasa dira eta ordutik urteak daramazkigu lantzen edozein ekintzen bidez, mugimendu zibilen bitartez, dinamika desberdinen bitartez ... baldintza desberdinak konpromiso hori errealitate bat izan zedin. Baldintza desberdinak sortzen, baldintzak gertatutakoaren memoria demokratikoaren oinarriak eztabaidatu ahal izateko. Iraganetik irakaspenak aterata baina aurrera begira konpromisoak hartuz ere. Indarkeria mota guztiak baztertu eta errefusatuz. Asko dago egiteko bide horretan baina egon gara hamar urte horietan horretarako baldintzak sortzen ere. Eztabaida sozial, politiko eta instituzionalerako jarrerak eta espazioak sortzen. Gure arteko konfiantzak lotzen eta gure arteko konfiantzak ehuntzen herri-akordio zabaletara iristeko gai izan gaitezen. Hori lantzen egon gara hamar urte hauetan ere. Balio demokratiko eta baketsuekin gizarte aktibo eta konprometitu bat eraikitzen, hori ere oinarritzako baldintzetako bat izan da hamar urte hauetan lan egiten egon gara eta ere, erabakitzeko ahalmena eta tresnak izateko lan egiten egon gara eta bagaude horretan ere. Azkenean hori da gatazka demokratikoki konpontzeko bidea ez? Horretarako tresnak eta bideak eta aukerak izatea. Eta urratsa garrantzitsuak eman ditugu norabide honetan. Asko dago egiteko baina nik uste dut, balioan jarri behar dugu ere egindakoa. Duela hamar urte inork gutxi imajina zezakeen, Iparraldean instituzio propio bat izango genuenik, Nafarroan aldaketaren aldeko indar politikoak gobernatu zezaketenik, Euskal Autonomi Erkidegoan autogobernuaren eztabaida irekitzeko akordio politiko bat lortuko genuenik edo presoen gerturatzea posible izango zenik. Guzti hau gainera ez da kasualitatez gertatzen, ez da bakarrik gertatzen aukera politiko batzuk irekitzen direlako, gizarte zibiletik urteetan egindako lanari esker ere

gertatu da guzti hau eta ematen da guzti hau.1:04:06. Ezinbestekoa izan da gizarte zibiletik egindako lana eta honek ere isla izan du herritarren borondatea, egun erabakitze eskubideak babes sozial, zabal eta anitza du Euskal Herrian, Euskal Herrian eta hiru lurraldeetan. Naziometroaren datuak eka- rri nahi ditut momentutxo batean: Azken inkestaren arabera, Euskal Herritarren %67k haien lurral- deko etorkizun politikoa erabaki nahi du eta %73-k dagokien lurraldeko gai sozial, ekologiko eta eko- nomikoekin zerikusia duten edukien inguruan erabaki nahi du. Hau da, Euskal Herritarrok erabakitze borondate eta determinazio argia dugu, hori ukaezina da, baina hamar urte pasa dira Aietetik eta hamar urte horietan hori errealitate bilakatzeko bide orririk ez dugu mahai gainean eta hori ere esan beharra dago. Eta uste dut momentua dela Aieteko hamargarren urteurren honetan esateko momentua dela, bide horri eusteko eta bide hori errealitate bilakatzeko eta zehaztasunetan sartzeko eta horretan eztabaidatzeko, ez? Jarrerak landu ditugu urte hauetan eta jarrera horiek lan- tzen jarraituko dugu eta behar beharrekoa da baina konpromiso hori errealitate bat bilakatzeko bi- deak ere eta tresnak behar ditugu. Zein da konponbidea? Eta horretan enfokatu nahiko nuke bigarren zatia. Zein da konponbidea? Konponbidea identifikatzeko, aurrena gatazka bera identifikatu behar dugu. Hori da aurreneko urratsa eta “Gure Esku”tik gatazka identifikatzerako orduan, bi elementu jartzen ditugu mahai gainean. Eskuartean dugun gatazka politikoak bi elementurekin definitzen di- tugu, gau egun gutxienez: Alde batetik aitortza gabezia, gure komunitate politikoaren aitortpen gabe- zia bat ematen da eta azkenean komunitate politiko moduan erabakitze gaitasuna, gutxietsi edo baztertu egiten zaigu Estatuen eskutik, ez? Orduan horren aurrean subjektu politikoaren aitortzaren aldarria dago alde batetik. Baina horrekin batera, aldarri demokratikoa dago ere. Komunitate politi- koaren aitortza printzipio demokratikoarekin lotuta aldarrikatzen da, hau da, aldarrikatzen da azken finean herri erabakitik kanpo kokatzen den erabakirik ez dagoela, bai? Eta aldarrikatzen dena da guz- tiaz erabakitze eskubidea baita marko politiko, juridikoaz gure etorkizun politikoaz erabakitze ere. Aldarrikatzen da subjektu politikoaren aitortza, printzipio demokratikoari lotuta eta gatazkaren identifikazioa egitea garrantzitsua da ere, konponbidearen noranzkoa identifikatzerako orduan eta uste dut hori dela aurreneko urratsa, “Gure Esku”-n gutxienez modu honetan identifikatzen dugu non dagoen gatazka politikoa eta konponbideari begira, guk bi begirada edo ikuspuntu aintzat har- tzen ditugu: Kanpora begira, kanpoko ereduari begiratzen diegu, munduan zer gertatzen den eta munduan holako prozesuei nolako erantzuna ematen zaion eta barrura begira, ez? Barrura begira, jendearen iritzia, jendearen borondatea non kokatzen da. Kanpora begira hasiko naiz, munduari be- giratzen badiogu nola konpontzen ari dira gatazka hauek munduan, zein eredu eskaintzen dituen ba Erreferendum-a da gakoa. Eskoziak, Quebec, Kaledonia berria, Katalunian, Ipar Irlandan ere hasi da erreferendumaren aldeko aldarrikapena indarra hartzen. Herrien autodeterminazioa gauzatzeko modu argiena, jendeari zuzenean galdetzea da, demokrazia zuzena. Azkenean sezesionismoaren ekintza kolektiboa proposamena bilakatzeko ari da erreferendum-a eta hori da mundu mailan ager- tzen ari den tendentzia bat. Hori adostua izan edo aldebakarrekoa izan baina agertzen ari da ariketa kolektibo egokien moduan. Eta barrura begira, zer dio Euskal Herritargoak, Euskal Herritarrok zer diogu, ez? Ba gure gizartean gehiengo zabal batek mundu mailako tendentzia horiekin bat egiten du, bide horiekin bat egiten du eta hiru elementu aipatuko ditut: Lehen aipatu dut inkestak. Inkestei be- giratzen baldin badiegu eta galdetegiari begiratzen baldin badiegu eta ez horri bakarrik, antolatu ditu- gun mobilizazio erraldoieki begiratzen baldin badiegu, modu iraunkorrean eta goraka islatzen da etor- kizun politikoaz eta beste gaietaz erabakitze nahia eta aldarria eta beharra. Esan dudana bezala, azken Naziometroaren arabera, 10 herritarretatik 7-k erabaki nahi dute. Bigarrena eragile mugimen- du eta politiko sozial anitz gara Euskal Herrian burujabetzaren alde egiten dugunak. Geroz eta gehia-

go marko, juridiko, politiko berri bat eskatzen dugunak edo aldaketa beharrezkoa dela ikusten dugunok. 1:09:50 Egungo markoaren zilegitasuna dudan jartzen dugun eragileak eta mugimenduak geroz eta gehiago gara Euskal Herrian. Eta horrekin batera alderdi eta indar politikoak ere, alderdi hauen aldeko indar politikoak gehiengo bat osatzen dute hiru lurraldeetan, EAE-n legebiltzarraren %60 dago erabakitzeke eskubidearen alde. Nafarroan bertan erabakitzearen aldeko indar politikoak gehiengo bat osatzen dute ere. Eta Iparraldean burujabetzaren aldeko indar politikoak goranzko joeran daude. Erabaki nahi dela argia da eta zabal adierazten da gainera eta gainera eta adierazi egiten da nola erabaki nahi den ere eta horretarako berriro ere Naziometrora joko dut oso tresna baliagarria da “Gure Esku”-n. Galdera bat egiten dute zentzu honetan oso argigarria dena: Bi galdera egiten dituzte, bata zein neurritan zaude ados Espainiatik edo Frantziatik independizatzearekin? Galdera modu honetan egiten bada, kontra %42 -k egiten du eta alde %27-k, 15 puntuko diferentzia dago kontrako joerak jasotzen du gehiengoak. Aldiz testuingurua aldatzen baldin badiogu eta beste modu batera galdetzen badugu galdera hori? Modu honetan formulatzen dute: alderdi politiko guztiek edo gehienek adostu dute Euskal Estatuari buruzko aldeko erreferenduma egitea eta Madriletik eta Parisetik onartu da. Erreferendum-a guztiz ofizial da eta onartu da. Kasu honetan testuingurua aldatzen badiogu. Euskal Estatuari buruz galdetzen denean, ba aldekoak %40 atzeratzen da eta kontra %30. 10 puntuko diferentzia dago eta aldeko aukerak jasotzen du gehiengoa. Analisi honetatik ateratzen diren ondorioak: 1) Ukaezina da gatazka politiko eta soziala dagoela. hori onartu behar dugu gehiengo sozial eta politiko zabala gure herrian, egungo marko politikoaren zilegitasuna dudan jartzen du eta erabaki nahi du, zuzenean erabaki nahi du. Eta horretarako bide orria behar dugu eta bide orriaren norantzkoa ere argia da, bide baketsu, demokratikoan eta adostuetatik etorri behar da konponbidea eta aldi berean eskaini behar zaigu komunitate politikoaren aitortza eta herritarroi erabakitzeke gaitasuna. Hau argia da beraz, norabide honetan jarri behar dugu konponbidea. Zein da “Gure Esku”-ren proposamena, zein da konponbidea? Ez da ezer berria esango, erabakitzeke eskubidea erreferendum adostu baten edo batzuen bidez gauzatzen dena. Eta honetan guztiok badakizue non posizionatzen den “Gure Esku”. Baina bai gustatuko litzaidake azkar batean azaltzea berriro ere azken urteotan egin duguna baino berriro ere erabakitzeke eskubidearen pedagogia hori egitea eta azaltzea” Gure esku”-n zergatik ematen diogu hainbeste garrantzia erabakitzeke eskubideari eta zergatik uste dugun hor dagoela konponbidea eta nola ulertzen dugun guk erabakitzeke eskubidea. Guretzako erabakitzeke eskubidea tresna bat da, hain zuzen aldarrikatzen ditugun behar eta gaitasun horiek lortzeko eta eskuratzeko tresna edo bidea da erabakitzeke eskubidea. Definizio akademikoa ekarri nahi dut, urteak pasa ditut erabakitzeke eskubidea modu teorikoan ikasten eta uste dut argigarria dela baina bakarrik puntu akademiko hau. Definizio zehatzak honela dio: *Lur eremu zehatz batean kokatzen den komunitate bati eta demokratikoki gutxieneko antolakuntza bat duena bertako etorkizun politikoa, estatus politikoa eta oinarritzko marko instituzionala independentziarako autua barne, hori aldatzeko borondateaz hasi eta gauzatzeko aukera ematen dion eskubidea da, tresna eta prozedura demokratikoen bidez eta adostasunez aurrera ateratzen den eskubidea da.* Beraz bi gaitasun aitortzen dizkigu edo ematen dizkigu erabakitzeke eskubideak: Batetik, adierazteke gaitasuna: Gure etorkizun politikoaren aurrean, herritarroi gure borondatea adierazteke gaitasuna ematen digu erabakitzeke eskubideak eta bestetik gauzatzeko gaitasuna. Adierazitako borondate hori gauzatzeko eta aldebikotasunez estatuarekin negoziatzeko gaitasuna ematen digu. Azkenean erabakitzeke eskubidea komunitatearen autoeraketa ariketa bat da oinarritzen dena batez ere, herritarron borondate demokratikoan. Beste zilegitasun batzuk ere agertu daitezke, zilegitasun historikoa, kulturala, hizkuntza eta abar...baina batez ere oinarria demokrazian da. Zilegitasuna, zilegitasun demokratikoan oinarritzen

da komunitate politikoaren autoeraketa ariketa hori. Eta nik uste dut, hau hona ekarri nahi nuen, barkatu txapa luzea izan bada, baina nik hona ekarri nahi nuen ze nik uste dut, mahai honetan gauden guztioz eta ziurrenik hemen gauden guztiok, puntu honetan ados gaudela, non dagoen konponbidea, beste kontu bat da, eta gero sartuko da ziurrenik eztabaidan, hori lortzeko zeintzuk diren baldintzak, non ikusten ditugun aukerak, zeintzuk diren mehatxuak eta abar.. Baina nik uste dut garrantzitsua dela, edo behintzat “Gure Esku”rentzat gaur garrantzitsua zan norabide argi hori markatzea eta berriro ere, mahai gainera ekartzea. Beste kontu bat da, kontziente garela eta jakitun garela, indarkeria, errepresioa, kriminalizazioa baliatzen duen estatu bat dugula aurrean eta horrek zailtasuna ekartzen dituela halako bide bat aurrera atera ahala izateko. Baina horrek ez du esan nahi amore eman behar dugunik edo gure etorkizuneko nahiak gutxitu behar ditugunik. Bai hitz egin beharko dugula ze estrategia eraikitzen dugun eta zein den bidea horretara iristeko baina bueno horrekin utziko dut nahiko hitz egin dut eta gero jarraituko dugu. Eskerrik asko.

Stephen Gethins

Moderatzailea

Eskerrik asko Amalur. Jarraian azkenengo hizlariari emango diogu hitza galderekin hasi aurretik, Jordi Cuixart, zer diozu zuk eraldaketa demokratikoari buruz? Eta gero bai galderak egingo ditugu baina aurrena, Jordi, zuk duzu hitza.

Jordi Cuixart

Mila esker, arratsalde on lagunok, Ibarretxe Lehendakaria, Amalur ... Plazer handia da hemen zuekin bakearen alde borrokatzen ari zareten guztiokin. Pribilegio handia da eta eskerrik asko antolatzaileei eta eskerrik asko hau guztia posible egiten dutenei duela hamar urte ere. “Gaur Euskal Herrian egotea eta gizarte zibilak gatazken eraldaketa demokratikoan duen papera aldarrikatzea” (*txaloak*)

Oso esku zabalak zarete zuen txaloekin. Atsegin handia da hemen egotea, kronometro bat jarri dut inor ez haserretzeko hamar minutu zorrotz erabiliko ditut. “Gure Esku”ren deialdi batean egon nintzen sei hilabeteko semearekin Bilbon espetxera sartu aurretik eta hori zen gure familia argazki bakarra eta nire semea egon da prentsa aurreko askoan munduan aurrera eta atzera “Gure Esku”-ren pegatina batekin Txell-ekin nire emaztearekin, eskuminak bere partez. Omnium Cultural, ezagutzen ez duzuenontzat, Erakunde zibiko kulturala da sei hamarkadatik gora daramatza, hiru jarduera handirekin lan egiten.

Eta bigarrenaz, Kohesio sozialaren proiektu handietan eta hirugarren *brunch* edo hanka mahai honetan da giza eskubide zibilak babestea Paisos Catalans-etan. Erakunde hau duela 60 urte sortu zuten bost enpresa buru bisionarioak zirenak baina erantzuten ziotenak oso sustraituta dagoen errealitate bati. Estatu ez dugunez gero, estatu egiturak sortu behar ziren gizarte zibiletik, pentsamolde honetatik bestela ezin izango litzateke ulertu ez Ateneoak ez Casal-ek ez beste organizaziorik benetako estatu egitura gisa jokatzen dutenak baina azken batean gizarte zibilak lideratzen dituztenak garrantzitsua da ere ulertzea seguruenez beti ere Omnium Culturalaren konpromisoari esker gaur egun hiz-

kuntza eta kultura katalanak kohesio elementu bat dira Katalunian eta baita ere ulertuta herrialde bat non migrazioa egiturazkoa da. Hori horrela da gertakari migratorioak gizarte katalan definitzen du ze gurasoak gaztelaniadunak dira eta oso interesgarria iruditzen zait eta nire gurasoak ere erabaki zuten niri katalanez hitz egin behar zidatela, ze Katalunian nengoenez gero, bestela non hitz egin behar da katalan ez bada Katalunian. Hau garrantzitsua da ukatzeko ze garrantzia duen gizarte zibilak Kataluniako askapen mugimenduan “*procés*” izenekoan gizarte zibilak motor eta traktorea izan da eta hau notizia ona da baina baita ere erantzukizun bat dakar berarekin eta gu gaur gauden erantzukizun horretan gaude, hau da, frustrazioa bideratu nahian gabiltza eta zer bilatzen dute beste aldetik borrotzen dutenak zatitzea Chiding efektu hori sortu eta gehiago borrokatu ez dezagun, kartzelan egon gaitezen eta kosta egiten zaie argudiatzea eta gero atera egiten gaituzte horregatik. Pedro Sanchezek esaten zuen indulturik ez, ez, baina gero atera egin gintuzten. Horrek esan nahi du Chiding efektu horrekin lortuko zutela Katalanek ez borrokatzea. Ez zaizue ondo aterako zuen borroka, denok kartzelan bukatuko duzue eta denok erbestean bukatuko duzue ba oraindik Puigdemont presidentea dugun bezala eta gero hiru kontseilari, lehenagoko gobernuko presidente eta kontseilariak. Eta hori da errealitatea eta nik uste dut gizarte zibilak ekintzaileak hor egin behar diotela aurre, minimizatu egin behar dutela Estatuak jazartzen dutena. Disidentziari eraso egiten diotenean Katalunian egin duten bezala eta negoziazio markoetan eta baita ere gatazka politikoak konpontzeko orduan ekin-tzailatzatik erantzukizun handi hori dugu eta ez proposamen politiko batzuen izenean. Hasiera batean erakargarriak izan zitezkeen ze betik izan zen presionatu genituena politikoak. Katalunian gertatu dena alderdi politikoak hor egon arren eta ni ez naiz anti alderdi, kontrara nik uste dut bada-kigu zer den alderdi politikoen alternatibak, totalitarismoa eta pentsamendu bakarra baina hautes-kundeen emaitza badakigu zein izan zen eta konstituzionalean hala ere entzun egin behar izan zuten herritarren bosa. Herritarren bosa oso modu zeharkakoan adierazten duena bere burua baina nahiko aho bakarrarekin eta %80 autodeterminazioaren alde daudenean, parkatu baina errepresio oso gogor baten ondoren hau da, kartzela eta erbestea ezagutu dugu, izun milioidunak eta 3.500 pertsona baino pertsona gehiago daude izan ere errepresaliatuak. Ikusten ari gara independentismoa hazten ari dela Katalunian eta %52ra iritzi dela eta subiranotasuna %52tik gora 75eko ordezkartza duela. Beraz beraiek nahi dutena da utzi amets egiteari, utzi borroka egiteari ze ez duzue lortu. Egia da eta zentzu honetan uste dut hemen nolabaiteko eztabaida sor genezakeela, hau da, zer ikasi dugun, zer ikasketa sozial ikasi behar dugun. Gizarte zibila eta Euskal Herriaren kasuan adibidez eta Aieteren kasuan ikusi ahal izan zen oso modu argian funtsezkoa dela akordioetara iristea ba Katalunian gaur egun ezinbestekoa da gizarte zibila presionatzen jarraitzea alderdi politikak zer estrategia partekatu batera iritsi behar da. Ze bestela oso zentzu gutxi du negoziazio mailtara joatea lehendabizi ez baldin badago, badago estrategia partekatu bat fronte subiranotik eta ez baldin bada negoziazio maila erabiltzen arma gisa alderdien artean. Gero dago bigarren parte eta gaur Estatu Espainiarrak duen borondate hutsa. Ez du inolako borondaterik Espainiako gobernuak egiazko borondaterik akordio batetara iristeko negoziazio mailan, akordio mailan Gaur egun ez dugu ikusten borondate hori baina guk badugu horren ardura, ere bai gizarte zibila garen aldetik exijenteak izan behar dugu politikariek akordio horretara iritsi daitezen eta politikariak ere egokitu egin behar dira errealitate berrietara. Eta aldi berean egia da orain ezin duguna egin da espektatibak gutxitu eta benetan desobediencia zibila handiena izan zen horren kontra egin European, hau da, urriaren 1ekoa desobediencia zibila masiboa baino gehiago da. Omnium-en ikuspegitik Jabego kultural izugarri handia da, oso zaila da aurkitzea 2 miloi lagun kalera ateratzen direnak eta ikusita ze indarkeria poliziala zegoen plastikozko kutxa batean paper bat jartzea 2 miloi ta erdi pertsona horiek herritarrak dira konpromiso handia

du tenak demokraziarekin. XXI. mendean non ikusten dugu etxean gelditzen bazara telelana etxean duzu eta Amazonek ekartzen dizkizu gauzak etxera beraz, bizi gaitezen montatu duten kapitalismo magiko eder horretan etxetik atera gabe. Ba urriaren 1ean 2 miloi ta erdi lagunek erabaki zuten kalera ateratzea eta poliziaren indarkeriaren aurreran eta auzitegi konstituzional baten etendura baten aurrean nik erabakitzen dut oinarrizko eskubideak aurrera eramatea, hori da babesteko modurik onena, haiek babestuz. Hori gertatu zan 2017ko Urriaren 1ean. Historiak emango digu perspektiba egokia, orain ez dugu zertan egin Katalanak egin genuena beste dagokion toki batean jarri, ez dagokion toki batean jarri baina desobedientzia zibilaren ariketa honek nolabait bermatu egiten du, abalatu egiten du ze konpromiso duen Kataluniak demokraziarekin baina baita ere konstituziorekin ze azken batean desobedientzia zibila edo kaosa. Guk desobedientzia zibila erabiltzen duguna ez dugu esaten “a! konstituzio Espainiarrak guztiak ez du ezertarako balio, oso txarra da!” Ez Espainiar Konstituzioak ez du erreferendumak egitea debekatzen, ez dago tipifikatuta zigor kodean ez da inor, inon debekatzen. Herritarrek libre eta demokratikoki erabakitzen dute suspentsio kautelar baten aurrean edo eskubide oinarrizkoak egikaritzeko orduan erabili ditzagun gure eskubide oinarrizkoak. Komunitatean sinesteak nik uste dut horrek denborarekin transzendentzia handiagoa izango duela. Minutu bakarra geratzen zait. Nire ikuspegitik zer erakusten digu Aietek eta erakusten digu indar handiarekin. Ki-deekin hitz eginda ikusi dudak bezala eta baita ere antolatzaileekin hitz egin dudak bezala badakizue Omniu Culturalatik asko estimatzen zaituztegu. Hiru gauza funtsezko esan nahi ditut: Alde bate-tik Gizarte Zibilaren garrantzia, eraldaketa demokratikoaren prozesu guztian dena delakoa, borroka, larrialdi klimatikoa, genero berdintasuna, mundu osoko herrien duintzea. Edozein parte hartze kolektiboan Gizarte Zibilak ezin dio bere paperari uko egin, bigarrenaz Aietek erakusten digu ezin direla betoak egon, hau da, betoak proposatzen badu norbaitek alde batek ez du zintzo jokatzeko, betoak baldin badaude ezin da guztiaz hitz egin eta hirugarrenez guretzat ere oso garrantzitsuak eta Aietek erakutsi digu nazioarteko komunitatearen parte hartzea Paisos Catalans-etan goiz edo berandu nazioarteko komunitateak ere asumitu egin beharko du ze erantzukizuna duen Europak. Erantzukizun handia du Europar herritarrekin. Eskatzen ari dira oinarrizko eskubideak errespetatzea eta autode-terminazioarako eskubidea, eskubide funtsezkoa da Eta hori babesteko modu bakarra da hura egikaritzen taula erabiltzen eta Aietek zentzu horretan erakusten digu nazioarteko eragileak hor egotea ezinbestekoa dela gatazka politikoak ebazteko. Eskerrik asko zuen arretagatik.

Stephen Gethins

Moderatzailea

Eskerrik asko. Eskerrik asko gure hizlari guztiei, ikusleei, entzuleei ere bai. Mila esker denborak errespetatzeagatik lehen aurkezpen honetan eta orain bai pasa gaitezen galderen txandara. Eta hasi aurretik gogora ekarri nahi dut ez baduzue jadanik egin zuen galdera idatz dezakezuela. Mesedez pasa gure laguntzaileei aretoan dauden laguntzaileei eta haiek ekarriko dizkigute. Gogoraraziko dut Aieteko adierazpenaren hamargarren urteurrena ospatzen ari garela eta azken egun bi hauetan benetan harritu egin nau, bai hitz egin dugu bakeari buruz, demokrazia ere hitz egin dugu baina bakeari buruz asko harritu nau, batez ere GK eta Tighe Nazio Batuetako adituek esan digutena bakearen eraikuntzari dagokionez. Hau ez da hasten eta bukatzen den prozesua baizik eta etengabea den prozesua da. Eta demokraziaz ari garela, hau ez da momentu batean gertatzen eta desagertzen beraz, beti lanean jarraitu behar dugu arlo honetan eta garrantzitsua da. Eta edozein demokratarentzat uste

dut kontziente izan behar dugula mundu osoko arazo bat dela, mundu osoari dagokion arazo bat. Eta gero ta gehiago ikusten dugu pertsona gutxiago joaten direla botoa ematera hauteskundeetan. Jaki-na, demokraziak funtziona dezan nahi dugu mundu guztia inplika dadin, herritar guztiak inplikatu behar dute eta hori da kezkatzen gaituen joera bat eta deserosoa da hauteskunde partaidetza geroz eta urriago dela eta orain bai planteatuko dut lehen galdera eta hasiko gara amaieratik. Hasiko gara mugimendu zibilekin eta gero pasatuko gara politikoengana.

Hasiko gara beraz: zer pentsatzen duzue hauteskunde partaidetzari buruz, nola hobetu genezake hauteskundeetan jendeak parte hartzea eta herritarrak inplikatzea erakunde demokratikoetan beraz. Jordi, zurekin hasiko gara.

Jordi Cuixart

Beno, ez dakit oso ondo erantzun ahal izango dudan. Ez da nire espezialitatea egia esan hauteskun-deen parte hartzea baina bada errealitate bat. XXI. mendean gaude eta lehen ere esan dut gauza bera, gizartea, ekintzailtza, urte askotan pentsatu dugun bezala mobilizazio hau eta konplizitate hauek beti ere erantzuten zieten estereotipo batzuei eta konturatzen ari gara gizartean ditugun erronkak XXI. mendean guztiz bestelako direla.

Seguruenez, ez dugu hori behar eta komentatu dute ere hizlariak gaur goizean eta atzo ere azken saioan sormen gehiago behar dugu, inoiz baino gehiago, hau da garai bateko errezetek modu klasi-koan funtzionatu dutela konturatzen ari gara eta COVID-ek informazio asko ematen digu horri buruz. Jadanik ez dutela errezeta horiek funtzionatzen. Guk oinarrizko eskubideak erabiltzea aukera bage-nuen herri bat blokeatzeko aste oso batean zehar eta horrek esan nahi zuen mugiarazi genitzakeela ordezkari politikoak, ze Bartzelona bezalako hiri bat blokeatu zuten. Ari naiz adibidez taxilariak, aldarrikapenak egiten zituztenean blokeatu egiten zuten Bartzelona aste oso batean eta gero agintari eskumendunen negoziazio xxx bat iritzi behar zuten. Bina ez, ez, konturatu gara horrek guztiak jada-nik ez duela balio. Ezin diogu uko egin mobilizazioari baina argi izan behar dugu XXI. mendeko tres-nak mobilizazioa bultzatzeko gaur egun ez direla hain erabilgarriak XXI. Mendean eta beraz, sormen puntu bat eskatzen du horrek eta komentatu duzun hori ere bai ezin dugu aurretik epaitu. Gizarteak geroz eta inplikatuagoak daude baina eskatu behar dugu erantzukizun bat. Komunikatzea zeintzuk izan daitezkeen inplikazio bidez, esate baterako Omnium Cultural ni espetxean sartu nintzenean 70.000 bazkide ginen, beharbada presidenteak berretsiko du esaten dudanean. 70 bat mila kide gi-nen, espetxean sartu nintzen eta lau urtean zehar 70.000 bazkide izatetik 200.000 bazkide izatera pasatu gara. Jendeak esaten baldin badu, Katalunian jendeak ez duela konpromisorik bueno ba ez da egia eta ez da egia ze jendeak hartzen du dirua poltsikotik erakunde baten jartzen du kasu honetan hizkuntza Katalanaren kulturaren alde. Ezin ditugu prejuzkatu herritarrak eta herritarrek ere ezin dute prejuzkatu kontsumitzaileek duten gaitasuna eta herritarrak diren aldetik. Eta eztaikit, uste dut ez dizudala erantzun baina tira, ausartuko nintzateke esaten sormena behar dugula eta formula zaharrak ez dutela funtzionatzen lehen bezala.

Juan Jose Ibarretxe

Bai niretzat ere horrela da. Niri ere kostatu egingo zait galderari erantzutea. Ni ez nago aktibo politikan. Ni Lehendakaria izan nintzen Euskal herrian baina hori izan zen Erdi Aroan eta nik behintzat halaxe esaten dut. Niri bereziki gauza batzuk kezkatzen naute: Zer egin du politikaz? Egin dugu Botoak kontatzeko makina baina hori ez da politika baizik eta botoak kontuan hartzea. Ingelesek esaten duten bezala, kanoiak edo gurina? Hau da, eraikitzen jarrai dezakegu boteretik eta horrek ekarriko du partzelak lagatzea merkatuei, eskumena lagatzea merkatuei hau da, *How to reach people?* Hau da, nola iritsi jendearengana eta eskubideen bermetik erantzun behar da, bai eskubide banakako eta kolektibo. Eta nik uste dut planteatzen ari dela hemen ez dugula tresnarik, ez dugula tresnarik arazoak ebazteko une honetan bizitza publikotik. Eta hori zergatik gertatzen da? Garai batean tresnak izan genituelako modu arrazonagarriak pobreziarekin lotutako arazoak konpontzeko, hau da, pertsonen proiektu politikoa batzuetan izaten da ogia lortzea baina pobrezia alde batera utzita gaur egun bizi dugun desberdinkeria aldarrikatzailea da, ikuspegi politikoetatik eskubide sozialak aldarrikatzen dira hezkuntza mailan, aseguru sozialetan, etxebizitzan. Eta beraz, garai barean izan genituen tresna horiek arazoak konpontzeko, gaur egun zuk ondo esan duzun bezala Jordi, berrasmatu egin behar ditugu, berriro egin behar ditugu, berrikuntza politikoa behar dugu guk eskura ditugun tresna horiek berritzeko eta bermatu ahal izateko eskubideak bete egiten direla bai pertsonen eta bai herrien eskubideak. Boteretik eraikitzen jarraitzen baldin badugu, gatazka politikoak betikoak izango dira. Herriarren protestak areagotu egingo dira eta politikaren eta herriarren arteko tartea handitu egingo da eta uste dut gaur egun munduan badirela aitzindari politiko eta ekonomiko asko ez dakitenek zer nahi duten bere herriarrek eta herriar askok ere ez dakite zer nahi duten bere aitzindari edo agintariek. Eta horrek kaosa dakar eta urruntasun bat eta non gauzatzen da, non gorpuzten da? Hori demokrazia batek izan daiten kolperik handienezan ba parte hartze eskasian. Adibidez, Europar proiektuan askotan esan genuen ze garrantzitsua zen baina %30eko parte hartzea dago, beraz 10 biztanletik 7-k parte hartzen ez dutenean ba zer esan dezakegu?

Amalur Álvarez

Jendeak ez du parte hartzen baina gero jendeak eskatzen du parte hartzea baina parte hartze zuzena eskatzen du eta nik uste dut parte hartzeko modua dela askotan konbentzitzen ez duena. Eta falta da haustura argi bat dago konfiantza falta bat da. Ez da ikusten ze erabilgarritasun duen parte hartze politikoak gutxienenez eta uste dut hori dela bultzatu behar dela. Konfiantza berreskuratu behar da, erabilgarritasuna ikusi behar da Lehendakariak esan duen bezala, entzutea eta hurbiltasuna ere bai eta lehen aipatu dudana, ez da kasualitatea munduari begiratzen diogunean eta zer ari den gertatzen munduan eta prozesu burujabetasun ari den gertatzen ba autodeterminazioa planteatzea ba erreferendum gisa. Erreferendum-a planteatzea ez da inongo kasualitatea eta horregatik lehen ere azpimarratu nahi izan dut ideia hori, hau da, ez dela bakarrik komunitate politikoaren aitortza baizik eta baita ere, guk herriarrei ematea erabakitzeko eskubidea eta zuzenean parte hartzekoa, ze azken finean ikusten ari gara bizi garela aldaketa garai batean eta aldaketa pasa egiten da eta demokraziak bizi irauteko konfiantza gehiago eman beharko die herriarrei. Eman beharko die parte hartze tresnak, zuzenak ere ba. Badakit gaur egun jende askok politikan lan egiten duela, hemen gaur egun eta hori ez da beharbada arrakasta duen zerbait edo asko entzun nahi den zerbait elite politiko batzue-

tatik baina hau errealitate bat da eta hau asumitu beharra dago eta asumitu behar da. Jendeak parte hartu nahi du eta zuzenean parte hartu nahi du bestela azkenean Lehendakari jaunak esan duen bezala demokrazia batzuk izango ditugu non %30ek bakarrik parte hartuko duen. Eta hori ez zilegia, hori ez da zilegia izango emaitza ez behintzat eta nik uste dut hor gogoeta garrantzitsu bat dugula egiteko eta entzuteko.

Quim Torra

Orain gogoeta batzuk erantsiko ditut. kideek esandakoa areagotu edo handituko dut. Lehen era esan du lehendakari jaunak errelatoaren aldeko borroka gogorra da une honetan behintzat nik izan dudana esperientziagatik eta ondorioz borroka bat da bere, hau da, alderdi politiko batzuk ahaztu egiten dute hor herritar batzuk daudela beraz diskurtso politiko bat dago hor paraleloan doana errealitatearekin ze interesatzen dena da diskurtso politikoarekin menderatu egin behar duzula zure kontrakoa eta errelatoaren lortzeko borroka beti gobernu barruan gertatzen dira. Errelato hori bereganatu nahi dute beti gobernuak. eta batzuetan gobernu horiek kideak direna oposizioa dira aldi berean eta nik uste dut horrek guztiak harritu egiten duela jendea eta herritarrak aldendu egiten direla, uste bait dute hori guztia antzerki politiko huts bat dela eta oso urrun dagoela beren interesetatik. Nik uste dut erantzukizun handia dagoela, autoexijentzi handia dagoela politikarien aldetik eta alderdi politikoen aldetik. Esateko eta are gehiago post COVID honetan, hau da, ber hartu egin behar da herritarren bizitza berriro jarri behar da erabaki politikoen guztien erdialdean. Asko entzun diet ere nire lankide askori esaldi hau baina ausartzen naiz berriz ere esaten ze uste dut horrela dela. Adibidez lehendabizi herrialdeko presidente izatetik ba oso momentu larriak bizi izan nituen, pandemia lehertu zenean eta ezin nituen hartu nik nahi nituen erabakiak nire herriarentzat ez banituen nire tresnak eskura, ez banituen baliabideak, 155 ezkutu bat ere aplikatu ziguten eta beraz konturatu nintzen larrialdiz behar genuela estatu bat izan, premiazkoa zela Estatu bat izatea. Bi hilabete larri horietan bizi izan nintzen erabat sinetsita COVID ondoko aroa aukera bat zela, itxaropen aukera bat zela gauzak desberdin egiteko. Atzoko mundua, lehengoko mundua, COVID-a zegoenean, mundu hori ezin dugu erreplikatu. Hau da, ematen du beti eraiki egin behar dela katastrofe humanitario hori sortu zuen oinarri horien gainean. Hau da, kolapso logistiko handia gertatu zen eta pandemiaren ondoren une bat gertatu zen zeinean gizarteak gelditu egin behar zuen posible baldin bazen eta gogoeta egin ze puntutaraino garrantzitsua den guk gure bizitzeko modua aldatzea, eta gure erabakiak hartzeko modua ere aldatzea, eta nik uste dut gai baldin bagara benetan ariketa hori egiten, behar adinako sakontasunez, uste dut herritarrak kateatu egiten zaiola horri ze jendea desiratzen ari da parte hartzeko. Exijitzen ari da gizarte eskubide horiek mehatxatuta daudenak erabiltzeko. Eta ez dute haiek murriztea nahi eta oso garai konplikatua denez uste dut eta nik uste dut funtsezkoa dela berriz ere dena birplanteatzekoa, COVID ondoko etorkizun horri buruz hausnartu behar dugu ze herritar horiek azken batean eta bat nator Amalurrekin, Nik uste dut borondate bat badagoela, presente egoteko, entzunak izateko baina ez dugu errelato borroka batean galtzerik nahi alderdiak. Eskerrik asko

Stephen Gethins

Moderatzailea

Beno orain, jarraituko dugu aurrera galdera batekin. Quim Torra-ri ere galdetuko diogu ze egia da denok ados gaudela trantsizio une batean gaudela, COVID larrialdiaren ondoren, pandemiaren ondoren, eta une jakin batean gaude non herritarren nahi dute zerbitzu publikoak ondo funtzionatu dezaaten: eskola, erietxeak, erretiroak ere bai. Beraz galdetu nahi nieke parte hartzaileei, galdetu nahi nieke Erakunde publikoak dituzten eskumenak. Badira hainbat geruza, hainbat maila eskumen arloan botereari dagokionez eta gero ere planteatuko diogu galdera bat Ibarretxe Lehendakariari baina Quim Torra jauna, komentatuko diguzu ze garrantzia duen tokiko demokrazia horrek herritarrenganaino iristeko zerbitzuen bitartez eta herritarrak benetan egon daitezzen erabaki hartzearekin lotuta

Quim Torra

Nik adibidez garrantzi handia ematen diot, maiuskulua ematen diot udaletxei eta alkateei, ze hori da lehen maila, hau da lehen maila politikoa herritarrentzat eta niretzat behintzat, hori da nire esperientzia, hala da. COVID-ak gainditu gintuenean, guztiok Kataluniako alkate jaun-andreek ez zuten ezertan huts egin, herritarren ondoan egon ziren. Bizitza bilatzen bueno ba gobernuek egin genuen bezala baina uste dut eredugarria izan zela herritarrekin izan zuten konpromisoa. Nik uste dut gure herrian eta zurean gertatzen ez den bezala, gure hauteskunde sistema, lakra bat da, sama bat da guretzat. Sama bat da interakzio handiagoa lortzeko herritarren artean, arlo politikoan. Hemen zerrendak itxiak dira zeinetan eta pertsonaia baten esaldian, baina uste dut esaldia ona zela: “mugitzen dena, ez da argazkian ateratzen”. Beraz, baditugu alderdi batzuk botere egitura oso zurrunean eta boto-emaileak zerrenda bati botoa ematen dio eta nik uste dut horrek ez diola mesederik egiten parte hartze horri. Baina galdera zihuan zerbitzu ematean. Guk eskumen eksklusiboak ditugu osasunean eta hezkuntzan adibidez baina ez ditugu baliabideak eskumen eksklusibo horiek benetan erabili ditzagun nahi dugun moduan. Kataluniak 17 mila milioiko expolio fiskala sufritzen du urtero eta zorte pixka batekin Europar funts horiek aterako dira zergadunetatik. Eta gero ez dira itzultzen. ateratzen dira 17 mila miliokin begi bistan dago batek imajinatu dezake zenbat gauza egin genitzakeen une honetan egiten ez ditugunak. Eta lehendakari nintzela grebak eduki nituen era guztietakoak, irakasleak, osasungintzako langileak, suhiltzaileak eta nik ezin nien esan arrazoa ez zutenik, bazutelako. Baditugu suhiltzaileen parkeak hamar urtetan berri ez direnak, irakasleen soldatak ez dira duinak, medikuekin eta erizainekin badakigu saturazio maila handiak ditugula. Ez dela normala eta iruditzen zaigu gainera Katalanek ez dutela hori merezi, ez dute horrelako zerbitzu publikorik merezi ezta horrelako lan bat edukitzea ere. Eta guk proposatzen genuena zen, hau ez da bandera kontua, hau ez da muga kontua, ez dago horrekin lotuta ezta? Bost axola niri zer dioten besteek ezta? Niri interesatzen zaidana da hemengoek zerbitzu hobeagoak izatea. Nire kargura daudenek eta seme-alabek aukera izatea diru laguntza izateko, adinekoak egoitza onak izateko eta ahalik eta onenak eta baldintza onenetan edukitzeko zerbitzu horiek. Eta iruditzen zait hor eskakizun maila handia dagoela eta hori ona da ezta? Iruditzen zait ona dela edukitzea herritar batzuk konprometituta daudenak eta esaten diotenak gobernuari: Aizu ezin dut zerbitzu hauekin jarraitu ezta?

Adibidez trenbideetan aldirikoetan dugun zerbitzua ia-ia koloniakoak dira, penagarriak eta hau guztia ikusita ere, gizartean gertatzen diren eta ari diren sakoneko aldaketak, herritarrak benetan zorroztzak izango direla. Eta politikariek gure lana egin beharko dugu hor.

Juan Jose Ibarretxe

Nire ustez azken urteotan paradigma bat gertatu da. 90eko hamarkadan maxima batek zioen globalak lokala edo tokikoa baliogabetu egiten zutena ez? Eta gaur egun esaten dena da tokikoak mugitzen duela mundua ezta? beraz garapen jasangarri eta giza garapeneko agentziek sustrai kulturalak behar dituzte garatzeko. Zoriontasunaren eta ongi izatearen ereduak elementu kulturalen arabera elkarrekin direla eta ziurrenik zoriontasunaren bizi kalitatearen irizpideak desberdinak izango dira zuretzat eta niretzat. Eta horretarako giza garapen jasangarriaren irizpide batzuk ditugu. Baina zein da arazoa? Orain arte erabakiak hartzeko oinarritzko agenda izan dela: eraginkorra da ba egiten dut, ez da, ez dut egiten. Eta zertaz ohartu gara? Ulertu dugu ez zaizkigula zerbitzu eraginkorrak ematen gizarteari horrelako planteamendu batekin: Agenda ekonomikoa kontuan izan behar da baina ez solik agenda hori. Agenda soziala, kulturala ere eduki behar dugu, ingurumenari dagokiona ere bai. Eta horrek zer egiten du? Herritarrak eztabaidan sartu erabaki estrategikoetan. Ez dugu nahikoa aditu handiekin ez gobernuetan ez enpresa handietan. Hartu behar diren neurriak eztabaidatuko dituzten pertsonak behar ditugu. Hiru aldeko agendak eta integrazioak erabakiak zailduko dituela ulertuta. Zergatik? Negoziatu egin behar direlako. Herritarrekin ere hiru alderdi beraz, administrazio publikoak kalteak edo kasu honetan herritarrak eta enpresa edo gobernuak ezta? Eta hor egia da erabakiak hartzea zailagoa izango dela baina gero gauzatzea azkarrago gertatzen da. Eta iruditzen zait orain munduan dugun arazo handienetarikoa bat hartzen diren erabakien %80, adituek hartzen dituztenak, mahai gainean geratzen direla ezkutuan gero ez direlako uzten guretzat zoragarriak. Diagnostikoak bikainak ditugu eta gero arazoa da hiru alderdi horiek txertatu ezean, ez ditugula izango erabaki benetan onak direnak, helburua delako bai erabakiak hartzea baina baita ere aurrera eramatea.

Amalur Álvarez

